


FELIX INOCENCIO BUJANDA SARASOLA  
“INOSEN”



**“EZ DAGO, ez, IDATZIA”**

(Herren arriskutsu eta gafadun baten gogoetak)

“EZ DAGO, ez, IDATZIA”



FELIX INOCENCIO BUJANDA SARASOLA  
“INOSEN”

**“EZ DAGO, ez, IDATZIA”**  
**(Herren arriskutsu  
eta gafadun baten gogoetak)**



EGAN ALDIZKARIAREN GEHIGARRIA  
2020



## **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
lagundutako argitalpena

EGAN Aldizkaria

Peña y Goñi 5, 2. ezk. - 3.263 posta-kutxa - 20002 Donostia  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte - Gipuzkoako Saila

Posta elektronikoak: [egan.bascongada@gmail.com](mailto:egan.bascongada@gmail.com)  
[comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net](mailto:comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net)

Webgunea: [www.bascongada.eus](http://www.bascongada.eus)

ISSN: 0422 - 7328. EGAN

Legezko Gordailua: S.S. 289/1958

Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA  
EGAN Literatura aldizkaria

### **Erredakzio Kontseilua**

*Zuzendaria:*

Koro Segurola Azkonobieta  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. Euskaltzaindia

*Erredakzio arduraduna:*

Izaro Arroita Azkarate  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU

Iñaki Aldekoa Beitia  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU

Ana Gandara Sorarrain  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU

Beñat Sarasola Santamaria  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU

Joseba Sarrionandia Uribelarrea  
Idazlea

Juan Luis Zabala Artetxe  
Idazlea. Itzultzailea

Posta elektronikoa: [egan.bascongada@gmail.com](mailto:egan.bascongada@gmail.com)



## AURKIBIDEA

I. PAUSOKA .....	11
II. MITOAK .....	41
III. UTOPIA .....	55
IV. GEZURRETAN .....	93
V. BIKAINTRASUNA .....	101
VI. PLANETA .....	119
VII. "EZ DAGO, ez, IDATZIA" .....	141





Felix Inocencio Bujanda Sarasola, “Inosen”, 1915eko urtarrilaren 16an jaio zen Donostiako Antiguako auzoan. Fortunato zuen aita, Luisa ama, eta sei seme-alaben artean bigarrena zen. 1936ko gerra zibilean bera eta bere bi anaiek, Benitok eta Gerardok, Eusko Gudarostean, EAJko Saseta batailoian hain zuzen, gudari bezala borrokatu zuten, arrebak niñas de la guerra gisa erbesteratuak egon ziren bitartean. Inosen Santoñan preso hartu zuten Gerardorekin batera, eta ordurako anaia zaharrena, Benito, Lemoako menditan hila zen aurrez aurreko borrokan erreketen aurka. Santoñako eta Puerto de Santa Mariako kartzeletan urte askotan egon ondoren, kaleratu eta euskal “erresistentzian” jarraitu zuen. Añorga auzoko Xixili Arizmendi Etxenagusiarekin ezkondu zen 1950. urtean eta hiru seme-alaba izan zituzten, José Manuel, Arantxa eta Juan Ramon. Inosen, gure aita, autodidakta izan zen, jakituna, serioa, nortasun zorrotzekoa, irakurle amorratua, kultura, euskalduna, abertzalea, fededuna baina ez klerikala. Beragatik, bai, esan daiteke eta ondo esan ere “Izan zirelako gara”. 98 urterekin hil zen burua guztiz argiarekin. Azken urteetan idatzitako hainbat orrialde aurkitu genizkion seme-alabok, eta guztiak transkribatu, txukundu eta bere omenez aurkezten ditugu orain *Egan* aldizkarian.

*Bere seme zaharrena,  
José Manuel Bujanda Arizmendi*

OHARRA: Testuaren izaeragatik *Egan* aldizkariak jatorrizko testua errespetatu du, eta ez du argitaratzeko ezarriak dituen arauetara moldatu.



## I. PAUSOKA

### **Hasten gara pausoka**

Nire aitatzko Fortunato 1885ean etorria zen mundu honetara, baina ez dut inoiz jakin non jaioa zen, uste dut Nafarroa ingurukoa zela, Iguzkitza herri txikikoa hain zuzen, baina oso umetan Donostiara etorria bere gurasoekin. Aitatzok oso ondo hitz egiten zuen euskaraz, “hika” ere bai, bere anaia zen Paulinorekin. Nire aitatzoren aitak nire aitona José zuen izena eta karlista amorratua zen. Kondekorazio eta medaila ugari zituen etxean ondo gordeta; halaz ere, gustukoa zuen lagun eta ezagunei hauek aldiro harro erakustea. Paparrean jartzeko domina horiek guda zelaietan irabazitakoak omen ziren, borroketan liberalen kontra. José Donostiara etorri zen lan bila Alodia bere emazte gaztearekin. Gogoan daukat Alodiak, nire amonak, uste dut Errioxako alaba zela, nola deitzen zion euskaraz ez zekienari, “vascuen” esaten zion. Zimurra zen emakumea, gogorra, argala, serioa, eskuekin, bi behatzekin hobeto esanda, eta haizea botaz, ikatz zatia gori-gori zegoenean beste leku batean ipintzearen hartzeko gaitasuna zuen horietakoa. José Benta Berriko Xaboi fabrikari aurkitu zuen lana... uste dut “Jabones Lagarto” zela, edo “Lizarriturri y Rezola”... ez nago seguru, ez. José eta Alodiak Benta Berrin etxe bat aurkitu eta han bizitzen jarri ziren. Agian, dagoeneko nire aitatzko jaioa zen. Ondoren beste bi seme-alaba izan zituzten, nire osaba-izeba zirenak beraz, Paulino eta Ascensión Urbana. Fortunato, Maria Luixa neska gaztearekin ezkondu zen, Igeldoko alaba zena hain zuzen. Bere aita Praxku, nire beste aitona, Igeldoko semea baita ere, liberal amorratua zen. Hau da hau euskaldunen patua, bi aitona izan behar eta biak etsai amorratuak, bata karlista eta bestea liberala. Biak 1850. urtean jaioak gutxi gorabehera eta hirugarren eta azken Karlistadan ibilitakoak, mutil gazteak zirenean.

Fortunato eta Maria Luixak sei seme-alaba izan zituzten. Ni hirugarrena izan nintzen.

Oso urrun eta aspaldiko 1915eko urtarril bateko 16. egunean jaiotzen Donostian. Munduko Lehen Guda mundiala pil-pilean zegoelarik etorri nintzen euskal lur honetara beraz. Txiki-txikitandik Donostiako Antigua auzoko Matia kalea, eta bere ingurunea, izan zen nire bizi-ardatza, Benta Berrin hasten zena eta Donostiarako tunelean bukatu hain zuzen. Orain ia ehun urte ondoren, eta egunero nostalgiaz beterik, hainbeste amesten dudan antzeztoki maitatu eta polit horretan bizi izan nintzen ia hogeitaz urtez.

Gogoan daukat Matia kalean gora Heriz Ibiltokian eskola publikoak zeudela eta hara joaten nintzela hamaika urte bete arte, auzo horretako garaiko neska-mutil gehien gehienak bezalaxe.

Hantxe ikasi nuen irakurtzen eta idazten. Gustatzen zitzaidan irakurtzea eta berehalaxe hasi nintzen Matia kaleko hainbat dendatan garaiko TBEoak erosten, eta txanpontxo gehixeago edukitzean *Pulgarcito*, *El Infantil* eta gainerakoak begiz jo ondoren amatxok jositako neramatzin galtza motxetako patriketan nireganatzen. Ondorengoak ziren, politikak oso ere, “El Guerrero del Antifaz” eta antzekoak... baina ordurako hazia nintzen, eta hauek, beraz, ez ziren jadanik nire txiki-mundukoak: arin koxkortu beharrean aurkitu zen mutiko harentzat berandutxo kaleratu zitzaizkion “nobedade” hauek.

Antiguatarrek oso inguru eta oso berea dute itsasoa orain ere, eta aspaldi hartan zer esango nuke ba, agian gureagoa zela, maiteagoa genuela. Hamar-hamabi urteko nerabeentzat itsas ura, paradisu paregabea zen, zeru berdingabea. Noiznahi bainu ederra hartzeko parada fantastikoa. Eta itsasoa zakarra bazegoen zer? Ah!, orduan bilatzen genuen noski beste erako bainu bat izateko egokitasuna. Nahiz eta txikiak izan, ume koskorak oraindik, bazekiten, bagenekien, zer egin. Nora jo? Soluzioa, irtenbidea, Konporta ibaia zen. Lagun zintzoa genuen, bada, Konporta ibaitxo. Txintxo benetan. Bere albo eta ondoan, ertz-ertzean, Benta Berri ez urruti. Hondarretako bidean, arbola batzuk, enbor-motz eta adar sendokoak zituztenak uren gaineratik. Adar mardul batetik uretara salto egin ezin balitz besteren bat aurkitu beharren ginen. Arraiak ere iristen ziren tarteka-marteka haraino, batik bat korrokoiak, beti ugari, urduri eta lodikoteak. Bainu klase hori, egia esan, ez genuen maiz egiten.

Gauza normala zen. Itsasoko kontu arrunt bat. Ohiturako zerbait. Baina Konporta ibaia urte asko eta asko dira estali, tapatu hobeto esan, egin zutela, lurpeko bihurtuz halabeharrez. Azpi beltz horretatik behe-

rantz doa gaixoa, tenis zelaia atzean utzita, Txillidaren eskulturetaraino, hots, itsaso bertaraino.

Ur ariketak bazter ditzagun orain eta goazen lasaiki lehor jardunbi-deetara. Herizko aldapa gure jostaleku faborittoa suertatu zen luzaroan goitibeherei esker. Jostaketan ibiltzeko antolatzen genituen, bai, apustu ederrak edozein garaitan, betiere eguraldiaren baimenez. Horrek ere bazuen bere koska, zeren errodamenduak edukitzea zaila izaten baitzen. Horregatik komeni zen aitak tailerretan ari zirenen adiskidea izatea. Modu horretan gurpil mota horixe behar zen momentuan buruhausterik gabe eskuratzeko. Lasterketa serioak ez ziren urruti prestatzen, Igeldoko aldapan motoristentzat egiten zirenak alegia.

Bai, Igeldoko igoera famatua aipatzen ari naiz. Garai hartan oso famatuak ziren lasterketa eta aldapa haiek. Han azaltzen ziren besteen artean hainbat hiritar donostiar, Landa anaiak, Julio eta Eduardo, adibidez. Behin baino gehiagotan garaile izan zirenak merezimendu guztiarekin, haiek bai ahaztu ezineko ekintza sonatuak!

## **Pausoka jarraituz**

Inon eta inoiz gazte jendea kirolzalea izan bada horixe izan da luzaroan Antiguaren kasua. Guztiak ziren aldi berean futbolista, txirrindulari, pilotari eta boxeolariak. Etxe ondoan ikusi besterik ez dut. Jexux lehen-gusua maila horretan sartzen da: txirrindulari batez ere, boxeolari eta futbolista goitik behera bihotz-bihotzetik. Pilota falta zuen. Hondarretako zelai zabalean futbola zen nagusi, hori bai, begi bistako luze zabalean adin guztientzako jokaldiak ikus zitezkeen musu-truk.

Txirrindularitza kirol “herrikoiena” zen, Miner idoloa, ezagunena eta maiteena.

Boxeorako ere gaitza zen zaletasuna. Entrenamenduak ez ziren zailak. Matia kaleko sagardotegi batean prestatzen zituzten upel erraldioen erdian, betiere borondate onenaz antolaturik. Gureek Gipuzkoako txapelketetan parte hartu zuten, batzuk arrakastatsu gertatzen zirela, besteak, noski, ez horrenbeste. Izan ere, auzoan arrazoi bereziak egon bazenuden giro guztiz paregabea topatzeko. Eskolta Realeko garaje batean neurri legaleko ring bat muntatu zuten oholtza bat erabiliak. Paulino Uzkudun eta Isidoro Gaztañagaren urteak ziren haiek, pisu astuneko boxeolari famatuak planeta osoan. Gure garaje hartan ere kategoria handiko jendea zebilen. Bikote batzuk aipatzekotan, hantxe entrenatu ohi zi-

ren Ignazio Ara, Aragoikoa, eta Jim El Zaird, Oradarra, Arjeliakoa beraz, hau bai burdinazko mutil kementsua. Gero Ignazio Ara bera Argentinan ibili zen urte askotan boxeo-zuzendaria izatera ere iritsi zelarik, “Rin-geko Zalduna” bezala ezaguna zen.

Futbolera bueltatuz, bazen Antiguan bigarren mailako talde bat, “Beti Aurrera”, kanpoko txapelketetan ere ibiltzen zena. Ni ekipo harekin joaten nintzen zenbaitetan, esaterako Martutenera, jokalaria batzuen maletatxoak eramanaz. Urumea ibaiko ertzean zegoen “Los Cañaverales” izeneko zelaia, kanaberadi bikaina alajaina!. Beraien maletatxoak erama-teagatik xentimo batzuk ematen zizkidaten eta txanpon haiekin poliki pasatzen nuen astea. Jokalariak, gehienetan behintzat, partidua amaitu-takoan, hantxe bertan zegoen ibaian bainatzen ziren. Antigua auzoko mutikoentzat abentura itxurako zerbaite iruditzen zitzaigun Kontxako “La Perlaz” pasata abiatzea, hots, Donostiara joatea, gerokoan “Zentroa” bi-hurtuko zena.

Eta noiz eta zertara joaten ginen “Donostiara”? Maizenik “Bellas Ar-tes” zinemara joateko. Gainera, Amara hartan bazegoen goxoki fabrika bat, karameluekin irudiak, kromoak eta argazkiak ematen zituen, haiekin album politak osatu ahala sariak irabazten genituen, baloi ede-rrak eta antzeko beste kirol elementuak.

Baina Donostiako mutilak ere Antiguara inguratzen ziren zinema ikustera “Txarola aretoan”. Hartan “galeria”ko sarbideak behean zeuden eta butakak goien. Gainera, beheko eserlekuak ez ziren banakakoak bai-zik bizkar-gabeko banku luzeak ezkerretik hasi eta beste izkinaraino-koak. Donostiarrek hori ikusiaz burla eta iseka egiten ziguten. Gu berriz, lasai eta harro geurearekin...

## **Hirugarren pausoa**

Pozik sartzen ginen “Txarolan”. Egia esan, askorik ere ez ziguten eskatzen: txakur handi bat, hamar xentimoko bat. Gure sasoirik goxoe-nak bertan pasatzen genituen, Charlot, Txikilin, Harold Lloyd, Panplinas, Dank Fatty, Ben Turpin, Buster Keaton, Tom Mix, Eddy Polo, Douglas Fairbanks, Mary Pickford eta abar, eta abar. Familia benetan zoragarria! Pelikula mitikoak, alajaina: “El hombre león”, “La huella del tigre”, “Ro-bin Hood”, “Gizon eulia”, “Gizena eta flakoa”, “Tarzan” modu eta era diferenteetan... Ai “Txarola Txarola”...”Txarola” bihotzekoa sualdi zital

batek eraman egin zuen “Apokalipsizko lau zaldizkoak” proiektatzen ari zelarik.

Niretzat, errautsetako etena eta erabateko haustura 1927ko azaroaren 30ean gertatu zen, San Andres egunean hain zuzen. Egun hartan nire orain arteko ohiko bizitza lasaia erdibitua, arras erdibitua geratu zitzaidan, eta ni neu ere hautsita, puskatuta, hankabakar, hankamotz! Antiguatik Donostiara joaten zen tranbia hartzen genuen goizero Amarako eskola publikotara joateko, Urbieta kalekoetara hain zuzen. Etxean zentimo apurrak ematen zizkiguten tranbia hartzeko... baina guk beste zerbaite-tarako behar sosa haiek eta tunelaren irteeran itxaroten genuen, erdi ezkutuan, tranbia delakoa, aldatxoa gorantz zegoenez abiadura pitin bat moteltzen zuenean “montadiña” egiten genuelarik, jauzi bizkorrak eta salto arinak izaten ziren, alajaina! “Baina”... beti ohi da “baina”ren bat... egun horretan euri berriaren bustidurak eta hondartzako itsas ondoko airearen hezetasun kresaltsu maltzurak lurra labainkorregi bilakatu zuen, zidan, pausoa oker eman, jauzian kale egin, labaindu eta han erori nintzen tren azpira, hantxe geratu zen zango eskuinaren zati handia belaunpetik erauzia, gupidagabe erauzia.

Eta horrela bizitza osorako mutiko koskorra hanka-bakarra, hankamotza. Irakurri beste zereginik ez zitzaidan geratu. Agur betiko futbola eta korrikak!

Hala sortu zen prentsa irakurle berri eta amorratu bat. Tarteka-marteka aldizkariak ere bai, abenturetako liburuxkak, ezagunen eta arrakastatsuenak, hala nola Nick Carter eta Bufalo Bill, baina guztien gainetik “Dick Turpin”, sail osoa ekarri baitzidan nire anaia zaharrenak, Benito izena zuenak. Ez zen gero txantxa horrelako oparia, ez! Ez naiz oso ondo gogoratzen berrogeita hamalau ala berrogeita hemezortzi ale ote ziren. Dena dela, nagusi bakarra Nic zen, bidelapur bizkor eta superzintzoa. Honek jauntxo aberatsei dirua kendu eta behartsuei banatzen ziena, Tomas Rey berriz haren ordezkari argia zen. Gero gerokoak... Moskarda eta Peter “Belarrondoko bizar gorriak”, “Batanero beltza”, “Pat Irlandarra”, “Mostazilla” polizia ezaguna... Harekin batera liburuak ere polit askoak ekartzen zizkidaten: Salgari, Julio Verne, Ben Hur... nahi adina.

Gauzak, gertaerak, atsekabeak eta egoerak denborak bere joan aha-lean konpontzen ditu leun-leun eta poliki-poliki, hori baita bere lana eta eginbeharra. “Kuentak” ikasi, kontabilitatea helburu. “Goi mailan”, “toki altuetan”, botere politiko kontutan aldaketa giro izugarria sumatzen zen. Ezezaguna zitzagun garai berriak zetozen, zetozkigun. 1931ko apirilaren



hamalaua zen. Kaletan orri txikiak banatzen zituzten. “Ciudadanos, se ha proclamado la República. Orden, orden, orden. El Comité”.

Aitatxo Fortunato, ni neu bezala, EAJ-PNVkoa zen, Benito nire anaia zaharra baita ere, ELA-STVkoa ere gainera, borrokalaria alajaina, sutsua benetan, irmoa bere printzipioekin. Benito, Benito, beti nire bihotzean. Gogoan daukat nola nire osaba Paulinok, aitaren anaia zenak, enpresari eskubitarra hain zuzen, eta ondoren Frankoren erregimenarekin goxogoxo bizitu izan zenak, nolako haserrearekin aurpegiratu zion nire aita-txori Benitoren jarrera bere fabrikan. Txokolate fabrika zen, “Suchard”, Benta Berrin zegoena. Paulinok dirudienez bere anaia Fortunatori, nire aita-txori beraz, mesede bat egin zion eta honen seme zaharra, Fortunatoren semea eta Paulinoren iloba, bere fabrikan sartu zuen lanean.

Benito, Benito zen, eta ELA-STVko kidea zenez amaigabeko greba oso luze baten aitzindari eta arduraduna izan zen. Disgustua etxean. Aitatxo goibel, haserre semearekin, osabak mesede bat egin eta ilobak greba prestatu. Gogoan daukat nola aita-txok, fabrika horretako langilea bera, etxera ekartzen zizkigun txokolate puska eta zati txiki txikiak... eta nola Benitok, harro harro, ekartzen zizkigun, ia ia lotsagabeki, zati mardul-mardul eta oso-oso potoloak...!

Benitoren eta aita-txoren harremanak ez ziren, ez, errazak. Aitatxo gizon zintzoa zen, umila, indar gutxirekin zebilen azken aldian amatxo hila zegoenetik, eta Benito gogorra zen, ausarta, kementsua eta oldar-korra.

Antiguako auzoa industriatsua zen aspaldidanik. Ibaeta eta Benta Berrri aldetik xaboi “Lagarto”, txokolate “Suchard” garagardo “El León” eta disko fabrika batzuk zeuden eta bestetik lantegiz eta garajez betea zegoen. Eta noski, ezinbestez, honek guztiak ezaugarri nabariak zekartzan bere baitan bertan: langile giro sendoa, agiriko klase borroka, grebak eta zalaparta ugariak handik eta hemendik... arrazoiak ez ziren falta, inor ez zen ba harritzen errealitate gordinaz. Sozialismoa lehen indarra zen. Normala izaten zen, beraz, larunbat arratsetan beren astekariak oihukatuak aditzea: “Gipuzkoa Obrera”, “La Voz del Trabajo”, “Euskadi Roja”, etab. Horiek eta beste batzuk ere oihukatzen ziren Donostiako bulebarreran zehar. Beste aldetik, Antiguako eusko abertzaleen astekariak ez ziren kalean saltzen, eta erabaki zen gureak ere, ozenki zabaltzea.

Horretan aritu ez denak nekez asmatuko luke kalean oihuka lehenbiko aldiz ibiltzeak ematen duen ongi-eza... besapean periodiko pilarekin

deiadarka kalean hastea ez da giro txantxa pozgarri bat, ez... Presentzia berri honekin oreka berri bat ezarri zen Antiguako kaleetan, bestelako *statu quo* bat Matia kalea, astekari zalapartatsuen kontzertuan agertu ziren kalez kale baita ere *Argia*, *Aberrri* eta *Amaieur*. Aita Fortunato EAJkoa zela esan dut lehen, eta gogoan daukat nola igande goizetan bere alkan-dora txuri eta berriena jantzita, pintto pintto, joaten zen uste dut Donostiako Boulevarden zegoen Batzokira lagunartera. Nik, txikitan askotan laguntzen nion, beno, esan nahi dut elkarrekin joaten ginela... hobeto esanda, berak eramaten ninduela.

Horretan gaudela, hara non datorkigun bazkide berri bat, ustekabeko oihulari bat, ezohiko mezu baten ekarle harroa: “Sin Dios, Organo de la Asociación Atea Internacional, Sin Dios”. Ahots zakarreko mutila zen, gainera. Jendea balkoi eta leihoetara protestetan, haserre bizian, garrasika, mehatxuak, insulto borobilak: kanpora hori, lotsagabe alena, putakumea, isil dadila madarikatu nazkagarri hori...! Eta hortik gorakoak, noski. Eta halako batean, gizon txiki bat, elizkoia oso, Furundarena deitzen zela uste dut, txuri-txuri eginda, saltzaile oihulariaren aurre aurrean jarri eta urduri baina oso ozen, haserre garrasi bizian: “Bendito sea Dios, Bendito sea Dios”! behin eta berriz, ahotsa hautsi arte. Asmoak asmo, gertaera hura probokazio galanta bilakatu zen errealitatean. Eskandalu gaitza izan zen. Ez dut uste berrirori delako “Sin Dios” saldu zutenik begi bistan edo kaleetan zehar publikoki.

Dena den, nik behintzat beti pentsatu izan dut “ekintza” hura norbaitetik eta goi mailaren batetik inposatua izan zela, froga bat, entsegu bat. Agian, han bizi ziren Carro anaiak, hauetako bat Leandro, PCko agintariek bultzatutakoa, agian diot. Usteak uste, ondorioa eta emaitza nabarmena izan zen, argia eta garbia... zeren aitzakia horrekin kanpaina anti-komunista gogor bati ekin zitzaion Antiguan. Zurrunbilo nahastu honen erdian komunistek “Biblioteca proletaria” bat ireki zuten Benta Berrin.

## **Laugarren pausoa**

Hauteskundeak izan ziren 1936. urtean eta ezker alderdiek bat eginda garaipena lortu zuten. Ondoren, laster baino lasterrago demokraziaren eta askatasunaren amildegiaren hasiera latza, uztailearen 18ko Francoren altxamendua lehertu zen eta honen ondorioz irailaren 13an frankistek Donostian sartu eta hiria Francoren azpian geratu zen Artaxonako nafar erreketean eskutik Beorlegi koronelaren agindupean.

Une honetara iritsita, egoera kurioso baten gogoetak datozkit burura. Aitaxo, ehiztaria zen eta horretarako hain zuzen ehiza txakur bat zuen, etxean egoten zena, Dick izenekoa. Afizio hau zuela eta, ez nuen inoiz jakin nola eta zergatik, baina aitaxok eta Beorlegi koronelak, hau ere ehiztaria zenak, bazuten beraien artean ez dakit adiskidetasuneraino iristen zen edo, baina bai, nolabaiteko harremana. Ehiztari izate horrek dirudenez nonbait eta noizbait elkarrekin topo egiteko aukera eman zien elkarri, eta hortik aurrera Beorlegi koronela etxera etortzen zen batzue-tan aitaxorekin hitz egitera ehiza kontuak zirela eta. Gogoan dut. Nire ustetan behintzat, behin baino gehiagotan aitaxok Dick txakurra uzten zion Beorlegiri ehizara joateko. En fin.

Aitaxok ez zuen, zorionez, uztailaren 18ko kolpe militar faxista eza-gutu, bost egun lehenago hil baitzen gizajoa. Ez dut pentsatu nahi ere zein egoeratan aurkituko ginatkeen gure etxean aita bizi izan balitz gaixorik ohean, seme-alabak Bilborantz iheska, Benito Saseta Batailoian eta bere atzetik eta berarekin ni neu eta anaia gazteena Gerardo, eta beste aldetik Beorlegi koronela Donostia menperatzen eta faxisten esku uzten. Askotan pentsatu izan dut... baina hobe aitaxok triskantza eta dolore horiek ezagutu ez izatea...! Milaka gipuzkoar, donostiar asko, horien artean ni neu eta nire anai-arreba guztiak ere, Bizkairantz abiatu ziren, ginen. Erabaki zaila, baina ezinbestekoa alajaina. Hori baino lehenago, baina bolada horretan bertan, Martin Lekuona apaizarekin mintzatzeko parada egokitu zitzaidan. Antiguako parrokiaren beheko geletan gizarte gaietako ikastaldiak ematen zituen, Jesusen dotrina zen bere irrika nagusia. Eliza irekia, abegikorra, hurbila, askatzailea maite zuen Martinek. Hura bai, mila bider bai, gizon ona, pertsona fina, apaiz zintzoen ispilu gardena. Hizketa-gaia Donostian bertan, edo ingurunean, geratu ala Bizkai aldera abiatzea zen. Ez zegoen beste aukerarik. Dilema zaila, erabaki latza. Nik horretaz adierazi nion nire kezka, eta berak irribarretxo bat eginez hitz hauekin erantzun zidan:

-Niri, zer egingo didate ba?

-Ezer onik ez, seguru -nik

Oraindik ere gogoan daukat nola irribarrez alde egin zuen tranbia hartzera. Beharbada bazekien geratu ezkerro arriskuan jartzen zuela bere burua, baina hari ez zitzaion gustatzen iheska ibiltzea. Bere misioari, nola edo hala, eutsi behar zion! Martin Lekuona Etxabeguren (Oiartzun 1907-Hernani 1936) frankistek atxilotu, Hondarretako kartzelan sartu eta egun batzuk geroago fusilatu egin zuten.

AVASCen, Asociación Vasca de Acción Social Cristianan, ordezkari moduan ari zen lanean. Nork esan eta lan horregatik galdu zuen bizia. “Cruzada” harrigarria, gezurrezkoa, laidogarria eta zikina benetan.

Amatxo, Donostiako auzoa den Igeldoko alaba zen, Maria Luisa izenekoa, hil zela bi urte besterik ez, eta gerra zibila etorri zen. Gogoan daukat, ezin ahaztu, aitaren bibotetik malkoak isurtzen ikustean nola ohartu ginen amatxoren heriotzaz, oso gazte zen emakumea hilik 35 urterekin sei seme-alaba utziaz mundu honetan, Benito, Maria Luisa, ni neu (Felix Inocencio izena dudana, baina “Inosen” bezala askoz ere ezagunagoa gehiengoarengatik), Gerardo, Paki eta Txaro. Ez dut pentsatu nahi emakume haren atsekabea ikustean hiltzera zihoala sei seme-alaba kokor utziaz aitaren babesean. Eta benetan, egia esan beharra, gehiegizko zama aitaxorentzat. Gehiegizkoa, alajaina. Bi hilabete ondoren garai ilun eta makurrak familian.

Etxea tristea zen gurea, orain aitaxo zegoen oso gaizki, 1936ko uztailan ez zen ohetik jaiki ere egiten pneumoniak jota, gaitzak hondatuta, erretzaille amorratua zen gainera aitaxo, ama hil berria, medikuek erretzeari uztea agindu zorrotza eman zioten, aita tristura azpian zegoen, etsita, hautsita. Bere anaia Paulino joan zitzaion bisitatzerara.

-Zer moduz Fortunato?

-Joan beharra Paulino, joan beharra!

Hortxe bukatu zen hizketa saioa. Aitak bazekien ordukoa zela azkena. Uztailaren 13an amaitu zen dena. Egun horretan izeba Joxepa Garmendia bisitatzerara etorria zen eta horrela egokitu zen guztia. Azken arnasa bion aurrean eman zuen aitaxok, “Gure Aita” bat errezatu genuen negarrez.

Egun berean, uztailaren 13an, eskuineko liderra zen Jose Calvo Sotelo erail zuten Madrilen.

### ***Lehenengo kointzidentzia?***

Ez gero ahaztu!

Hasieran aipatu dut izeba bat nuela, Ascensión Urbana izenekoa. Iparraldeko Ziburun bizi eta prostituta zena hain zuzen. Ni eta anai-arrebak txikiak ginenean askotxotan gure Antiguako etxera etortzen zitzaigun bisitaxoren bat egitea, oso paper politaz estalita zeuden gozokiak ekartzeko zizkigun. Eta gu oso pozik. Nik behintzat asko estimatzen nuen. Gurekin hizketan ari zenean oso leun eta goxo hitz egiten zigun beti.

Baina aitatzko haserretu egiten zen, asko gainera, etxera etorri eta bere arreba ikusten zuen bakoitzean gurekin solasean. Behin aitatzori ahots ozena eta gogorra, garratza esango nuen, entzun genion... “te lo has buscado y te lo has encontrado” garrasika ari zitzaion bere arrebari. Espainian gerra zibila hasi zenean, ordurako aitatzko hil berria zen, eta Bizkaira alde egin genuenean izebaren arrastoa galdu egin genuen. Erabat galdu egin genuen bere pista.

Betirako, zeren badirudi Bigarren Gerrate Mundiala lehertu zenean eta alemanek Frantzia osoa okupatu zutenean Ascension Urbana desagertu egin zela Ziburu inguru haietan.

Auskalo!

Inoiz ez dugu jakin ahal izan nola gertatu zen bere heriotza eta desagertzea, zerk edo nork eragin zion zoritxarra, non eta noiz gertatu zen gertatu zena, zergatik izan zen. Berririo diot, nik asko estimatzen nuen eta beti oroimen goxoz gogoratzen naiz betaz, gizagaixoa!

### **Bosgarren pausoa**

Gipuzkoan giro politikoa 1936an zalapartatsua izatetik erabat kaotikora izatera pasatu zen. Gerra zibila gupidagabeko anaiarteko guda zen eta. Armada frankista aurreraka zetorren Nafarroan barrena. Eta marmarra zebilen, isilkako marmarra, baina baita ere ahozkoa eta ozena, Donostia haien atzaparretan eroriko zela egun gutxiko epe ezin tristeagoan. Bizkai aldera ebakutzeko beharra nagusitu zen erabat eta horixe bera erabaki genuen guk geuk ere.

Benito anaia zaharra iskanbilen hastapenetatik Donostiako San Bartolomeko gudari taldekoa zen, “Saseta Saldia” izena hartuko zueneko hain zuzen. Handik aurrera nik Benitorekin ibiltzea deliberatu nuen. EAJ-koak ginen biok, etxeko gehienak bezalaxe. 1937ko martxoan “Saseta” Batailoiak Gernikan zuen egoitza. Berdin apirilean ere. Beraz, Gernikan gertatu ginen zoritxarreko egun hura iritsi zenean. Ordurako Francoren aliatua zen aireko armada alemaniarrak eguraldi ederreko berrogeita hamar aldiz bonbardatua zuen inolako defentsarik gabeko Bizkaiko hiriburua, Bilbo. Gogor eta sistematikoki suntsitzen, hausten, apurtzen. Baina urte hartako apirilaren hogeita sei hartan Gernika zen helburua. Gernika txikitzea zen xedea.

Eta halaxe izan, Kondor Legio alemaniarraren hegazkinetatik jaurtikitako bonba itzelek Gernika sutan, garretan utzi zuten, birrinduta,

erraustuta, haustuta. Lotsa, laidoa eta iraina historiaren aurrean. Bitartean gudariak gatazka herrikoitan ari ziren eusko lurra, babestu, aldeztu eta defendatu nahian armada faxista multinazionalaren aurka. Eginkizun ezinezkoa suertatu zena azkenean, zoritxarrez. Atzerako martxa derrigorrean, ezinbestean. Egun askotako borroka itzelak jazo ziren Lemoizen, Peña Lemoan, kasik Bilboko bistan eta atarian.

Egun anitzetako gatazka krudel eta odoltsuak mendi horretan eramana. Egunez hegazkinen laguntzarekin frankistak tontorraren jabe egiten ziren. Gauez, edota eguraldi txarraz, faxistek hegazkinen laguntzarik ez zutenean, geureak, gudariak, nagusi bakarrak ziren gailurrean. Egunerok eta gauero errepikatzen zen ikuskizuna. Ekainaren 3an albistea, tristea zinez gure bihotzean, ez zen Lizardi olerkariak idatzi ohi zuen olerki eder hartan bezala negar isila, malkorik gabeko negar isila, ez. Nik orduan 21 urte nituen, baina ez zait inoiz ahaztuko. Benito anaia maitea, hogeita sei urterekin, egun horretan hila gertatu zen.

Gudaren gorabeheretan heriotza topatu zuen, edo hobe esanda, heriotzak berak topatu zuen eta eraman. Benito erori eta bigarren egunera beste heriotza bat gure familian: mendi berean lehengusu bat hil zitzaigun, Joxe Mari Lekunberri Sarasola, hogeiturotekoa hau, Bataillon Dragonesekoa, mutil koxkorretan etxera etorri ohi zitzaidana laguntzera eta jostatzera gaixo nengoeneko bolada gaizto hartan. Benito eta Joxe Mari, Joxe Mari eta Benito, faxismoaren aurkako eta askatasunaren eta Euskadiren aldeko hil ala biziko lehian erori ziren mutil maite eta lerdenak!

Ez ditut inoiz ahaztu, ezta ahaztuko ere, bihotzean betirako!

### **Seigarren pausoa**

Biei, eta gerra horretan bizitza eman zuten guztiei bertso hau eskaintzen zaie:

Nik banuen anai bat  
gerra hartan hila  
eta berarekin batera  
makina bat mila.  
Ez anaia zelako  
hura zen mutila  
desio dut zeruan  
gertatu dadila

(Zepai bertsolariak ondua. 1981. *Bertsolari*, 29. orria).

## Zazpigarren pausoa

Ekainaren 3an, Benito anaiaren heriotzan, (hona hemen beste *kointzidentzia* bat aipatu beharra, *bigarrena* hain zuzen, oraingoz alajaina) egun horretan bertan hegazkin istripu batean hil zen Emilio Mola jenerala, altxamendu militarren eratzailleetako bat, buruzagi garrantzitsua kolpisten bandoan. Baina badago, egon ere, beste *hirugarren kointzidentziarik*, Aita Santuarena, alegia, Juan XXIII.a, hau 1881ean jaioa zen, eta 1963an hila, zein egunetan?, ba ekainaren 3an. Beraz, Benito anaia 1937an hogeita sei urteko mutila zen, eta hogeita sei urte geroago hil zen Juan XXIII.a. Benito anaia 1937-6-3, Juan XXIII.a 1963-6-3. Eta hiru kointzidentziok gure familia bertan.

Horra zenbaki “itsuen” ustezko sorginkeria bitxia, horra denboren txiripa harrigarria! Zenbat horrelako izan daitezke kasik zazpi mila miloi biztanlez osatutako gure planeta txiki honetan? Sherlock Holmes berak gai horretaz aipamen bereziak egin zituen bere “Larruazal zurbileko soldaduauren abenturak” izeneko idazkian (“Todo Sherlock Holmes”, 1477 orria), hara zer dioen: “Hau ote da egiazki kointzidentzia baten kasua ala ikusten duguna da indar oso finen jokoa, zeinari buruz ezer ez dakigun”. Unibertsoan zehar, “zulo beltz” deritzan asko omen daude, izugarriak, ezagutzen ez diren indar iturri etengabeak, jakin gabeak ez zaizkigun dimentsio harrigarrien sorburuak.

Agian... bai ote... zergatik ez...?

Aurreko hari zaharra berrartuz, nire ibileraren akabera Antigua auzoan agintzen zuen Junta frankistak markatua zegoen: Santoña eta “El Dueso” kartzela. Ondoren Puerto de Santamaria. Guardia zibilak ari ziren Laredoko hesi haietan beraien erara bilduak presoon sailkapenak egiten. Haietako bat etorri zitzaigun ni nengoen taldera eskuburdinak ezarraztera. Azkeneko beste lagun bat eta ni gelditzen ginen eta eskuburdinarik ez eskumuturretan jartzeko. Gure zaindaria tipo azkarra izaki, ordea. Bion artean egurrezko maleta bat hartzeko agindu zigun hurrengo hitz hauek esanez: “Cojan entre los dos la maleta. Así, si intentan escapar será más fácil aplicarles el tiro de gracia”. Horrekin dena esana dago, zein girotan geunden. Ni hanka-bakarra.

## Zortzigarren pausoa

“El Dueso”ko kartzelak lursail zabala hartzen zuen murre altu eta sendoz inguratuta. Departamendu diferente batzuek osatzen zuten na-

barmenki aldenduak. Handiena jatorrizko presondegia zen, “El Período”, preso inportanteenen ostatu ohia. Ni, “Talleres” izenekoan sartu ninduten, lehenengo lantegien saila. Bertan hirurehun lagun izango ginen gutxi gorabehera. Etzalekuak, ohe antzeko zerbait, egurrezkoak ziren beheko, Erdiko eta goiko ohatzez edo litera moduko batzuetaz osatuak hain zuzen. Egiturok luzera guztiak betetzen zituzten, tarteka korridore estuak utziz. Sarreran, ordea, hutsune zabal bat geratzen zen funtzionarioentzat, burdinazko sare mardulaz babestuta.

Tailerrekoek agindu argi bakar bat genuen oso garrantzitsua: egunero bi aldiz berrogeita hamar presok atera behar izaten genuen “banderara”, hots, bandera jartzen zuteneko zeremoniara goizean eta jaisteko orduan, arratsean. Aitzakia horrekin egunero iskanbiletan ibiltzen ginen. Arrazoia erraza zen, oso erraza eta ximplea, hau da, inork ez zuen nahi “banderara” irten nahi... Nola ba berrogeita hamar lagun bildu inolako borondaterik ez bazegoen? Funtzionario baten deiak eskatzen zuenez “segituan banderara ateratzeko”... eta hogeitik ez ziren pasatzen... Orduan funtzionario delakoa haserretu egiten zen eta orduan bere mende zeuden beste funtzionario multzoa korridoreetan barrena sartzten ziren mehatxuka... eta presoak gero eta atzerago iheska... eta beti halaxe... saldo zehatza osatu arte. Diziplina, nahiz eta egoera larri horretan aurkitu geure buruak ez zen, ez, geure ezaugarri nabarmenena.

Gure barne erraiak, oraindik eta halaz ere, erresistentzia, gotortasun eta duintasunaren hatsen iturri eta jatorri amaigabea ziren. Han suertatu ginenen artean edotariko elementuak ziren, noski, mota guztietako jendea. Haietako bat behintzat ezagutzeko parada izan nuen. Orain “gay” deitzen dugun horietakoa zen dudarik gabe. Halako hizketa nabarmenekoak zuen eta... zorrotza, ziztukaria, emakume baten ahots fina, imitazio tankerakoa. Eta horretan zegoen jokoaren giltza. Doinu harekin entzuleak irribarrez gutxienik hastea lortzen zuen. Horixe bilatzen zuen bistan zenez. Alde batera, pailazo itxura horrekin funtzionarioak ere pozik zebiltzan, eta laguntzaile gisa hartzen zuten Santoñarako joan-etorrietan gauza-eramaile tankeran. Era berean, preso lagunen mandatuak ere betetzen zituen, horretan saiatzten zen behintzat argiro behinik behin. Iparragirreren kapa handia janzen zen holakoetan. Hura bai mantu miragarria, alajaina! Beste modura inoiz kartzela sartuko ez ziren gauzak “gay” barregarriak gure esku behartsuetan ipintzen zituen mutiko hark, jaun horrek, esango nuke errespetu eta begirune osoz, eta adeitsu.



Errege magoak beraiek ez ziren inoiz gauza izango, ezta hurrik ere, hain desiragarri eta mirarizko janari, eta hainbat tresnatxo bitxi, geureganarazteko mutiko haren bere irribarre atsegin harekin... Ikustekoa benetan ekarlearen barne poxa gu geu presoon harriduraz jabetzean. “Caldo, caldo, caldo!” oihu egiten zuen kapa zerutarraren azpi-elementu erdi ezkutatuak erakustean. Modu batera ala bestera, dena dela argi esan eta aitortu beharra dago, pailazo gizagaixo hark bere bizia arriskatzen baitzuen ibilaldi haietako bakoitzean. Gizon ausarta zen, mutiko zintzoa, adoretsua eta abegikorra. Gogoan daukat.

### **Bederatzigarren pausoa**

Gure pabiloia alanbrada seguru batek inguratzen zuen paretatik hiruzpalau metrora, eta tarte horretan egoteko, nahiz bueltaka ibiltzeko, baimena genuen egunero ordubetez funtzionario pare bat bertan zegolarik. Behin ustekabekoa gertatu zen, inork zergatik ez zekiela presaka pabiloian sartzeko agindua etorri zitzaigun. Antza denez, funtzionarioek legez kontrako gertaera bat jakin izan zuten. Gure departamendukoak gora eta behera zebiltzan bitartean, guardiak ohartu omen ziren norbait, preso bat alegia, euskaraz hitz egiten ari zela... hau lotsagabekeria! Erruduna zigortu zuten, nola ez ba... beren modura gogoz jipoitu, alajaina! Egurto egin zuten gustura. Gure taldeko bat zen, gainera. Txuri-txuri eginda itzuli zen gure txokora, ezertarako gauza ez zela. Berehala etzan nahi izan zuen oholtza xumean.

-Tapa nazazue.

Zer gertatu zen delako zuzendaritzan?

Bueltaka zihoanean euskaraz hitz egin zuela. Hori bakarrik. Gauza debekatua zen, ordea. Besterik gabe bizkarra berotu zioten. Hura ez zen isildu orduan ere. Ez zegoela damututa esan zien. Euskara zela bere hizkuntza. Konkretuki hitz hauek adierazi zizkien: “Ez dela jaiio, eta jaioko ere, amaren semerik niri euskaraz egiten debekatuko didanik”. Erdaraz holako bat esan ziela. Hori entzutean astinaldiak gogorrago segitu zuen. Gerora jakin ahal izan zen gertakarien funtsa ez zela egon uste izan zen pertsona harengan, funtzionarioak konturatu zirenerako euskaraz egingakoa aurrerago joana zen, eta beretarrekin, bere taldetxoarekin. Atxilotutakoa, beraz, haien ondotik zihoan eta ez zuen beste horrekin zerikusirik.

Protagonista Jose Mari Telleria Elizegi izan zen. Askatu ondoren Donostian bizi izan zen, gerra aurretik bezala. Hantxe lanean jarraitu zuen beste mundura joateko ordua ailegatu zitzaion arte.

“El Dueso”ko kartzelan bazegoen sozialista talde bat eta haien artean donostiarrak ere baziren, eta antiguatarren bat edo beste baita ere. Bat, Ibaeta auzokoa zen, oso ezaguna nuena aspalditik eta bion artean nolabait-edo moldatu ginen kartoi bat “damas” jokorako. Fitxak? Ba, ogi pusketatxoak. Txit sarri dametan aritzen ginen biok, edozein egunean, edozein orduan, lasai, patxadatsu, denbora-pasa amaigabea. Egia esatera, ni baino jokalaria hobea zen hura. Arratsalde hartan ohiturari jarraituz, dametan jarduten genuen berandutxo arte. Eta hara noiz jabetzen garen albo batetik bota pare handi bat azaltzen zela, eta boten gainetik militar galtzak, eta goragotik jaka handi bat eta aurpegi ezagunegi bat, eta mutur haserre bat, hitz batean funtzionario “serio” bat.

-Qué! Qué hacen ustedes aquí? Por qué no han salido a la bandera?

Instant batean, supituki, ziztu bizian, zutik jarri gara biok...

-Vengan conmigo!

-Sí señor!

Egia aitortu diogu, ez gara ezertaz enteratu, ez dugu ezer entzun. Barrualdeko burdinazko hesiaren ondoan ginen, kanpoko ate nagusia eskuinean genuela. Funtzionarioak ezkerreko paretarantz bultzatu gintuen. -Quédense aquí mismo, de cara a la pared, brazo en alto hasta nueva orden!- agindu zigun kalamidade harropuz hark. Eta hortxe josita gelditu ginen dametako jokalariorik tente asko, eskuin besoa goraka.

Denborarekin ez da gero samurra itxura xeble horretan irautea gehiegi, eta besoa, eutsi ezinik gehiago, beherantz erori zen pisu gaitzarrekin. Baina funtzionarioa, ez zuen bistan beste zer eginik, eta erne zegoen gure atzean, Espainiaren batasun sakratuaren zaindaria jeloskor baten gisa. Memelo halakoa!

-Esos brazos arriba!- oihu egin zuen zatarki han inguruko beretarrek entzun zezaten argi eta garbi bere irmotasun aberkoia.

Bitartean “banderara” irtendakoak, legezko hogeita hamarrak, sartzan dira pabiloian harrituta gu biok ikusten gaituztela besoak airean. Horrela aguantatu behar izan genuen aingeru partikularra kupitu zitzaigun arte.

-Váyanse y que no vuelva a ocurrir!-

Jakin izan balu kirten horrek, sumatuko balu “hamalau” horrek nik neuk eta nire lagun sozialistak zein gogoetan ginen murgilduta berari buruz...! Halaxe amaitu zen egun hartako dama-partida.

### **Hamargarren pausoa**

Behin gertakari latz baten lekuko izan ginen kartzelan. Hirurehun artean bazen bene-benetako mutil zorigaiztoko bat, donostiarra bera, etengabeko oinazetan, gau eta egun, goiz eta arratsalde min garratzetan. Jasanezineko kondiziotan bizi zen... uste dut, esaten zutenez, zango bat pozoitua zuela. Garrasi isiletan bizi zen. Aldamenean bazituen lagunak, baina hauek laguntasunik ezin eman inolaz ere. Gure pabiloian botikin antzeko bat egon bazegoen eta medikuren bat han agertzen zen, alferrik, ordea, gaixoari laguntzeko. Hura gutxieneko ospitale on baten premian aurkitzen zen erabat eta tratamendu urgentea. Horiek gabe, egoera gero eta okerragoa, patu beltzera derrigorrez. Gizon dohakabeak banderarako ateratzeko asmoa adierazi zien adiskideei eta hauek ikaratu egin ziren, pentsatuz betiere gutxienekoz eskandalu bat sortzeko asmoak zituela... Ideia hori burutik kendu nahi izan zioten. Baina berak ezetz. Eta horrela, egun batean berrogeita hamarren artean irten zen azkenik, herrenka, baina irten egin zen. Hantxe zegoen, zelai erdi erdian korneta jotzeko momentuan.

Zer esanik ez, buruzagi guztiak bertan zeuden banderaren aurrean.

Eta halako batean, oihu argi bezain garratz bat nagusitu zen jendetearia hartaz:

-Viva Euskadi!, Viva la República!

Deiadar hori jaurti egin zuen donostiar gazteak “El Dueso” kartzela osoa dardarka jarriz. Bonba bat izan zen, eztanda eroa. Berehalakoan sarrarazi zituzten presoak beraien departamenduetan. Sarrarazi gintuzten. Nahasmendu giro larri baten mende militar guztiak mobilizatu ziren presaka. Oihularia, mutiko donostiar gizagaixoa, giltzapera eraman zuten gela berezi batetara.

Kartzelako agintariei iruditu zitzaizen oihu hura erreboltarako proklama zuzen bat zela dudarik gabe. Eta ez zegoen horrelakorik. Oihua, benetan, laguntza eske bat zen, erruki eskaera tristea. Edonon zurrumurru beltza hedatu zen, albiste txarra benetan. Azkenik aldarrikatu zuten hu-

rrengo egunean fusilatu egingo zutela. Eta halaxe gertatu zen, ondoko goizean, betiko moduan, berrogeita hamarrak bilarazi zituzten banderarako. Taldekideen artekoa izan nintzen. Bandera igo bezain laster, gure atzealdean tiro baten zarata garratz bat entzun zen. Gure belarrietan baino gure bihotzetan jo zuena zuzen eta gupidagabeki. Jarraian kartzela buru zen komandanteak hitz egin zuen hauxe esanez: “Acaba de ser pasado por las armas el preso causante de gritos facciosos contra el Régimen. Quede claro que si alguien repitiera la misma acción correrá la misma suerte”.

Halaxe konplitu zen legepeko injustiziarik nabarmenena. Indarraren jabeek pentsatuko zuten bere betebeharra betetzen zutela, baina ez zitzaion burutik pasatu ere hori itxurakeria baino ez zela. Funtzionarioek militar buruzagiei adierazi ote zieten mutil haren zoritxarra? Buruzagiek, militarrek, ez ote zuten pentsatu, segundo batez bederik, oihi haren zergatia eta zioa? Donostiar gizagaixoa ez zuten tratatu pertsona bat bezala. Nire iritziz, heriotza hura, fusilamendu hura erailketa doblea izan zen, lehenengoa, oinazetan dagoen gizaki bat basapizti bat bezala edukitzen giltzapean eta bigarrena, presaka fusilatzea arrazoirik ere jakin gabe. Mundu triste bat alajaina!. “Cruzada”?

## **Hamaikagarren pausoa**

Udan, guda bertan, demokrazia eta faxismoaren arteko hil ala biziko lehia bizian, gudari eta milizianoen alde batetik eta faxista kolpisten artekoen artean, Euskadiren eta euskaldunon istorioan betirako geratuko den gertakizun ahazteko zaila izango den batean, preso eta atxilotu erori ginen Mussoliniren agindupean zeuden italiar soldaduen atzaparretan Santoñan, Santanderreko ekialdean.

Neguaren bihotzean juzgatu gintuzten militar kolpista espainolek. Gizon batzuen tragedia bideratzeko orduan han suertatu ziren akusatzai-leak eta defentsariak ez zeuden tentsioan, ez zeuden larritasunean. Lasai aurkitzen ziren erabat. Baina zergatik? Ba, talde bera, bat eta bakarra, osatzen zutelako. Fiskala, beraz akusatzailea, eta defentsa gauza bera zen. Adiskide zaharrak, betiko lagunak, harmonia onean elkarrekin, aspaldiko ezagun onak, biak armadakoak, biak militarrek, biak “cruzada” berekoak.

Honen aurrean hiru gauza esan beharrak ditut:

Bat, matxinoak eta erreboltariak haiek beraiek zirela; altxatu zirenak legezko boterearen kontra beraiek zirela, eta ez gu alegia; beraz, beraiek zirela epaitu beharrekoak, eta ez gu geu.

Bi, gure kondena aldeztatik zutela erabakia, adiskidetasunean eta lagun onen artean ondo erabakita gainera.

Eta hiru, judizio, epaiketa eta instrukzio osoa fartsa merke eta txatxu bat zela, muntaia bat, antzezpen hutsa, ikuskizun lotsagarri eta okagarria.

Gure taldearen judizioa 1937ko azaroaren 29an egin zen, 21 urte nituelarik. Nire kasu partikularrean epaitua izateko aitzakia eta oinarria hauxe izan zen: Antiguako auzo donostiarretik bidalitako txosten bat ezberrik gabe (nahia ez jakin nork egina!), zeinean adierazten zuten astekari abertzaleak saltzen ibilia nintzela, horien artean *Jagi, Jagi*.

Eta kurioso, astekari hau nik ez nuen inoiz saldu ez iragarri, baina “separatista” zenez antiguatar kuttunen batek (ala batzuk) ahal zu(t)ena egiten zuten nire kaltez... eta gaineratu zuten ni ez nintzela frentean ibili nire akats fisikoarengatik, baina... nire sentimenduak zein ziren jakinik pentsatzekoa zitekeela nire borondatea, asmoak eta jarrerak. Beste modura esanda, betiere ahal izan banu... garbi zegoela zer egingo nukeen (edo zer egingo ez nukeen guda horretan “Cruzada”ren aurrean...), eta gainera kontuan edukiz nire anaia zaharra, Benito, gorri eta separatisten artean arituz hil zela frentean, tenientea zelarik, “Saseta Batailoiko” gudari bezala, eta borroka bizian armada “nazionalaren” kontra... ba ez zegoela zalantzarik edo duda-mudarik nirekiko. Gorria eta separatista nintzela alajaina. Erruduna, beraz.

Hauxe izan nuen kondena edo zigorra: “Pena de Reclusión Perpetua”, gero ofizialki 30 urtetan geratu zena eta denbora pasata kommutatua izan zena... sei urte ondoren eta azkenik libre nintzen 1940an, abuztuaren hamaikan. Guztira giltzapean bi urte, hamaika hilabete eta hamabost egun. Esan bezala, epaiketa fartsa handia gertatu zen bene-benetan. Barrez atera ginen taldekoak gela hartatik eta horrela ikusi gintuzten zaintzaile “grisak”. Hauek zeharo harriturik geratu ziren pentsatuz burutik eginda geundela.

### **Hamabigarren pausoa**

1938ko abuztuaren aldaketa-eguna izan genuen. “Dueso”tik Cádizeko Puerto de Santa Mariako kartzelara bidali gintuzten trenez. Ez zen izan infernurako bidaia, baina bai infernuzko bidaia, bagoietatik hasiz. Bidaia-ri-bagoiak ez ziren eta. Merkantzia bagoiak ziren, eta ez oso txukunak ere. Leihatila txiki bat begien alturan besterik ez, eta gainera hura burdin

barraz hornituta. Bidaldia hiru egunez osatu zen, hiru egun luze azkenga-beak bene-benetan. Itxitura ito hartan pasarazi ziguten purgatorio latza. Dakidala, behin bakarrik Jainkoak jakingo duen nongo bazter ezezagun batean eman ziguten beharrekoak egiteko parada.

Oker ez banago, Burgosko geltokian egin genuen pausaldi iraunkor bat. Jendea bildu egin zen gure trena ikusteko. Itxuraz, presoan trena handik pasatzekoa zelako hotsa barreiatua zegoen. Mutiko batzuen hizketa argi iristen zen gure belarrietara. Eztabaidan ari ziren. Hala zioen batek: “Mamá, unos dicen que los rojos tienen cuernos, otros que no”. Amaren erantzuna ez genuen aditu. Hala hobe. Bagoiaren erdi aldean Eibar inguruko talde bat zihoan. Haien ondoan, berriz, Gasteizko morrosko bat. Eibartarrak platanok jaten ari ziren eta bat eskaini zioten gasteiztarrari borondaterik onenaz noski eta adiskidetasunaren normalaren keinu gisa. Nork esan behar! Ordu txarrean otu zitzairen burutazio ona.

Morrosko sendoa besterik gabe garrasika salatu egin nahi zituen: “Pozoitu nahi naute hauek!” Zorigaiztoko mutila! Ordura arte jator zegoena, unetxo hartan beran arrazoimena galdua zeukan. Erabat erotuta zegoen. Eta ez zen berriro lehengoratu. Txarrerako bat-bateko bihurtze hark harriduraz eta ikaraz bete gintuen. Baina ondo pentsatuta, gertakari beldurgarri hura zoritxarrez ez zen hain txundigarria ere. Guztiak presoak ginen eta gure artean denetatik zegoen, mota orotako pertsonak aurkitzen ginen bagoi hartan. Batzuk osasuntsu, besteak ahul, batzuek etxeekiko laguntza eroso hartzen zuten, beste batzuek estu eta larri bizi zirelako ezin inolaz beretarrei lagundu eta ezer etxetik hartzen ez zuten organismoek ondorio jakinak jasaten zituzten, urduri eta kezkatu egoten ziren giltzapean. Bidaian ere aldaketa gaitzak sufritu behar izan genituen. Zenbait estaziotan gure bagoia zubipe atean geratu zen estreinakoz eta pozik egoten ginen itzalaldi hartan. Baina horra, trena hasi zen maniobretan eta orduan akabo gure zorte ona, eguzki galdatan serratzen ginen ezinbestez.

Behin baino gehiagotan horixe bera gertatu zitzaigun, eta osasunerako kaltegarriak ziren, dudarik gabe, bat-bateko bero-hotz mudantza horiek. Iritsi, iritsi ginen azkenik Puerto de Santa Mariara, gauez, neka-neka eginda.

Lehen “adardunak” ote ginen kezka zituzten gure ikusleek, oraingoan ingurukoek bazekiten “Los Bárbaros del Norte” nabarmenak ginela.

Horrelako mintzoak entzutean pentsatuen nuen... “ederrera etorri gaituk harro”. Presondegi hartan urte pare bat pasatzea egokitu zitzaidan.

## **Hamahirugarren pausoa**

Cádizeko kartzelako toki zabalena patio jenerala genuen. Bertan lasai kabitzen ginen bost mila turistok. Txoko batean mahai koxkor bat ipintzen zuten eta funtzionario bat egunero korrespondentzia zutenen lerrokada irakurtzen zen. Izen-abizen bakoitza oihu bortitz bat. Ilusiozko oihua egia esateko, bai horixe! Hantxe biltzen ginen presoak etxeko berriak izateko konfiantzarekin, itxaropenez beterik. Horretan ginela egun batean, karta zutenen artean zera oihukatu zuten, karta hartzailea beraz, “Antonio Marco”! Eta aditzaile multzo hartatik hots argi bat ozenki nagusitu zen, horrela ziolarik: “Si ese es el Marco que lo pongan en su cuadro”. Hori bota zuena burutik dezente nahasia zegoen bat zen, denok ongi genekien kontua alajaina.

Baina ezagutzen zutenen esatera, fusilatze pantomima izugarri bat sufritu zuen (krudelki sufriarazi zioten), hormaren kontra jarri baitzuten ea zer deklaratzeko zuten... eta une horretan bertantxe zentzua hondatu zitzaion betiko. Dena den, “marco” eta “cuadro” hitz pare joko horrek badu noski bere mami aparta. Euskal egunkari batean Anjel Lertxundi idazleak gai hau erabili izan du esanaz: “Markoaren defentsa egiten duten gehienek, Ortega y Gasseten Errepublika garaiko kezka bizi dute: Espainia markorik gabe gelditzeko arriskuan zegoela ikusirik, “markorik gabeko koadro batek gizon ezergabetu eta biluzi baten” antza duela zioen filosofoak. Turnerren marina bati bere marko urreztatua kenduko bagenio koadroak ur gutzia galduko lukeela esatea falta zitzaion”... Honela zioen Ortega y Gassetek bere “Meditación del Marco” (Ikus El Espectador, 435-444): “Koadroak bere markoetan kokatuta bizi dira. “Marko-Koadro” el-karte hau ez da akzidentala. Batek bestearen beharra dauka. Badu beraz markoak leihoaren zerbait, leihoak markoaren asko daukan bezala” eta abar.

Cádizeko adiskideak arrazoia zuen: Markoak Koadroa eskatzen du. Puerto de Santa Marian legezatuak zeuden bisitak. Euskal Herritik hara joatea samurra ez bazen ere. Orain erraztasun gehiago dago noski, baina dena dela ere ez da txantxa ibilaldi hori egitea. Garai latz haietan bisita bat izatea gauza oso ederra zen, oxigeno hutsa, haize freskoa, itxaropen hutsa. Bisita mota bat guztiz eskertzen genuen, hain zuzen airez zetorkiguna, esan nahi baita zikoinak.

Zikoinak urtero zetozen, zetozkigun, bere hegalaldi baldar bezain maitagarriarekin... habiak egin behar izaten zituzten geroko zikoinei bide emateko, eta horretarako ekartzen zituzten material ugari asko, adar puska galantak, kumeentzako ohe seguruak. Haiei begira eta begira ederki pasatzen genuen denbora, haien joan-etorri zaratatsuekin... Zikoinak emigranteak dira berez. Gu ere. Borondatezkoak ez, ordez. Milaka, milioika behar bada, dira beren herrietan ezin bizi eta bero pixka baten alde egin nahi eta gauza izan ez emigratzeko, Goitisolok dioen bezalaxe. Albisteak, gauzak, merkantziak libre dira herrialde guztietan sartu eta irten ibiltzeko. Ez hala gizakiak. Hauek, jaioterritan bizimodua topatzeko eskubiderik ez, ezta emigratzeko ere. Hainbesteko aurrerapen miragarrik munduan eta jakintsuek ez dute asmatzen, ez dute sumatzen ere gaitz erraldoi honentzako sendabiderik edo soluziorik. Cádiz askotan aurki daitezken zikoinak lekuko.

## **Hamalugarren pausoa**

Heriotza bat. Honela gertatu omen zen Onésimo Redondorena. Espainiako gerra bitartean tropa errepublikanoek hil egin omen zuten gatazka batean. Buruzagi famatua zelako edo bere amari galdetu ziotenean “zenbat gorri balio ote zituen haren semeak”, andreak, “mila gorri balio zituela”. Orduan inguru hartako presondegietatik jendea ateratzen ibili ziren fusilatze... eta nola konturatu ziren milatik baino gehiago zirela atereak, zer egin zuten? Soberakoak berriz kartzelara eraman eta kito. Gehiegizko talde horretakoak ziren Puerto de Santa Marian zeudenetako talde batekoak.

Horiek beraiek horrelaxe kontatu ziguten beraien kinka benetan oso larria. Eta segidan beste heriotza bat... Egun batean espero ez genuen albistea adierazi ziguten. Berehalako bilera egin beharra patio jeneralean, bost mila presoentzat, inoiz ez gertatutakoa, harridura eta denon arteko galderak, Zergatik? Zertarako? Zer gertatzen da?... Eta azkenik agintariak azaldu ziren, eta beraien artean Direktore jauna buru, hitz gutxikoa alajaina!. Seriotasun eta solemnitare ospetsua bere mutur beltzean. Berri “tristeia” jakinarazten zaigu: Padre Pérez del Pulgar apaiza txit ezaguna hil zela. “Cruzada”ko eliza faxista eta kolpistaren pertsonaia nabarmena hain zuzen! Apaiz honek beste kargu askoren artean *Redención* astekariaren zuzendaria zen eta lege berri baten sortzailea, hots: lanaren bidez presoan zigorraldia gutxitzeko xedea zuena, “Redención de penas por el trabajo” hain zuzen zeritzana. Presoen iritzirako, ordea, eta



neure iritzirako ere noski, lege hori erroz txarra zen, madarikatua zitzai-  
gun, horrenbestez pertsonaia bera gure kalterakoa baitzen, zeren urte  
askotako kartzela urteak segurtasun zigulakoan besterik gabe, eta hori  
pena murrizteko aitzakiaren bitartez!

Boteretsuen ustetan, agintari kolpisten esanetan aldiz, jaun bedein-  
katu eta santu bat zen hildako apaiza eta beraz... ospatzeko bilera handia-  
ren asmo eta helburu bakarra zen... zein eta hil berriaren aldeko arrosa-  
ria presoek errezatzea... hori bai, gogoz eta bihotzez. Agintzen zutenek,  
jakin, oso ondo bazekiten “bárbaros del norte” haien artean kristau eta  
katoliko asko zeudela, eta horrenbestez iruditzen zitzaien errezatzeko  
giro aproposa egongo zela beraiek aginduriko batzar handi batean. Hasi  
zen bada hasi kapilaua bere otoitzekin eta bistan, eta belarrietan, argi  
zegoen saiatzen zela bere ahotsa txoko guztietara hel zedin argi eta garbi.  
Arazoa sortu egin zen hala eta guztiz.

Inortxok ere ez zuen erantzuten. Apaizak errezatu bai, egiten zuen.  
Baina erantzuna erabateko isiltasun eskandalagarria besterik ez zen. Eta  
horrelaxe, berrogei, ehun aldiz. Bukaera ere iritsi zen, isildu zen kapilaua,  
amaitu zen programa. Isiltasuna geroz eta salatzaileagoa. Eta horra...!  
Direktoreak hitza hartzen du hasieran bezala, baina mila bider haserre-  
tuago, suminduago, amorratuago. Salatzen du, digu, diziplina falta jasa-  
nezina zela gertatutakoa. Eta ikusi zenez, guztia konspirazio galanta, pu-  
lamentu eza, gogo eta begirune falta, gaiztakeri nabarmena, errespeturik  
ez! Ados... ni neu ados... noski, gogo falta? bai... presoak ginen, baina  
geure buruaren jabe betiere! Planeatua? ez!

Geure bihotzetatik eta geure barne erraietan irauten zuen dignitate-  
tik bultzatutako erantzun isila izan zen gertatutakoa. Presoak ginen, bai,  
baina gertatutako gauza eta egoera guztien ginetik pertsonak, gazte eta  
gizon helduak, guda zelaian zanpatutako gudariak bai, baina geure bihotz  
eta burmuinetan, Euskadi, abertzaletasunaren eta askatasunaren suak  
irauten zuen bizirik, iraunkor, temati, tinko eta irmo... Guda zelaian mili-  
tarki zanpatuak eta erailak izan ginen, bai, baina garaituak inoiz ez, inoiz  
ez, lehenago hil!. Direktoreak bere aldetik errudunak topatu nahi izan  
zituen, damuarazi, zigortu eta makaldu. Merezitako egurra ez zitzaien  
faltako! Bertatik nor bere tokira joan dadila zuzen zuzenean eta hantxe  
bertan egon dadila handik atera gabe, agindu berria jaso arte. Egun pare  
bat holaxe egon ginen mugitu gabe bakoitza bere sailean. Eta... errudu-  
nak? Zer errudun gero? Gertatu zen hura, ongi pentsatuz gero, naturala  
zen, kasik derrigorrez gertatu beharrekoa... jendearen giroak agindu

zuen. Agintari, Direktore eta bere akolito guztiak, harropuzak guzti-guztiak, beste mundu batean bizi ziren, faxismoaren munduan, eta guk geuk beste muturreko ikuspuntuak genituen jakina denez.

Gertaera honetan, beraz, Padre Pérez del Pulgarren inguruko omenaldian gertatutakoan isiltasun kolektiboak, esan nahi baita, norberaren barneko isilak garaitu zuen. Duintasunaren garaipen diskretua.

## Hamabosgarren pausoa

Cádizen, oraindik kartzelan gaudela noski, donostiar adiskide bat etorri zitzaidan. Eztabaidaka ibilia dela andaluz preso batzuekin hizkuntzen gaiari buruz eta horiek aurpegiratu omen diote euskara ez dela hizkuntza osoa, hizkuntza jator eta borobil bat, alegia eta hitz gutxitan esanda euskara dela gaztelaniaren dialekto ziztrin bat. -Zer erantzun behar diet?- galdetu zidan.

-Je!- esan nion- gaztelaniaren dialektoa, beraz? Esaiezu argi eta garbi, hemen dialektorik baldin badago hori gaztelania dela. Esan dezatela nondik datorren gaztelania. Eta gaztelaniarekin batera frantsesa, italiarra, portugesa eta beste batzuek gainera. Horien guztien egiazko ama latina dela. Latinarik ez bazen sekula santan ez zen jaioko gaztelania maite hori.

-Hori da bakarrik erantzunaren lehenengo zatia- jarraitu nion esaten gazteari- eta orain aipatu behar dugu zertxobait euskarari buruz. Jakintsurik handienek aitortzen dute, inolako zalantzarik gabe, euskarak, oraingoz behintzat, ez duela ez amarik ezta aitarik ere, ezagunik behintzat.

Ba ote dakite gure tekniko bihotzeko andaluz horiek aizkora, aiztoa, azkona, euskaldun batek egunero esaten dituen hitzak direla eta zer esan nahi duten? Hitz horiek “hacha, cuchillo, dardo” esan nahi dute gaztele-raz... eta jarraitu nion gaztele-raz esaten donostiar gazteari argudio sakon bat andaluziarrei adierazteko... “son palabras que tienen mucha miga, y es que su componente principal es *aitz* que quiere decir evidentemente piedra, roca, peña... o sea que el euskara nos dice que originariamente esos objetos no eran de hierro sino de piedra...”.

-Benetan?- galdetu zidan fede onez donostiar galdegileak.

-Bai jauna- esan arrazoi horiek andaluz dialektozale amorratuei. Eta haiengana doa korrika gure adiskidea.

Andaluzen artean gure gauzez interesatzea oso ongi iruditu zitzaidan. Begirunez hartzen zituzten “Los bárbaros del norte!. Talde hartako buruzagi intelektuala gizon txiki bat zen, bizkor hutsa, “El poeta” deitzen zioten herrikideek. Baina bazuten bai kezkatxoa antza, latinez ari baitzen ikasten.

-Es que te vas a hacerte cura?- galdetzen zioten txantxetan.

-No comprendéis nada de nada, quiero el latín con vistas a la producción del libro... - harro harro erantzuten zien.

Produkzio kontua balitz, ba tira!... arrazoizkoa zen, sozialista izaki.

### **Hamaseigarren pausoa**

Puerto de Santa Mariatik 1940ko abuztuaren hamaikan irten nintzen nire 24 urterekin, hamar laguneko espedizio batean. Elkarrekin ibili ginen Madrileraino eta han barreiatu ginen bakoitza bere destinora joateko. Ama Birjinaren bezpera egunean iritsi nintzen Donostiara... lau urte ondoren gutxi gorabehera. Lehen hunkipena izan zen hango giroarekin erabat harrিতa geratzea. Giltzapetik atera berri batentzat jendeak bate-re konplexurik gabe hitz egiten zuen erregimenari eta politikari buruz, nire ustez modu arriskutsuan, era guztiz lotsagabea. Hura ikusiz txundituta gelditu nintzen zeharo. Esamesak, txisteak, barregarrikeriak, barrak entzuten ziren nornahiren ahoan.

Berritsu gehiegi, pentsatzen nuen.

Esate baterako, hitzontziak ez ziren faltatzen hegazkinak aipatzean. Bonbardaketak eta goitiko metrailaketak kritikatzeko tekniko ugari azaltzen ziren. Inoiz frontean eta heriotza galzorian ibili gabeko indibiduoak munduko jakintsuenak balira bezala mintzatzen ziren hortaz eta hartaz lasaitasun harrigarriarekin. Bizia galtzeko toki aproposetan luzaro ibiliek ez zuten holakorik egiten, ordea. Errespetu gaitzez ukitzen zituzten gai horiek. Eskarmentua zutela garbi izaten zen. Beldurrik gabe tema hori zabal daiteke. Adibidez, kirol kontuetan. Dakitenek kontuz eta neurritz darabilzkite beren kontrarioen jokabideak. Marmar gutxitxo ateratzen dute benetako kirolari saiatuek.

Zoritxarrean ez dago ezkutatzerik eskandalu izugarria gerta ohi dela politika eremuan. Alor honetan eguneroko ogia izaten baitira ahoberokeriak, irainak, mespretxuak, gezurrak, irain eta ele gaizto. Honek guztiak izan propioa dauka: politika-zaborra, politika-basura. Ondorioak dira kal-

te neurrigabeak herri mailan eta ohituretan. Nire egoeran bistan dago diru sarrerak behar nituela, esan nahi baita lana egin, lantokia aurkitu. Hasteko, nire istripuaren ondoren Tranbiako Enpresak pase-txartel bat doan eman zidan Boulevard - Benta Berrirako. Hura noski mesedegarria nuen eta berritzeko erreklamatzera jo nuen Ategorrietako bulegoetara. Hango arduradunak ondo hartu ninduen adierazi nioenean zer eskatzen nuen. Nire asmoa aditzean gizona erne jarri zen, alerta badaezpada.

Detektibe itxura hartu egin zuen berehalakoan. Urte haietan non ibilia ote nintzen, zergatik, zergatik ez, istorioa osoa jakin nahi zuen. Esan behar izan nion egia: kartzelan ere egon nintzela “alde txarrean”.

Asko sentitzen zuela, baina “ez” borobila zen erantzuna.

Ez zegoen “paserik”, nire istorioa gaiztoa zela eta bestelakoa izan balitz agian besterik esango lidakeela. Nonbait goitik zetorkion erabakia. “Vae Victis”. Gorriekin gupidarik ez.

Francoren aldean egon banintz... zorte txarra! Ai galtzaileak!

Gerra aurreko lantegia zen nire itxaropen izpia. Zeinek daki! Okendo-Boulevard kantoian zegoen. Bi nagusi ziren eta bat aurkitu nuen. Berehala konturatu nintzen, koitadu gizagaixoa, Donostian detektibe-kasta sendoak bizirik irauten zuela. Antzeko galdeketa ostera: non ibilia nintzen, zein postutan, zenbat denbora, eta abar eta abar. Hori dena eta azkenik ezetz borobil eta argienarekin bukatzeko. Mila aitzakia, mila eta bat arrazoi tentel!

-Krisia handia, lanerako gairik ez.

-Lan eskasia.

-Orduan, lanik ez badago, mesedez, lan ziurtagiri bat, ziurtagiri simple bat, besterik ez. Lan egindako denbora probatzekoa.

Puntu honetan ere detektibe sena frogatzen dit ederki:

-Ez, begira, hori gauza hotza da berez.

-Egin dezagun gauza hobea: lana topatzen duzunean esaiezu deitzeko hona eta xehetasun beroak emango dizkiet... konforme?

-Ez, ez nago konforme.

-Horrek gauza jelatuena esan nahi du, erabateko borondate txarra, nolako informeak emango ditu tipo honek beste norbaitek deitzen dioe-

nean nitaz berriak jakin ahal izateko! Hitz gutxitan, nire itxaropena itzali egin da berriro ere.

Ezer ez da aldatu. “Vae Victis”.

Etsaiekin errukirik ez. Hil daitezela, ustel daitezela presondegietan...!

### **Hamazazpigarren pausoa**

Zenbait hilabete ondoren Donostiako arrandegi batean lana topatu nuen, leku handia zen oso, almazen gisa antolatua zegoen, arraia beste lekuetara banatzen zuten horietakoa, bakarra zen horrelako tamainakoa Donostian. Gogoan dut, hotza egiten zuen, hotza handia alajaina! Denboraren poderioz gauzak batzuetan hondatzen diren bezala, suertea baldin badago konpondu ere egiten dira. Bolada haietan nonbait hauteskunde garaiak ziren eta bozketa sindikaletara deitu zuten. Iragarki-taulan nagusiek nire izen-abizenak idatzi zituzten. Zer dela eta? Argi adierazten zen, bozketa horietan, nire iragan gaiztoa salatuz ez nintzela inolaz ere hautagai izango, alegia, arrandegiko langileek ezin nautela aukeratu beraien ordezkari bezala. Nik beste hitzetan laburki esango nuke errealitatea: modu batera edo bestera oraindik ere kondenatuta nengoela.

Botereko txintxoek, irabazleek, memoria iraunkorra eta oroimena zitala dute, eta noski, beraiek dena erabakitzen dute, lehengo eta betiko eratxoan. Arrandegiko lankide askok debeku hortaz jabetzean bihotzez beraien elkertasuna adierazi zidaten eta zorionak eman ere. Hau da, hau, biziera!

José Antonio Agirreren Amerikatik Europarako itzulera 1946an izan zen, eta oso ondo jakinak eta ezagunak dira bere ahalegin sutsuak euskaldunon alde, gure eusko aberriaren alde, “Zazpiak Bat”en, eta azken finean zazpi lurraldeetako gure Euskadi maitearen alde. Horretarako Juan Ajuariagerra zen dudarik gabe bere lankiderik eta alderdikiderik ezagunen, prestu eta saiatuena. Honen agindupeko talde bat lanean ari zen, ari ginen, isil-isilik propaganda jardueran. Mundu guztian argitaraturiko asetikari, nahiz hilerokoek jasotzen zituzten batzorde eraginkor horrek, eta ondoren zonaka eta herrika barreiatzen zituen eskuz esku. Sekula santan ez zen salaketarik eta gutxiago noski atxiloketarik mugimendu honengatik guztiagatik. Ehunka pakete zabaldu ziren, genituen, ezkutu bikainean. 1947an Erresistentzia Batzorde bat antolatu zen partiduen artean.

Abertzaleen aldetik Ajuriagerraren ordezkari gisa Joseba Salegi agertzen zen. Maiatzaren lehenengorako agiri bat prestatu genuen eta baita eske Bilbora bidali. Onartu ere egin zuten aldaketaren bat egin ostean. Maiatzaren lehena ere izan zen Eusko Jaurlaritzak finkatua estreinalkoz Francoren menpean greba egiteko. Zonaka zatitu zen lurraldea asmo horretan. Debagoienara hau idazten duena bidali zuten inguru hartako pertsonaia batekin kontatzen zuena. Bilera egin zen Oñatin eta hantxe ziren bertako maila oneko elementu ondo ikasiak.

Guztia normalki zihoan, ustez, baina geroxeago, urrunean, ilunean zakur zaunka susmagarriak iritsi ziren gure belarrietaraino. Berehalakoan ere ahots harro asaldatuak, akaso gure bila zebilen jendearena. Isilik, adi-adi egon ginen apur batean. Herriko seme batek tankera hartu zion misterioari:

-Erreketeak dira, goazen agudo hemendik!

Beste gela bateko leihotik behera arin asko irten ginen atzeko bidekara eta ilunpeak irentsi gintuen... hanka motza nintzen, bai, “egurrezko hanka artifiziala” nuen, baina hori ez zen oztopo izan ziztu bizian alde egiteko, 31 urte nituen orduan. Hurrengo egunetan marmarioak hedatu ziren handik eta hemendik, baina garbi jakin inork ez zekien ezer. Gero gauza aurrera joan zen zehaztuz: polizia norbaiten bila, hau bai konkretua eta zehatza, gizon herren gafadun baten bila zebilen. Gizon arriskutsu hori harrapatzea eta atxilotzea zen helburua eta xedea. Hori dela eta, Ondarretako kartzela zaharrean hogeita bat gizaseme herren gafadun atxilotu eta bildu zituen preso poliziak greba arazo haren errudun goren atxilotu nahian.

## **Hemezortzigarren pausoa**

Grebak borondatezko lanuzte kolektiboa esan nahi du, baldintza ho-beak izateko gehienetan edo zerbaiten okerra salatzeke. Greba molde askotakoa izan daiteke, partziala, sailkatua, solidaritatezkoa, jenerala edo orokorra, politikoa eta abar. Orokorrak esparru geografiko bateko ekonomi jarduera osoa geldiarazteko xedea izan ohi du. Hau da gure kasua. Baina gainera baditu beste ezaugarriak ere. Oraingoan greba delakoa Eusko Jaurlaritzak, gure gobernuak beraz, dekretatua izan baitzen. Bizkaiko greba orokor handia Jose Antonio Agirre berak sustatua izan zen sindikatuekin koordinatuta 1947an. Frankismoaren kontrako estrategia honek adierazten zuen erresistentziaren ekintza bolada indartsuagoa,

zeinak eskatzen zuen kanpoko gobernuen esku hartzea eta eginkizuna bistan jarrita gobernu berri batean, hots, “gobernu-zubi bat” Espainiarako.

Lehendakariak apustu egin zuen erresistentziaren alde frankismoaren ahuldadea erakusteko. Greba aipagarria errepresio gaitzarekin ito nahi izan zuen Madrilek eta honek agerian jarri zuen alderantziz agintarritza diktatorial totalitarioa. Bizkaiko grebak frogatu zuen Euskadi tiraniaren aurka mobilizatu zela, potentziek jakin behar zutela grebak babes kolektiboa osorik zeukala eta demokrazia alderako trantsizioa lasaitasunez eta arriskurik gabe egiteko modua egon zitekeela.

Erresistentziako Batzordeak Maiatzaren Lehena ospatzeko deia zabaldu zuen, esanez egun gogoangarria zela aspalditik langileen mundurako eta toki askotan ikara olatua hedatzen ari zela giza askatasuna eta langileen egoera lur jota uzteko. Egun nagusi honetan harro agertu beharra zegoen aldarrikapen argi bat: zuzentasun sozialaren aldarrikapena, demokraziaren eta askatasun betearen aldarrikapena langile eta hiritar guztientzat. Greba Bizkaian nagusi gertatu zen “Euskalduna”, “Constructora Naval”, “Baskonia”, “Altos Hornos de Vizcaya”, “Babcock Wilcox”, “Mutiozabal” eta abarretan. Langileek oso gogor jokatu zuten greban.

Gipuzkoaren laguntza Bizkaiarentzat benetan deigarria agertu zen Debagoiengan. Errepresioa ere latza paratu zen. Ondarretako kartzelara poliziak eramaten zuenean bihotzekoak jota hil zen Agustín Unzurrunzaga ELA-STVko kidea, Bizkaiko langileei greban laguntzeagatik salatua. Batez beste asko eta asko gertatu ziren grebaren ondorio eta errepresioagatik kaltetuak Gipuzkoan zehar.

## **Hemeretzigarren pausoa**

Bilatzen zuten herren gafadun tipo arriskutsu hura nonbait “missing” zegoen, beti esperoan, ea zalaparta noiz baretzen ote zen. Nire giltzapeko lagunak bitartean kezka beterik zeuden poliziak arrakasta lortzen bazuen, ni neu, herren gafadun arriskutsua bilatu, aurkitu, atxilotu, hitz eginarazi, eta ondorioz gauzak gehiago konplikatuko zituelarik preso zeudenentzat. Hilabete luzeetan behintzat epeak ez zuen itxuraz fruiturik ematen. Ordurako poliziak herren gafadun pila bildu zituen Ondarretako kartzelan, eta nire lankideak lasaialdia zuten ni neu ez agertzean haien artean. Eta lasaiago zeuden jakitean atxilotutako herren gafadun guztiak beren etxeetara bidaliak zituela poliziak aske utziaz, erru-

gabe gisa. Ni neu bitarte luze batean desagertuta nintzen, eta hori bazekiten kartzela barruan. Nire partez aukera bikain bat gozaten nuen denboraldi hartan. Erabateko euskaldunen artean bizi nintzen. Mitxelenak idatzi zuenez, askotxo baikara erdi-euskaldun, erdi-erdaldunak, nik behinik behin horietakoa jotzen dut nire burua.

Eskarmentu paregabea da erabateko euskalduna den herritar jatorrekin lasaialdi osoan harremanetan jardutea. Ikasi ez, baina ikusi bai, zeregin ugari harriturik begiratu ahal izan nituen bolada hartantxe. Aipagarria iruditu zitzaidan, esate baterako, egur-ikatzeta edo landare-ikatzeta ikaztobietan errekuntzatik nola lortzen den. Edota aizkora trebetasunean dantzatzea zer den enborrak txikitzeke garaian. Bai, ordea, ederki ikasi nuen zer den ezer egin gabe orduak pasatzea, intxaurrendoko gerizpean, bake-giro ezin maitagarriagoan, goiari, txori eta usoei (eta neure barneari) begira. Bide ertzean jarrita nengoela, horra baserritar ezezagun bat doala gorantz:

-Egun on, ba!

-Egun on, zuri ere!

-Gaixo ala?

-Ez, bakaziotan.

-Ederki.

Hilabete oso bat pasatakoan baserritar bera mendi aldera...

-Bakazio luzeak...!

-Bai horixe, nagusi onak badira oraindik ere...!

-Baita, baita...

Urte erdi bat “missing” iragan eta bazirudien arazoak munta gutxiago edo ote zuen “zirkulu ofizialetan”. Hori pentsa zitekeen. Etxera bueltatzeko gogorik ez zen noski falta. Abokatua gutxi gorabehera horren alde ikusi nuen:

-Hasi pixkanaka agertzen. Lantegira ere egin bisita itxurako bat edo beste.

Eta horretan normalduz joan ziren familiako eginkizunak ere.





## II. MITOAK

### **Mittoa. Lehen jarduna**

Humanitatearen hazia, giza generoaren hastapena. Baso basatietan aldakuntza errozkoa jaiotzen da. Handik gatoz. Tximu arborikolak ote dira, ote gara oraindik? Giza tximinoak, bipedo humanoak noiz hasten dira? Orain dela bi, hiru miloi urte? Une tragiko ahaztezina benetan. Lorpen erraldoia. Garaipenezko oihua. Iraultza nagusia. Zuhaitzen adarretatik jaisten dira. Zer nolako izaki mota da? Zer dira? Zer ez dira? Tximino arruntak? Gorilak? Orangutanak?

Arboletan bizitzen nekatu, nazkatu egin dira. Frutaz ase dira. Ezinbestez herbiboroak ziren. Nola ez dakitelarik, bestelako biziera hasteko beharra. Saiatu behintzat. Hauxe bai erabaki gogorra. Dena den jaitsi. Beherako premia. Deika dute lurra. Bihoa azkarrena. Doala ausartena. Ala multzo osoa batera? Azkenik kezka, arriskuak, beldurak, ilunak, ezku-tuak atzean utzi eta taldeka abiatzen dira, ar eta eme, haur eta heldu, gazte eta zahar, tribu dena elkar. Bizia eta heriotza elkarrekin. Goazen! Hominizaziorako bide ezin eta luzeagoa horrela gertatu ote zen? Jakin ez dakigu. Hipotesika gabiltza. Adarrak hautsi eta makila sendoak prestatu. Lehen arma. Klase eta mota guztietako piztiak txikitzeko prest, aurreneko baldintza bizitzeko medio berrian.

Ba ote zekiten irauteko modu bakarra zela dena errotik aldatzea? alegia, aurreko bi hankak nolabait libre uztea? ibiltzeko bestela konpontzea... nahitaez atzeko bi hankez bakarrez ibili behar zutela... nola edo ala?. Hauxe bai iraultza zaila! Guk orain badakigu asmatu zutela, zutik, bertikalki jartzea lortu zutela. Berehalakoan ez zen izango noski. Milaka urte pasako ziren alferrezko esfortzutan, esperoan, itxaropentetan, zain eta zain. Onenean basapizti hiltzaileengandik iheska ikasiko zuten arbolen enborretara bi hankez, orain bi besoz baliatzen basabere etsaiak baino arinago. Beharbada ehunka urtez biziera mistoan bizi izan ziren, aldizka arboletan, aldizka lurrian. Edo arrantza zereginetan jan

bila zebiltzala konturatu ziren arraien ohiturez, eta bizimodu horiek menderatuz igeriketa estilo berrien jabe egin ziren aurreko bi gorputzadarrei esker? Edo gauza bera erdietsi zuten ehizaren bitartez hegaztien atzetik mantenugaiaren bila ibiliz? Galderak eta galderak...

Nolatan moldatu ziren azkenik ez dakigun arren, gu gara entsegu ezezagun haien fruitu argia. Bertikaltasunak ekarri zien berria, etorkizun itxaropentsua. Naturak zutitasuna eskatzen zuen. Horrela bistan zuten ilargia, bistan izarrak. Bi zango, bi beso. Bestelako anatomia. Askatasun berria. Zutik ibiltzeak bi eskuak libre utzi zituen zeregin askotarako. Izaera horri eskerrik asko gizalana, eskulana, talde-lana, auzolana errealtate bat izango dira betiko. Jaio baita teknika, jaio da pentsamendua, jaio da ustekabeko bizitza berria. Zutik eta oinbiko izateak mundua aldatu egin du oinetik burura.

Aske gara. Hominizazioa antzinako primate batetik hasiz gaurko pertsona agertu arteko prozesu ebolutiboa da. Gure jatorria miozeno garaiko zatiketari zor zaio. Bi adar sortu ziren. Lehenengoan antropomorfo handiak -orangutan eta gorilak- ekarrarazi zituen. Bigarrenak adar humanoa eta honen transformazioak oraingo kondiziotara.

## **Mitoa. Bigarren jarduna**

2009. urtean Kenia Iparraldeko aurkikuntzak -hominidoen lau arrasto- zirrara handia piztu zuen zientzia inguruetan. Izan ere, zientifikoek ateratako ondorioz duela agian milioi pare bat urte hominidoak eboluzioaren bidez iritsiak ziren bi oinen gaineko ibilera menderatzera. Oinen arku eta esku-hatzak gureen itxurazkoak zituzten. Tipo hauetakoak dira ezagutzen diren aztarna zaharrenak. Homo Erektus espeziekoak ziren, hots, lehen hominidoak zango luze eta beso motzekoa, Homo Sapiensen neurrikoak. Historikoki biztanle haiek nomadak ziren, bizileku finkorik gabeko ehiztari eta artzainak. Nomada aurreratuok, denboraz, sedentarioak egin ziren, alegia, biztanle finkoak, egonekoak, bizitoki iraunkorrekoak, adibidez baserritar lurgin eta antzekoak.

Hasieran naturak berak eskaintzen zizkien behartsu haiei babes eta gordeleku kobazulotan, beharbada erdi bistako mendi sarreretan edo maizago ezkutuan, lurpe sakoneko haitzulotan. Gizaki moderno (Homo Sapiens, meta-hizkerak eta hizkuntzak erabiltzen hasiak), duela 200.000-100.000 urte agertu zen, bere arbasoa Homo Erektus zelarik. Gizaki modernoaren eboluzioan hainbat forma azaldu ziren, bata Neandertal

biztanlea (Homo Sapiens Neardenthalensis) Europan azken glaziazioan zehar duela 80.000-35.000 urte bitartean bizi izan zena, eta bestea, Cro-magnon gizona, gaur egungo gizakiaren (Homo sapiens Sapiens) arrazakoa.

Euskal Herrian biztanle primitiboen aztarnak txit aspaldikoak dira kobetan bizitakoak, hala nola Lemoako Arlanpe haitzuloa Behe-Paleolitikoa dena, Neandertal garaiko Lezetxiki eta Santimamiñe, edota Cro-magnon denborako Baltzola eta abar. Eta beste aldetik kobazulo-hormetako pintura famatuena Altxerri eta Ekainekoak direlarik besteak beste. Azkenik, frogatzeko gure arbasoak artista bikainak zirela, pintoreak eta musikoak adibidez, aipatu behar Nafarroa Behereko Izturitzeko hartzuloa, zeinean topatua izan zen hegazti-hezur bat hiru zuloduna, gure gaur egungo txistuaren aitzindaria gerta zitekeena, hoge mila urtetik gorako zaharra alajaina!

### **Mittoa. Hirugarren jarduna**

Mittoa dugu giza jakituriaren aurreneko dirdaia. Gure arbasoek, mila-ka urte direla, jainkoak eta izaki bereziak asmatu zituzten beren buruek uler zitzaizkien biziaren sorrera, existentziaren misterioak, edota eguzki eta izarren mekanismoak. Aldi guztietako kultura denek landu egin dituzte beren mito propioak. Mito zaharrak izan ziren gizatasunaren ekintza gogoangarriena protohistorian. Beharbada oparoegia, baina baita argitsu eta iaioa zentzu muinaren erdian. Mitoak, izan ere, zentzu-eramaileak baitira osoki.

Protohistorian iritsi zen mito handien heldutasuna, geroko pentsamenduaren oinarri gertatuko zena. Mittoa espirituaren beharreko sorkaria denez, historia osoan bizirik dirauena da. Mitoek heldu, bildu, lotu egiten gaitu ezinbestez. Mitoak filosofia sortzen du, mitoek filosofiak. Gizakiok betidanik itxaropen bila ibili izan gara, eta ibiltzen gara, eta mitoak hain zuzen bidera etortzen zaizkigu lagun zintzo bezala. Mittoa eta filosofiaren artean ez da gertatzen jakite mota bat faltsua izatea eta bestea egiazkoa, jakite mota diferenteak direla baizik. Horregatik zientifikoak, zenbaitetan, zientifikoak ez den hizkera motez baliatu behar izan dira, eta dira oraindik, hainbat gauza eta gertaerari argi izpi bat ematearren. Horrela gertatu zitzaion Platoni ere, askotan baliatu zelarik mitoez, hauen errekurtsio “ulergarriagoetara” joan behar izan zuelarik, zail eta esplikaiezina zeritzon hainbat gauza eta gertaera esplikatzeke.

Mitoak beti ulertu behar dira beren kultura mailaren eta ezaugarrien arabera, historia mailan, edukiaren mailan eta elaborazio mailan ere. Prometeoren mitoa historia eta teknikari buruzko hausnarketa gisa hartzekoa da. Prometeok gizakienganako maitasunak eraginda sua ematen die lapurtutakoan eta orduan Zeusek katetan jartzen du putreen jaki bihurtuz.

Mitoak menderatzen gaitu. Indar inkontziente horretatik geure burua askatzeko, aurreiritzi hirukoitz batetik liberatzeko premia larria dugu:

-Bat, uste izatea mitoak iraganari bakarrik dagozkiela,

-bi, marko erlijiosoari itota daudela,

-eta hiru, ilusio hutsak direla, geure borondatez edozein momentuan askatzeko ahalmena dugularik.

Errealitatean mitoa presente aurkitzen da alde orotan eta sartua dago, txertatua, osorik geure eguneroko bizitzan. Mito pertsonala ere agertzen da inkontziente kolektiboaren eremuan. Mito pertsonala presente egiten da guztiaren aurretik gain egite honetan: indibiduo guztiak eta bakoitzak pentsatu egiten du naturaz bera dela “munduko zilborra”. Eta hortik jaiotzen da indibiduo baten agintzeko nahia. Mito pertsonala Sokrates eta Goetheren gogoetan. Zer neurritan Sokrates eramana gertatu zen bere mito pertsonalaren eraginez? *Niri bidalia izan zait Jainkoa, sekula nekatzen ez den eztenaren pare bata bestearen ondotik esna zaitezen, konbentzi zaituztedan eta errieta egin dizuedan.* “Misio” sentipen horrek bultzatu zuen Sokrates epaileei erronka egitera modurik latzenez. Sokrates izan zen lehena gizona kokatzen munduko irudiaren erdigunean. *Toki ezberdinetan aldiz Jainkoaren mintzo bezalako batek hitz egiten zidalarik. Holakoetan ahots horrek galarazten dit egiteko asmo dudana egitetik, baina sekula ez nau bultzatzen ezer egitera.*

Problema honi buruzko adiskidetasun handiagoa lortzeko, fenomeno honen ibilia Goetherengan jarraituko dugu orain. Goetheren baitan guztiz nabaria izan baita mito pertsonalaren existentzia. Berak esatera, bere burua ikusten baitu eramana bezala, kasi ez dioelarik uzten espontaneoki jardutea. *Ikusiezineko zerbaitek gidatzen nau, erakusten dit, nahi dudala ez dudala.* Adibide horietatik nabarmen ikusten da mitoa dela etorkizunaren itxaropena bezala, fenomeno unibertsala eta batera... eternoa giza bizitzan.

## **Mitoa. Laugarren jarduna**

Platon mito kreaizaile handi bat izan zen, besteak beste. Gaitasun harrigarria izan zuen mitoak sortzeko. Atlantida izan zen bere asmaketa, Atlantidaren mitoa Timeo eta Kritiasen arteko elkarrizketa famatuan agertzen delarik. Dena dela, Platonek ez zuen noski pentsatzen haren ibilia hain luzea izango zenik, izan ere Platon 550 urte Kristo aurretik agertu zen.

Zientzia kontuaren jabea egin zen eta horrela ipuin filosofikoa historiako errealitate arkeologikoa bihurtu egin zen. Jaiotzez mito bat besterik ez zenak mundua aldatu egin zuen. Gaur egun arazoa ez da Atlantida inoiz izan ote den, baizik eta non izan den. Mitoak alde egin du bere oinarritik eta orain agertzen da zibilizazioaren iturriei buruzko hausnarketa handi baten gisan.

Jean Pierre Vernant jakintsu eta idazleak, bere aldetik, ondo irakatsi zuen, eta oso era egoki eta zuzenean gainera, nolatan mitoek ezaguturazten zuten garai hartako Greziako gizartearen egitura sakonena. Eta garbi adierazi zuen hain zuzen inoiz ez dela mitoak mitoa izateagatik irauin izan, baizik eta eraketa sozialaren oinarrietako bat zelako. Jean Pierre Vernanten obraren bihotzean aurkitu daitezke Greziako hiri garrantzitsuenak, hala nola diren Atenas, baina baita Esparta edo Kreta-ko munduak ere. Esklaboak ere hortxe daude, bere lekua betetzen garaiko gizartean. Eta gainera jakintsu honek ondo irakurria zuen bereziki Atlantidari buruz bost mendeetan zehar idatzitako guztia, Platon bera, noski, besteak beste.

Hona hemen, zerrenda xume baten gisan, handik eta hortik jasotako hainbat ohar solte, mitoak (pertsonaiak, lekuak, gertakizunak, etab.) direla eta:

- Titanen gerra.
- Hurrezko aroa eta bere itzalaldia.
- Ulisesen bidaiak eta pasadizoak.
- Sisiforen zorigaitzoak.
- Herkulesen lanak.
- Teseo Minotauro hiltzen.
- Perseo Gorgonaren kontrako borrokan.

- Ediporen arazoak.
- Apolo eta Dionisio, mitologia helenikoaren bi jainkotasun esanguratsuenak... dena dela jakin Dionisioren erlijioa Grezian sartu zela beste kultur tradizionalak, eta beste jainkoak -Zeus, Hera, Atenea, Demeter eta Apolo- baino geroago.
- Zeusen errealitatea, kultura helenikoaren jainko gorena, jainkoen aita eta errege Greziako mitologian... erromatarren Jupiterren berdina eta parekoa.
- Mazedoniako Filipok bere semeari kontatzen dizkio kultura grekoaren zenbait mito: Medearena (bere semeak hil zituen), Ediporena (bere amarekin oheratu zena jakingabea eta aita hil zuena) eta batik bat Prometeorena (jainko izan desiratzen zuena eta zigortua gertatu zena hantustegatik). Hor azaltzen dira era berean Alexandro bera eta Olimpia, beraien arteko adiskidetze saioak eta bere errege aldiaren amaiera beleek irentsita...
- Atrides, Elektra, Egisto, Klitemnestraren historia (mutil gazte batek hiltzen duena bere amaren amorantea).
- Europa, Agenor eta Telefasaren alaba (Zeus hartaz enamoratu zena eta gero zezen bihurtu eta bortxatua izandakoa).
- Delfosko orakulua (Zeusek liberatu zituen bi arrano lurraren bi muturretatik eta hegaztiak abiadura berdinez hegaka Delfosen gurutzatu ziren, horrela markatuz lurraren zentroa. Hantxe Zeusek kokatu zuen Onfalos -zilbor deituriko harri bat- eta kontsokratu zuen tenplu bat Gea bere emaztearen ohorez. Bere seme Apolok borroka egin zuen toki horretan bertan suge pitoi ikaragarri baten aurka. Suntsitu ondoan bertan eraiki zuen bere orakulua. Gizajendeari sua eskuratzegatik Prometeo kondenatu zuen Zeus bere aitak. Kaukaso mendietan kateatua, Prometeori arrano batek gibela jan egiten zion egunero, gauez hazten zitzaiona. Prometeok horrela iraun zuen Herkulesek askatu zuen arte, Zeus jainko errukitsuaren baimenarekin.

### **Mittoa. Bosgarren jarduna**

Mittoa zaharra da. Baina, zergatik behar ditugu mitoak? Zergatik bere beharra? Mitoari, bereziki bizi garen garai hauetan, errealitatearen kontra jartze zientifikoari dagokio eta ez da nahasi behar, beraz, zein den

mitoaren tokia eta zein logosaren lekua kulturaren diseinuan. Bakoitzari berea. Logosa eginekin lotzen baita zuzenki, errealitatearekin, eta guztiz egokia da horregatik ikerketak, zientziak eta fenomeno guztiak lantzeko. Mitoa, alderantziz, ez da arrazionala eta ez dagokio bere kontaren frogaketa ematea, gizakien inkontziente sailekoa da erabat. Mitoa beti saiatu izan da bizitzaren misterio existentzialak argitzen eta erantzunak ematen jendeari oreka eta lasaitasuna eskaintzeko. Era horrela izanik guztiz eraginkorra gertatu izan da antzinako zibilizazioetan bizi zen gizakientzat. Ordukoek aparteko jakituria garatu zuten mitoen bitartez sakonki landuz kultura beraien bizimoduetan, mitoan aurkitu zuten mendez mende eta belaunaldi anitzez zegokien lurraldetan mardul eta sendo aritzeko... eta harro eta ziur iraun ahal izateko.

Logosak muga larri eta estuak ditu, zeren askotan ez da gauza giza-kiaren adimenari bururatzen zaizkion galderak erantzun ahal izateko. Freudek esan zuenez, ez gara osoki zentzudunak baizik eta subkontzienteen indar irrazionalen giza izaki mendeko soilak. Gure jakitea, gure irudikapen orokorrak mitoetatik datozkigu. Okerra sortzen da, ordea, mitoaren zentzu zuzena galtzen denean, edo beste modura esanda, mitoa bera hartzean denean (dugunean) egiazko historia bakarra bezala. Baina mitoa ez da inoiz ere errealitatearen argazki soil bat baizik, informazio sinbolikoa, transhistoria edo intrahistoria gisakoa. Eginak kontutan edukitzekoak dira amaieran, mitoak aurrez, sentimenduak sortzekoak bilakatzen dira. Zer izango litzateke haur bat, edota baita munduko gizonik jakintsuena, bat-batean bere arimatik desagertzen badira mito eragile guztiak? Mitoa irudi fantastiko hori, barruko funtzio bat da, eta hori gabe bitzta psikoa geldirik geratuko litzateke. Mitoa hormona psikikoa da.

Herri bakoitza -dio Schelling filosofo erromantikoak- existitzen da herri bezala bakarrik, bere mitologia erabaki eta finkatzen duen une berberetik, eta mitologia horren arabera moldatzen eta osatzen dira mantso eta geldo bere hizkuntza propioaren era, modu eta ezaugarriak. Herkulesen eta Ulisesen irudiak beti izango dira eskoletarako proposak. Inoiz zimelduko eta ilunduko ez den distira txinpartua darie irudi horiei. Agian, zenbait pedagogok arbuiatuko ditu mito hauek, eta irudion orde zahalginean saiaturiko dira haurren gogoetan gauzen ideia zorrotzak erieten. Agian. Baina eginak heziketa amaierarako utzi behar dira. Hasteko mitoak. Eginak ez dituzte sentimenduak sorrarazten eta.

Mitoa fantasiako irudi noblea da, barruko jarduera baliotsua, bera gabe elbarri geratuko litzateke bizi psikoa. Mitoak, noski, ez du hornitzen



errealitateaz jabetzeko trebetasun puntakorik. Baina horren faltaz sentimenduen korronteak suspertzen ditu, pultsu bitala indartzen du, bizi lehia bistan mantentzen eta baita sen biologikoen tentsioa tinkatzen ere. Politika aldera pasatuz, esan beharra dago zenbait mitoen lana eta zeregina funtsezkoa dela mugimendu eta erreforma politikoetan. Mitoak eta pentsamendu mitikoak adierazpen sinbolikoaren fruituak dira eta sinboloek zeregin garrantzitsua jokatzen dute bizitza politikoan. Botere politikoaren oinarrian sartzeko beste eragileen artean. Horra hor mito politikoak... zeinek eginkizun nabarmena jokatzen duten bizikidetasunean. Mitoak dira esperientzia sozialaren objektibazioak. Historian zehar heroi mitikoak edo mitifikatuak dira askotan behintzat hirien fundatzaileak: Teseo, Romulo, Remo eta abar. Bada ere fundazio politikoaren mitoa: Kontratu Soziala adibidez, mitoen mitoa hain zuzen.

Mugimendu politikoaren barruan ere eragileak dira mitoak: proletarioritza komunistaren klase gabeko diktaduraren mitoa, aberatsen sozietate klase gabeko mitoa, krisi gabeko mitoa, burujabetza nazionalen mitoa eta abar.

### **Mitoak. Seigarren jarduna**

Euskal mitologiak historiaurreko garaietan ditu bere sustraiak. Euskal atsotitz ezagunak honela dio: "Izena duen guztia omen da". Gure mitologian pertsonaia harrigarrien izenak agertzen zaizkigu: Lur, Eguzki, Ilargi, Urtzi, Mari, Mikelats, Atarabi, Basajaun, Akerbeltz eta abar. Antzinako mintzaira da mitologia. Indoeuroparren eta kristautasunaren aurreko funtsa du eta honek kultura interes berezia ematen dio. Hau da euskal mitologiaren gauzarik positiboena: ez dela jainko aita duten mitologiaren taldekoa. Ama lurraren irudia Mari da, jainkosa ama. Hasieratik, garbi da, euskal matriarkatua agertzen zaigu inolako zalantzarik gabe. Animismoa dugu mitologia tradizionalaren lehen postulatua. Euskal mitologiaren kasuan argi dagoenez, lurra unibertsoaren gorputz materiala da eta gorputz horretan Mari jainkosa bizi da, gorputz unibertso horren arima, hain zuzen. Munduaren ikuskera animista osotasunaren ikuskera da. Gauza guztiak daude elkarren artean lotuta eta gauza guztiek dute zerikusia bata bestearekin, adurra deituriko lotura magikoak zeharkatzen duelako osotasunaren zati diren elementu guztiak. Lurra jainkosa ama da, Ama Lurra.

Horregatik lurreko elementuak sakratuak dira eta dohain sendagariak dituzte, batez ere erramuak, haritzak, gatzak eta beste zenbait harri

eta mineralek. Lurra ama-jainkosa edo jainko matriziala da, femeninoa eta ez maskulinoa. Lurra, emea da. Ama Lurraren eme izaera hori indartu egiten da, kontuan hartuz bere umeen artean Eguzkia eta Ilargia daudela. Baina biak femeninoak dira, alabak dira, eta horregatik bata bestearen ahizpak. Euskal mitologiaren alderdi espezifikoa da, beste mitologietan eguzkiak genero maskulinoa baitu. Euskal mitologiaren gakoa Mari da, irudimen kolektiboko irudi nagusia. Horregatik Jainko gorenekotzat joa izan da. Ederki kokaturiko harpe, mendi, leize eta zuloetan finkatzen da Mari: Aralarko Mari, Anbotoko Dama, Leizeko Santa, Muinoko Andrea, Lizarragako Andereñoa eta abar.

Baita ere “Damea” izena hartzen duena, andrea, sorgina, gaiztoa, haitzuloko Mari, edertasun handiko emakumea bera, suaz inguratutako dagoena batzuetan, eta burrunba itzelak eta leherketa gaitzak sortzen dituena bere ezkuta zuloetan sartzen den bakoitzean. Putre baten itxurapean ere agertu izan dena eta beste zenbait alditan ikatz puska bat urre bihurtzen duena...

Mito ezagunetariko bat Akerren irudia dugu. Mari jainkosaren eta bere sorginen zerbitzura dagoen sexualitate maskulinoa azaltzen duen irudi garrantzitsua hauxe, eta Mariren kontrapuntua denez berarekin harreman osagarria lortzen duena, hain zuzen.

Sorgina Mariren segizioko pertsonaia femeninoa da. Eta honek ordezkari, apaiz emakume edo azti lana egiten du, sorginkerietan, igarkizunetan, sendabelarretan eta ur magikoetan aparteko sorgina delarik.

Kixminen elezaharrak kristauen aurreko jentilak aipatzen ditu, hauek, naturarekin harreman estuan bizi zirela adierazten duelarik. Euskal mitologian “mairu” deitzen zaio jentilari. Olentzero, Onenzaro hitzetik omen dator. “Aro ona” izan daiteke bere esanahia, Gabonak aipatzen dituela, gabon gaua. Olentzero mendian bizi den ikazkina da eta urtean behin mendi tontoretetik jaitsi eta opariak ekartzera etortzen den pertsonaia da. Olentzero aro bat da. Euskal Herrian zehar badira hainbat leize, hainbat aldiz ikusi ahal izan diren zenbait animalia eta munstroen bizileku direnak. Euskal elezaharretako lurpean munstro ezagunena Iraunsuge edo Herensugea izenekoa da, zazpi buru ditu ele zahar batzuetan, bakarra beste batzuetan. Beste bat Etumetako Basajauna da, izaki mitiko espiritu bat edukiaz gainera, humano itxurakoa, giza itxurakoa hain zuzen. Gizartetik at bizi den gizaki misteriotsua, ez ona, ezta gaiztoa ere, baina bai beldurgarria dena.

Bistakoa da, beraz, existitu, ondo eta sakon existitzen dela mendeetan zehar sineste errotu bat, zein eta izaki mitikoak egon badirela, eta ugariak gainera, uste eta aurreikusten dituena. Nekazaritzak ere, izan, badu, nola ez ba, bere mitologiaren zatitxo “propioa” gure Euskal Herrian. Badirudi, garirik hemen ez zenean, ezta ezagutu ere, San Martin Txiki izena zuen ataundarra izan zela lehenengoz garia ekarria zuena inguru haietara. Ataundik mendi aldera abiatuz.

Aralar ondoko jentilek ba omen zuten gari soro ederrik hango zelai oparotan... baina, ataundarrei zirkinik eman nahi ez ziena. San Martin Txiki bizkorrak jentilak engainatu omen zituen. Nola? Ba, apustu galdu baten bidez: jentilen gari pila handia salto batean alde batetik bestera pasa baietz erronka eta apustua eginez, jentilek beraien aldetik ezetz, noski. Salto egin omen zuen ba San Martin Txikik... baina gari pilaren erdian, garitan beraz, sartuta geratu omen zen, ezin atereaz handik. Apustua galdu zuen San Martin Txikik. Eta nola hala gari pilo hartatik irtetea lortu zuenean, lotsaz bezala, burua makurtuta alde egin zuen, jentilen algara artean Ataun aldera... baina bere oinetakoak gari alez beterik zituela. Horrela, oinetakoetan eramandako gari ale pilatxoa nahikoa izan omen zen harrezkero Ataunen garia eriteko eta ondoren uzta opa-roak lortu ahal izateko. Ataunen garia horrela azaldu omen zen.

## **Mitoak. Zazpigarren jarduna**

Azkenaldian humanitateek atzera jotzen dute zientzien aurrean. Heroi eta jainko, greko eta erromatar, mitoak eta kondaira zaharrak desagertzen ari dira ikasketa planetatik. Baina oraindik ere mitoak baliagarri agertzen dira literatura, pintura eta zineman. Agian zineman bereziki. Gaur, gure eguneroko bizitza arruntean ere han eta hemen azaltzen zaizkigu oharkabean izenak eta esamoldeak, futbol taldetan esaterako, Amsterdameko Ajax (Troiaiko gerrari baten izena), edo arropa marka ospetsuak, Nike bezalakoa (garaipenaren jainkosa grekoa), edo ohiko esaldiak, Akilesen orpoa, errautsetatik altxatu zen Fenix hegaztia eta abar eta abar. Giza tximua. “Tarzan tximuena” edo tximuetako Tarzan, nahiago bada. Izenburu horrekin Txikagon 1914an publikatu zuen lehenengoz bere nobela Edgard Rice Burroughs estatubatuar idazleak. Zer da eta Tarzan bertatik bihurtu egin zen heroia ekologiko handia? Zertan da ingurune garbiaren lehenengo apostolua? Zertan defendatzaile nagusia safari, trafikante eta horrelako tipoak...?.

Tarzan mitoa. Johnny Weissmüller igerilari famatua izan zen protagonista Tarzanen filmetan. Eta bere oihu berezia. Mila aldiz eta non-nahi errepikatua Afrika arriskutsua giroa imitatuz. Txita tximinoa. Eta Maureen O'Sullivan Tarzanen Janeren paperean. Bizirik oraindik hirurak mundu osoko mitoen artean orain dela kasik ehun urte. Mito afrikarra, Txikagon sortua. Drakula. Konde beldurgarria. Banpiro amorratua. Mito galanta. Hiltzen ez den banpiro perilosoa. Banpiro ororen aita eta batzuetan otsoa, bestetan arratoi zitala. Beti tipo indartsua eta gutxien uste denean iaioa itzultzen. Dragoia. Horra beste mito unibertsal bat. Honen irudikapen zaharrenak Txinan topatu omen zituzten duela sei mila urte gutxi gorabehera. Suge gorputzekoak, txerri burukoa eta zaldi kimadunak. Munduan txit famatua. Gau eta egun esna. Altxor zaintzaile bikaina. Kartzularirik proposamenena, hoberena. Hainbat erreinutan enperadore sinboloa, emankortasunaren iturria eta sinboloa, deabruaren keinua, Kosmogoniak sortzen ongi dakiena. Heroiei ospe izugarria ematen diena. Ona, txintxoia eta benetan gaiztoa daitekeena. Dragoia. Beti dragoia.

### **Mittoa. Zortzigarren jarduna**

Mitook aurrera. Charles Chaplin "Charlot", Txikilin haurra, Jackie Coogan, ahaztu gabe, jakina, Greta Garbo "Dibinoa" super-ezaguna, supermaitatu eta deseatua. Aipa dezagun harrotasunez, aipatu ere, Eddie Constantine artista ekintzalari eta borroketan iaioa eta garaile ausartena, herrikoia, bakardadearen mitologia berarekin zeramana, inondik ez etorria, eta inora ez joana.

Mito berriak oraintxe. Tenislari ezin prestuenak, heldutxoena aurretik: Bjong Borg suediarra, 1956an jaioa eta bost aldiz Wimbledongo txapel-duna, sei bider Roland Garrosekkoa. Roger Federer 1981ekoa, suitzarra eta zazpi aldiz Wimbledonon maisua, bost Estatu Batuetan eta hiru Australian jaun eta jabe. Rafael Nadal bera, paregabea, 1987an jaioz... zer nolako hirutasuna! Eta zer esanik ez atzoko eta gaurko futbolari eta entrenatzaile ezagun eta ospetsuenez? Pelé, Maradona, Rivelino, Gento, Bobby Charlton... lauzpabost aipatzeagatik atzera begira... Eta gure garaiko, gaurko Cristiano Ronaldo, Leo Messi, Xabi eta Xavi, Pep Guardiola bera, eta abar? Joakin Blume gimnasta guztien artean hoberena beharbada, 1959ko apirilaren 29an hila hegazkin istripu batean. Bere heriotza goiztiarrak mito maila eman zion.

Mila zinematan ikus daiteke ametsezko mito saila, amaiezinezko mitologia baten zerrenda mugagabea. Orfeo eta Euridiceren filmea adibidez.

Orfeo senarra infernuraino jaitsi zen emaztearen bila. Hori lortzeko baldintza bat zeukan bete beharra, hots, atzera ez begiratzea inolaz ere. Baina Orfeok ez zuen lege hori errespetatu eta betirako galdu egin zen infernuan Eurídice aldi berean galduz. Abbé Pierren mitoa. Etxegabeen, errukarrien, ahoskabekoen apostolua 1954tik 2007ra herri handi baten kontzientzia kolektiboaren testigu oso berezia, bihotz handikoa, mito iraunkorra bihotzetan. Berrogei urteko borroka Emaus lagunen fundatzailearena! Gizon aske baten mito eta errealitatea, errealitatea eta mito izan zena hain zuzen. Aske munduan. Aske Elizan. Aske bizia eta aske hila ere. Belaunaldi izugarri baten txapeldun behartsu umila. Umila bai. Mitoa. Benetakoa.

1960ko urtarrilaren 4an hiltzen da berrogei urterekin Fausto Coppi, txirrindularietan aurrena. Coppiren mitoa lehendik jaioa zen. Baina egun horretan hego berriak betirako hartuak zituen. Nelson Mandela-ren mitoak balio doblea, bikoitza alajaina, merezi du. Hogeita zazpi urte luzetan giltzapean egon eta gero espiritu menderaezinarekin irten zen espetxetik Hego Afrika berri bat eratu eta salbatzeko gainera. Ernesto Che Guevara de la Serna, Argentinan jaioa 1928an eta 1967an Boliviako gerri-llan ari zela armadak harrapatu, atxilotu eta hil egin zuen. Idealismoa, adorea, etika eta humanismoa. Pertsonaia konplexua guztiz. Bere mito propioa eraiki zuen Kubako iraultzaren heroi honek. Federico Garcia Lorca eta Miguel Hernández poeta espainolak, biak gazteak, biak faxistek erailak, bata tirokatua gupidagabeki era guztiz koldar eta anker batean Andaluziako zelai batean, eta bestea Espainiako guda zibilean errepublikanoen alde borrokatu ondoren espetxe frankistetan hila, Alacanten hain zuzen gaixotasun larri batek jota.

Mito mundial bat. Montgomery of Alamein bizkondea, Bernard Law Montgomery, 1887-1942, 8. Armadaren Komandantea. Gerra ondoren Europako indarren buruzagia. Eta niretzat, abertzale eta nazionalistontzat, mitoa ez, super-mittoa izango zen gizona: Jose Antonio Agirre Lekube. Bilbo 1904-Paris 1960. Eusko Jaurlaritzaren lehenengo Lehendakaria, Euskadiren Lehendakari izendatua 1936-10-7an Gernikan. Donibane Lohizunen ehortzia.

### **Mittoa. Bederatzigarren jarduna**

Mitok lehen eta orain. Xedea alda daiteke, hori nork ukatuko du?. Baina barruko mentalitatea, desira eta gogoia berdina ez bada, gutxienez antzekoa bai. Jomugaz ez dago mudantzarik. Gaurko egunean ere mitoza-

leak gara. Duela milaka urte, antzinako denbora haietan fantasia gehiago zegoen noski, bereziki Greziako mitologian: amets indartsu gehiago, animalia arraroak izkina bakoitzean, munstroak zeru nahiz lurrekoak. Gaur egun, aldiz, jomuga onuragarriagoetara jotzen dugu gehienbat, probetxuak bilatzen ditugu zuzen-zuzen mitoen barruan ere, hala nola ibilgailu harrigarriak, izarretarainoko bidaiak, galaxietarako abiadurak. Zientziak argi eta garbi aurreratu zaizkigu azken mendeetan, bizimodua trukatzearaino batzuetan. Ez, ordea, neurririk gabe; ez, ordea, alor eta sail guztietan... Ozeanoen sakonetan zer gertatzen den ez dakigu, ez dakigu oraindik zein arrain eta izaki motak bizi diren leize eta abismo ilun horietan. Ikasteko.

Eta ikusteko, gauza pila larriak geratzen zaizkigu... lurraren zentro edo erdigune inguruko kontuak, adibidez. Mitoz mito gabiltza gaur egun ere. Baina... mitoak ditugu, ala mitoek gauzkate beren sareetan sartuak? Gaur egun ere mitoen behar estua daukagu. Premia horrek bere gordinean jarraitzen du. Ezinbestekoaren beharra beti bezain gogorra. Zoriona eta segurtasuna bilatu eta aurkitzearen betiko behar etengabea. Grezia, Erroma, India, Txina, Egipto, Afrika, Fenizia eta abar izan dira mitologiaren iturri aberatsa orain dela 3, 6, edo 8 mila urte luze. Mitologia denbora eta herrialde guztietako jakintza aberats eta amaigabea. Mitoa ispilu, gure ispilu, gizon izan ala emakumea, orain edo lehen, norbanakoaren ispilu, pertsonaren irrika eta beldurraren ispilua.

Giza bizitzaren betiko zirika.

Beldurra eta izuaren gainetik, ametsa eta itxaropena bilatzen duen beharra eta eskubidea ere. Heroien ekintza miresgarriak eta egiatzko gertaerak humanitatearen tradizio bihurtzeraino.

Pertsona bera, mito bizia. Dena dela ere badaude, egon ere, hainbat mitoren amaierak ere. Bi soilik aipatuko ditut. Halaz ere, badaude, egon ere, dezente gehiago. “Le Concorde” bera, 2000. urteko uztailaren 25ean erori egin zen, 113 bidaiari eta tripulazioa bertan hilik gertatu zirelarik. Hegazkintza supersonikoaren mitoaren amaiera, zeren konfiantza faltari eta ekonomia krisiari ezin aurre eginik erabat gelditua izan zen 2003an. Eta zer ez esan “Titanic” itsasontzi-kruzero erraldoiaren urperatze umilagarriaz?



### III. UTOPIA

#### **Utopia. Lehen saioa**

Grezia zahar ospetsuan umorea ere ez zen falta, garbi kus daitekeen Aristofanesen (K.a. 445-386) komediak irakurrita. “Emakumeen bilerak” izenekoan ekiten dio gogoz itxaropen iraultzaileari iseka eginez emakumei botoa emateaz. “Hegaztiak” izenekoan, berriz, trufa egiten du ondasun komunitateari buruz, sozialismoa barregarri agertzeko. Aristofanes satirikoa esan daiteke Platonen garaikidea zela (K.a. 427-347), bere denborakoa beraz. Platonen utopia famatuena Errepublikak edo justiziari buruzkoa da, eta hurrengoak Legeak edo legegintzari buruzkoa. Batzuen usteari buruz kasu eginez, Legeak liburua utopia posibleetan onena da zeren eskuraezina gertatzen baita Errepublikaren perfekzioa. Errepublikak gizarte ereduaren itxurapean idatzia dago, konstituzio gisa. Gizarte nekazaria zen, salerosketa guztien etsaia, orduko Atenasetik urrun eta lehengo oparotasuna berraurkitzeko gertu. Zazpi mende geroago Plotino filosofoak Galieno enperadoreari eskatu zion hondakinetan zegoen herri bat, lehen Campanian omen zegoena, berrizta zezala. Hark nahi zuen hara bizitzera joan bere ikasleekin eta hango herritarrek behartu Platonen Errepublikaren legeen modura bizi zitezela, herri berrituari Platonopolis deituz.

Peloponesoko gerrek Platonen baitan hausnarketa berria sartzen dute zuzenaz eta ez-zuzenaz, Errepublika eta Legeez. Orduan Platonek pentsatzen du hiriaren gobernua ez duela izan behar herritarren arazoa, hori ipini behar dela egiazko filosofoen eskuetan, hauek argi eta garbi dakitelarik lege zuzen bat nola itxuratu eta konplitu egiten den. Era honetan jendea ez da eroriko hizlarien menpean ez ere boterean daudenen nahikeria eta ametsetan. Olinpiadetan indibiduoek ez dakite zahartzaroa eta heriotza zer diren, baina Gizakien Hiria osorik ailegatzen da hilezintasunera. Hiria kezkatuko da emakumeen eta haurren bizieraren gainean. Sexu diferentziak ez dakar gaitasunen desberdintasunik Platonen iritzian. Platonen Errepublikan apaizek ez dute klase bat berez osatzen



Atenasko lege nagusian bezala. Haur guztiek eskola, jantoki eta lotegi berdinak dituzte. Honela zuzendaritza zaintzaileen kastari eman egin zaio, hauek jakituria eta filosofiaren batasuna hautatu dutelako Lurrean zoriontsu izateko hainbat erabakien bitartez.

### **Utopia. Bigarren saioa**

Platonen ideala hauxe zen: erakunde aldaezinak egitea, alegia, aldaketa gabeko gizarte bat. “Errepublikak”ko hirugarren liburuan Hesiodoren mitoko aldaera bat hartzen du “gezur prestua” bezala, zeinaren bidez aipatzen duen hiri idealaren antolaketa bat: “egia da zuek guztiok anaiak zaretela hirian, hala ere gobernatzeko gai zaretenok urrez bezala zarete preziatuenak, zilarra dator ondoren lehengoan laguntzaileekin eta burdina eta latorria nekazari eta gainerako artisauekin”. “Legeak” idazkiaren hirugarren liburuan Platonek hitz egiten du katastrofe handiei buruz eta horien ostean zibilizazioak berriz antolatu beharko lukeela hondakinekin eta nolabait, hasiera berri bakoitzarekin ezarriko zen bestelako aro bat. Platonek goretsi egiten du ordukoek zeramaten biziera xumea eta bere hiritarrei bertuteak irakasten dizkienean ahalegintzen da iraganaren estatu ideala lotzen etorkizuneko gizarte zintzoarekin. Hiritarrak luxu alfer eta usteletik aske erabat ikusi nahiko lituzkeelako. Bere gizarte horretan ez dago lekurik lotsagabekeria, injustizia, etsakeria eta jelsiak nagusitzeko. Izan ere, ez arlotekeria, ez aberastasuna ezagutzen ez dituen komunitate bat da, inolako zalantzarik gabe, pertsona nobleak hazi ditzakeen bakarra.

Geroagoko utopiak asko saiatu izan dira Platonen aurreko denboren humanitatea bezalako bat errepikatzen, haren kontinentzia eta izpiritu errukitsua. Oraindik Platonentzat mito bat zena egia zientifikoa bihurtu egiten da beste batzuentzat. Platonek idatzitakorik ezertxo ere ez zen ahaztu hurrengo belaunaldietako fantasia utopikoetan, irudi berrien itxurapean bada ere. Hiri-estatu idealaren gaineko eztabaida larriena gertatu zen Greziako hiri nagusiaren suntsidura bezperan.

Platon eta Aristotelesentzat kezka gogorra sortu zen orduan gobernu zibil egokiaren etorrera prestatu beharra izatean. Platonen iritzi adierazgarria agertzen da hiri perfektua aspaldi batean guztiz garbia izan zen denbora zaharretako Atenas nostalgikoan. Haren dotrinaren arabera, jakite guztia oroimen kontua da, iraganera zuzendutako ezaguera, ikaste guztia oroipena da, oroipena besterik ez. Eta zer esan nahiko luke honek? Ba, Lurrean izandako beste egoera bat, zeinean arima aurkitzen zen zeru

idealean. Baina gaurko Estatu bi estatutan zatitua dago, behartsuena eta aberatsena, elkarren kontra ari direnak gorroto elkartezinaz. “Errepublikak” badu eredu nabari bat, Espartakoa hain zuzen, non eta gizon eta emakumeak trebatu beharrak dira gerra lanetarako.

Azken finean Esparta idealizatu bat ikusten da Platonen “Errepublika”n.

### **Utopia. Hirugarren saioa**

Bizi osoa beti agertzen da ahalegina esfortzu gisa, behartsua nahiz borondatezkoa; kirola adibidez, esfortzu kreatzailea hain zuzen, goitarra, garrantzitsua, bizitza bezalatsuko lehia. Kirolaren garrantzia beti izan da nabarmena, gaur egun ere. Kirola, jolasa, jostaketa, dema, ahalegina, saioa, ageriko esfortzua. Mota denetako lehiakortasun jatorrak eta apustuak, publikoki, ala ez, eginak. Kirola.

*Oxford Dictionary*, Oxford University Press, 1962 abiatu beharra dut, 566 or. Eta hortxe, *Off* partikularrari buruz dio distantzia esan nahi duela, tarte bat, alde bat, urruntasun bat, ez egotea ukitzen, bereizketa nabarmena. Eta *Offside* berriz tokiz at, lekuz kanpora egotea (“orsay” egotea). Onenean “U-topia” osatzean bere jaiotza zor zitzaion hain zuzen Tomas Morori kirol baten oroigarriari. Baliteke. Hitz alfer batzuk esateagatik, kontutan ote zuen orduan zerako zerarena. Dena dela, Sir Thomas More ingelesa, 1478an jaio zen eta 1535ean hil, erail hobeki esan. 1518an latinez idatzia zuen *Utopia* izeneko liburua, berak asmatu hitza, ele bat grekoz gainera. “U” ez esateko eta “Topia” toki eta leku adierazteko. Horregatik diot baduela antza *Offside* lehentxo esandakoarekin. Baikor, positiboa, ezkor, negatiboa, Utopia, inon ez, negatiboa, baina egiaz, positiboa den zerbait. Horixe eta bera gertatzen baita milioika jendeekin. Beraien asmo, desira eta ametsekin. Hitz negatiboa izanik positiboa dugu, salbatuko gaituen zerbait beharbada. Utopia irits daitekeen egoera bat delarik, ametsa, fantasia nahi duzuen, baina salba gaitzake hobeto egon gaitezke saiatuz gero. Utopia korapilo guztien konponbidea? Zergatik ez?

Baina alde zuzenetik garbi gera bedi: Utopiak badu aurrekorik, ez da umezurtza. Mororenak oinarria Platonen “Errepublika”n du. Tomas Moro ez dago pentsatzerik Platon gaberik. *Utopia* lehen argitaraldian Morok dio “Platonen etsaia naiz eta akaso bera baino hobea”. Besteak beste Platonengatik hartzen du Tomas Morok aberatsen komunismoa. Baina

horko batzuen biziera Morok guztien eskubide bihurtu egiten du hasiera-ko kristau komunitatearen maitasuna gogoan duelarik.

Tomas Mororen *Utopia* ez da platonikoa, bai zalea. Adarra jotzen zuen Platonen “Errepublika”z, baina batera sinetsi egiten zuen haren idealetan. Platonen arrastoa lehen planoan behin eta berriz azaltzen baita Tomas Mororen *Utopian*.

### **Utopia. Laugarren saioa**

Esan dugunez, Tomas Moro 1478an jaio eta 1535an zendu zen. Kristobal Kolon italiarra 1451n jaio eta 1506an hil zen Valladoliden. Nabigatzaile famatua zen eta Atlantikoa askotan zeharkatua. 1492. urtean Karibeko irletara iritsi zen eta urriaren hamabian hango Guanahani irlaraino ailegatu zen. Ordura arte ez zen kontinente haren albisterik Europan eta horregatik hasieran Mundu Berria deitu zitzaion. Horrek esan nahi du Tomas Morok *Utopia* idatzi zuenean (1516. urtean hain zuzen) hogeita lau urte besterik ez zirela pasatuak Kolonen aurkikuntzatik.

Baina nola sortu zen *Utopia*? Erantzun sinesgarria, noski, Tomas Morori eskatu behar zaio. Garai ezin egokiagoan adiskidetu egin baitzen itsasgizon nabigatzaile batekin, alegia Rafael Hitlodeo izeneko batekin. Konfiantza hartuta honek kontatzen dio Morori kontinente berrian izana zela Americo Vespucioaren izena hartua izan zen kontinentearen izentzat. Horrek garbi adierazten du Vespucio oso ilustretzat zeukatela jende jakintsuaren artean. Beraz, bada, Rafael Hitlodeok luze-zabal kontatzen dio Morori amerikar utopikoen ohiturak, bizimoduak, elkarrekin nolakoak ziren, haien arteko era politikoak, aginteak, botereen berezitasunak eta gainerakoak. Rafael Hitlodeok ondo ulertu zituen utopiko haien jarrera eta ibilerak eta dena ikusi zuen bezalaxe adierazten dizkio Morori. Honek, jakina, adiskidearen esanak eta pentsamenduak gordetzen ditu eta gero liburuan idatzi egiten ditu ezer ahaztu gabe, baina beretik ezer erantsi gabe, notario zintzo batek bezala. Hortik ateratzen da kasik antolakuntza perfektu bat, lan benetan harrigarri bat, gure denboretarako ere. Hau da nolabait esanda liburu baten historia edo ibilbidea. Egia osoa, bada, besterik ere. Zinezko errealitateak beste izaera du. Liburua, dena dela, lanketa bat da non eta literatura eta fantasia elkarrekin dauden. Honetan guztian gizon azkar eta jakintsu bat dago, dugu. Tomas Moro noski, Tomas Moro eta bere ideia, bere intentzio sakona, bere asmo sendoa eta bere proposamena, hots: gizateriarentzako bake, osasuna eta askatasuna bilatzea eta eskaintzea.

*Utopiak* humanitatearen eboluzioa gogorarazten du, etxe bat egiten denean bezala. Munduak iraultza utopikoaren premia du antzinako ohi-tura finek beren fruitua eman dezaten. Honela, munduan kristautasunaren sena gal ez dadin, gu gaurkook alda gaitzen erarik egokienean. Hona adibide bat. Zer esan dezakegu langileen soldatarekin geratzen diren aberatsei buruz eta hori indarrez eta engainuz ez ezik legeen aitzakiaz? Gutizia asegaitzez beren arten partitzen dituzte guztien beharretarako gordetzekoak ziren ondasunak. *Utopiako* harremanetan urrez eta zilarrez egiten dituzte kartzeletako kateak. Gaiztoak zigortzeko belarritan urrezko eta zilarrezko lepokoak ipintzen dizkiete. Honela frogatzen delarik metal horiek umiliagarriak direla erabat. Beste adibide on bat. Mendebaldearen urraketa espirituala kentzeko erlijio tolerantzia zabala eskaintzen du *Utopiak*, egilearen jakituria frogatuz. Siniste askatasun ukazina eskaintzen baitu guztientzat Tomas Morok.

### **Utopia. Bosgarren saioa**

Tomas Morok utopiako alderdi guztiak aipatzen ditu zuzenki plano sozial, moral politiko eta abarretan. Pertsonaiak atseginak eta alaiak dira, maite dute lasaitasuna beren bizitzetan, ikastez eta buru jardunez sekula ez direnak nekatzen. Morok uste du irakaskuntza politena antzinako literatura dela. Hamaseigarren mendean utopiaren ideia nagusitasunean zegoen garaiko kultur giroan. Joera handia betidanik ikusi izan da utopiaren asmoetarako, paradisu eta uharte zoriontsuak amets munduko alde funtsezkoak baitira. Ez bakarrik, gainera, Mendebaldean eta Ekialdean, Asia eta Afrikan ere berdin gertatzen da. Taoismoan, budismoan eta filosofia musulmanean asko dira osagarri utopikoak, egoera idealak, zerutar bizileku gustagarriak. Txino, japoniar eta hinduen artean berdin. Hala Tomas Mororen utopia handi honek ondorio firmea lortu zuen jende jakintsuen arimetan eta errealitatea ikusteko moduan. Herrialde topatu berriak presentatzeko Mororen utopia zinez imitagarria eta arrakastatsua izan zen. *Utopian* laborantza zen guztien okupazioa edo zeregina. Hirietako zabalera ezin zitekeen hogeitaz milietatik beherakoa izan. Inguruko nekazari familia bat berrogei gizon emakumek osatzen zuten. Urterro familia bakoitzeko hogeitaz pertsona bueltatzen dira hirira, herri giroa ahaztu ez dezaten.

Lanerako, egunean sei ordu dedikatzen dira, hiru goizean eta hiru bazkalondoan, iluntzero denbora hartzen dute zernahitarako jolaserako ordu bete edo. Beren lanaren emaitzak biltegietako batean entregatzen

dituzte dirurik batere hartu gabeen, eta biltegiotan ere jasotzen dituzte janariak eta behar dituzten beste gauzak, dena dirurik emateke.

Hori da legea. Diru beharrik ez.

Utopia zaleek gorroto erabatekoa diote gerrari, nahiz eta hau maizago gertatu gizonen artean basapiztien artean baino. Heziketa militarra emakumeek ere pasa behar dute, premia dagoenean trebetasunez jantziak ager daitezen. Utopian gaitz guztien sustraia zein da gero? Gauzen jabeak izateko desira itsua.

Grina honek gizon eta emakumeak, emakume eta gizonak, bultzatu egiten dituelarik batzuk besteen kontra altxatzeko animalien antzera.

Honela, gizartea desgizarte bihurtzen da, aberats jendearen azpijoko gogor bat behartsuen kalterako. Tomas Moro sumindurik zegoen nekazarien langabeziagatik, ikusten zuelako lurjabeek behartsuei trabak jartzen zizkiela eta. Morok salatzen zuen ardiak hainbat gizonek jaten zituztelako denen aurrean. Merkataritza mota zabalduen etsaia zen Moro, ohitura horrek indartzen baitzituen, bere ustez betiere, gizartean kalte, zorigaitz eta ezinbiziak. Benetako amorrua sentitzen zuen jende umilaren sufrikarioa deskribatzean, batez ere emakumeena, hauen eskubideak parekatzea aldarrikatzen zuelarik. Hitz batean esanda, askatasuna eta tolerantzia, demokrazia oso-osoan zabaltzea nahi zuen ekonomia kolektibo batez konbinatuta, etekin klase guztiak era berdinean banatuak izaki. Gaixoak zainduz eta zaharren kontua eginez desagertzen dira utopiatik kezkek eta beldurrak. Berdintasunari esker kendu egiten da errotik, sustraitik kristauen arteko bekaturik larriena, hots harrokeria, hantustea eta gorrotoa. Ondasunak partekatuak izan daitezela. Utopiaren artean bake zabalak. Zorion patxadatsua. Elkartasuna. Anaitasuna. Harmonia eta askatasuna. Ez deliturik. Ez bortxarik.

Paradisu bat. Utopia amestua. Amets ederra.

## **Utopia. Seigarren saioa**

François Rabelaisek (1494-1553), beste liburu batzuen artean *Gargantúa y Pantagruel* idatzi zuen. Rabelaisek iseka eta burla egiten zuen Aristotelesen kontura, bere ilusionismo eta maisutasunezko silogismoengatik. *Gargantúa* zaldun liburuen satira handi bat da, egundoko arrakasta lortu zuena hain zuzen. *Gargantúa* erraldoi bat da, jigante handi bat gorputzez eta izatez ere neurritz gorakoa, printzea da, printze humanista bat. Bera-

ren hezkuntza eta bizitza da liburuaren gaia. Badu, izan ere, guztiz aipagarri bat ere, Picrochole alegia. Hau gerrazalea da, mundua konkistatu nahi du bortxakeriaren bitartez, gloria eta ospea bilatzen du, lapurreta eta iskanbila.

Hau da parada egokiena Rabelaisek deklaratu dezan argi eta garbi ez dagoela inon eta inoiz gerra justurik, zintzorik, eta ez gerra zuzengabekorik, baizik eta gerra absurdoak, zoroak, arriskuan jartzen baitute gizabizi oro eta batera gizateriaren duintasuna. Gargantúaren indarrak aurrera ateratzen dira, garaile gertatzen dira zorionez. Beretarrak saritzen ditu beren borondate ederrarengatik eta hala bakea berriro egiten da. Orduan Gargantúak eraikitzen du Theleme bere adiskide fraidearen omenez. Theleme abadia ez da nolana hiko gero, harresirik ez du, hormarik ez, araurik gabeko elkarte bat da, erlojurik gabea, koadranterik gabea. Hemen gizonak eta emakumeak libreki sartu eta ateratzen dira, askatasun osoan bildu eta aurkitzen dira, hexagono bat da, kanto bakoitzean dorre bat daukana. Ordena berriaren sinboloa da.

Thelemen herritarrak libreak dira, askeak, komunitatean bizitzeko edo nonetarik irteteko nahi dutenean, libre ezkontzeko, libre aberatsak izateko, libre eta aske bizitzeko. Abadiak bainuak baditu, jolaserako lur sailak, bakoitzari eskubidea emateko harmonian haztea. Thelemeko biztanleak bizi dira iruditzen zaien moduan, lege bakarra dute, hots: egin ezazu nahi duzuna! Libreak direlako, eskolatuak, beren borondatez bertutetsuak dira, grina txar guztietatik baztertuak. Gargantúaren semea, Pantagruel, utopiaren printzea, pizkundeko espirituz betea dago. Eta bere laguna Panurge, sendoki irekia ideia berri guztietarako. Beretzat zorrak eta maileguak dira munduko giltza bezala, ordaintzeko obligaziorik inoiz ere ez dago, horrela komunitatean baretasuna ongi finkatua aurkitzen da. Pantagruel badu orakulu-emakume bat etorkizuna asmatzen parerik ez duena. Panurgek badu itxaropena Bacbuc horrek esan dionaz. Alegia iturri fantastiko bat erakutsi egingo diola, bihotz baten itxura omen du. Iturri horretan egindako lehen zurrutadan bidaiariak pentsatzen dute ur freskoa edan berri dutela, baina berehalakoan konturatu dira ur harrigarriak benetan bakoitzaren desiraren gustua duela, alegia edaleak nahiago duen gustukoa dela, izaera eta dastamena bakoitzaren desirakoa dela, ur erabat fantastikoa delako.

Pertsona da elkarte eta erlijioen giltza bakarra, denak kaltegarriak bihurtzen dira jendearen nahiak eta duintasuna ez badituzte errespetatzen. Horixe da egiazko ondasun bakarra.

## Utopia. Zazpigarren saioa

Bacon, Francis (1561-1626). Verulamgo baroia, filosofo eta Kantzelari ingelesa. Ezagutzaren teoria enpirista azaldu zuen eta *Novum Organum* obra argitaratu zientzien sailkapenaz. Baconek erdibide plan bat asmatu zuen bi mendebaldeko pentsamen-joeren artean: lehenengoak eusten dio Platonen mistika idealari -XVI. mendekoa-; besteak antzematen ditu mendebaldeko zibilizazioaren baliabide materialak. Joera biotan biltzen dira unibertso ber eraikitzeko, zeinean pertsonak, errepublikaren hiritar-rrak, babestua sentitzen diren amaren antzeko estatuaren aldetik. Utopiaren urrezko garaia itsas aurkikunde handiei dagokie. Bidaien historia ederrak, asmamenak zoragarri bihurturik, kultur txoke gaitza sorrera zien orduango gizarteetan. Itsasgizon azkarrak dira urruneko hiri miresgarrien berri ematen dutenak, hala nola Utopiako irla, Campanellaren “Eguzkiaren Hiria”, Francis Baconen “Atlantida Berria”, esaterako. Francis Baconek pentsatu zuen berebiziko para zuela utopia horiei buruz iseka eta burla egiteko lasai eta “Atlantida Berria” publikatzeko.

Baina gauzak nola diren! Bere denborako adituek utopikoek zerrendan kokatu zen Bacon, Moro eta Campanellaren elkarte berean. Luzaroan mendebaldeko asmamen utopikoak lo luzea hartua zuen, eta ez zen benetan esnatu Bacon eta Campanellaren lanak XVII. mendeko lehen hamarkadetan agertu ziren arte. Pentsalari berriek zientzia berriaren heraldoak bezala agertu ziren erlijioaren eta filosofia berriaren arteko konponketa bilatuz. Izan ere, XVII. mendean zientzia eta erlijioaren arteko harremana oso garrantzitsua gertatu zen eta Europako kulturaren, jakintsu asko eztabaidaka aritu ziren alde eta kontra. Defendatzaileen artean Bacon Ingalaterran eta Campanella Italian dira aipagarrienak, Kepler, Galileo eta Newton zientziaren askatasunaren aldekoak ziren bitartean. Azkenik, zientzia eta erlijioa bakoitza eremu desberdinetan gera zedila izan zen irtenbide hoberena eta hala jarraitu izan da gure egunetaraino.

“Eguzkiaren Hiria” Campanellarena, “Atlantida Berria” Baconena eta “Cristanopolis” Andreama suertatu ziren aro hartako utopia markatue-  
nak, eta Europako kulturaren urte askotan zehar indar handiz iraun zuten. Etsenplu edo adibide honek adierazten du zein sartua zegoen pentsamen-  
du utopikoa praktika zientifikoaren mundu errealean. Honetan asko la-  
gundu zuen xehetasun batek, alegia, “Atlantida Berria” ingeles Lord Kan-  
zilier baten obra izatea. Baconek itsasoan galduaren kondaira berrartzen  
du eta Bensalem uhartera iristen da. Hots Atlantidara, “Atlantida Be-  
rria”ra.

Hiritarrek borondatez onartzen dute beren obligazioa. Ohiturak garbiak dira, familiak erabat finak, bertutetsuak. Bensalemen erdigunean Salomon etxea altxatzen da. Elkarte handi bat da. Aurkikunde eta asma-kizun zientifikoek zentro edo gune erabakitzailea. “Atlantida” berri hori batez ere zientzien programa garbi bat baita. Baconek bere bidaietan badu beti laguntzaile bat. Honek eramaten dio esku-makulua. Hogeita hamasei gizon zahar dira Salomon. Etxeko lore eta gaina, agure hauek herria bedekintzen dute pasatzean apaizen modura. Salomon etxean, jakitearen helburu sonatu bat dute: tresnak sortzea. Jakitearen xedea boterea da.

Guztia dago pertsonaren zerbitzuan, bere zerbitzu hobereanean. Jakintsuek landare eta animalia espezie berriak sortzen dituzte.

Ikertzaileak, argi-merkatari deituak, atzerrira joaten dira. Ikertzaileek liburu eta izkribuak aztertzen dituzte. Besteak artisauen lan ezku-tuak ikuskatzen jarduten dira. Baconek hobesten zuen gobernu itxura errege absolutuarena da. Inolako dudarik ez dago. Azala azpitik zer dabilen asmatzea ez da inolaz ere zaila. Bacon bera da erregea.

Nor izan daiteke buru nagusia, ez bada Baconen irudi idealizatua, zientifikoek hierarkian lehendakaria eta jakite unibertsalaren maisuen den maisua ezik? Salomon etxeko buruzagiak honela dio, hots: euria eta elur artifizialak sorrarazteko baliabideak baditugu eskura. Hazi egiten ditugu landare eta fruta espezie berriak. Ekoitzen ditugu mineralak eta etxe material artifizialak. Atlantarrek telefonoa eta itsaspeko guztiak ezagutzen ditugu. Itsasontzi urpean dabilzanak eta itsaso zakarrei eusten dizkietenak. Mikrofonoa, teleskopio eta mikroskopioen jabeak gara. Eta gainera hauek gordetzen ditugu: hegazkin, lurrin makina, ur turbinak inoiz ezagutu gabeak.

Argitzailea da aurretik. Ondoren, emankorra. Aurrerapen guztiak izango dira gizateriaren probetxurako. Bizitza kimikaren bitartez luzatu egiten da Atlantidan. Aireko amets zaharra errealitate bihurtua da, gora igo dira garraio era berriei esker.

Ate oro zabalik dira etorkizunerako. Baconen adimen ahaltsuak ez zuen mugarik. Bene-benetan gizon harrigarria zen Utopia sinestezinak aipatzen zituen lerro bakoitzean. Gure gizonak bere buruarentzat predikatzen zuena bilatzen zuen besteentzat ere. Uste ez zuelarik, berak jakin gabe, berauxe zen alajaina utopia handiena, utopiaz iseka egin nahi zuen gizon hura, hain zuzen.



## Utopia. Zortzigarren saioa

Tomasso Campanella (Calabria, Italia, 1568-1639). “Eguzkiaren hiria”: liburu hau izaki kolektibo handia, munduaren irudia, hain zuzen. Bere asmoa da zazpi harresitan biltzea gizateria osoa indar guztiez. Izaki handiarekin -dela erabateko baieztapena- jaun eta jabe agertzen den gizarte eraketaren kontra -dela erabateko ukapena- lan egin nahi du gaizkia eta bere nagusitasunetik bidaltzen bere itxura hirukoitzetik, alegia ezintasuna ezjakitea eta gorroto den gezurretik. Beraz, bultzatu behar ditu delako horren aurkako printzipioak, hots, boterea, jakintasuna eta maitasuna. “Eguzkiaren hiria” hiri distiratsua da, desiraren hiria noski, zeren hain nabarmen diren gizarte faltsuko arazoak hiri ederrean ez dira ezagutzen. Hiri zoragarria da, xarmanta, ozeanoz harandikoa.

Gure itsasgizona haraino iritsi zen, Taprobanera. Baso ikaragarri bat pasatzen du eta horra, hantxe dago ametsa, muino batean eraikitako hiria. Gordeleku bat irudikatzen, babesgunerik politena, aterpe ezohikoa, ezkutua, itsasoak gordea eta desirak gorpuztu egiten dituena. Gizarte eredia bera. Lurraren puntan irmo. Zazpi zirkulu antzekoak inguratzen dute, zazpi planeten izenak dituztenak. Campanellaren lanak garbiki adierazten du, alde batetik, elizaren aldeko gizona zela, Erromako hierarkiarekiko errespetuz betea; bestetik, hau ere klarki, herriko gizona zela gorputz eta arimaz, beretarren miseriaz kontzientea eta gauza zela pentsatzeko bere kontura, hots: Ebanjelioa behar bezain indartsu ez zegoela gizarte hartan eta gutxiago oraindik premia larria zegoela gizarte berri baten oinarria izateko. Campanella mutilak hamabi urte zitueneko poeta eta hizlari bezala ezagutua zen. Bi urte geroago dominikoen ordenako fraidea zen eta horri esker estudiantzera Cosenza eta Napolira joateko parada izan zuen. Monje honentzat, langilearen semea izaki, bizitza zinezko abentura bizia zen, aro ezin hobea gizartea zuzentzeko beraz, ez bakarrik printzipio metafisikoen gatazkaren alde borrokatzeko baizik eta Calabria bera berritzeko ere. Sartu egin zen bada hango matxinadan. Baina hiri perfektuaren garaia ez zen erraz lortzekoa eta Campanella atxilotu egin zuten. Artean, idatzi eta idatzi ari zen presondegian, “Eguzkiaren Hiria” ahaztu gabarik.

Hiri hartan haur txikiak kolektiboki mantentzen eta eskolatzen dituzte. Berdin jende heldua ere. Langintzak ikasten dituzte eta bakoitzak aukeratzen duen bizibidean jarduten du patxadan. Auzo denak aletegi bana dute, sukalde eta jantokien modura. Jatorduak bildurik egiten dira, gizonak mahaiaren alde batean eta emakumeak parez pare, zerbitzuak

gazteen bizkar geratzen direlarik. Komunismoa praktikatzen da eremu guztietan. “Eguzkiaren Hiria” baita gizarte komunistaren aurrenetako eredu gisa hartua.

Alferkeriaren izurritea behin eta berriz salatua da. “Eguzkiaren Hiria”n berriz ez dakite zer den nagikeria. Lanaldia lau ordukoa da egunean. Gainerakoan mundu honetako ondasunez zerbitu egiten dira, ezin jakina ondasunen morroi inolaz izan. Miseriaren eta ondasunen miseriak eta kalteak zer diren ez dakite hiri argitsuan.

Campanellak etengabea adierazten du bere optimismo menderaezina. Izan behar dena egin dadila, kosta ahala kosta. Dagoen txarra kendu, zuzendu eta hobetu. Hori da bere lana. Gizarte perfektua bilatzen du, eskatu eta erakusten du. Hori da bere fedea. Lurreko unibertsaltasuna zegoen bere pentsamenduaren muinean. Uste zuen orobat milagarren urteko destinoan, milenarismoak bazuela ahalmena gauzak era batera edo bestera erabakitzeke. Sinesten zuen numeroek zerutar botere edo kemena zutela eta konkretuki 1600. urteak denbora berriak sorraraziko zituela.

Baina 1599ko irailaren seian ospaturiko epaiketan, herejeaz eta altxamenduaz salatua gertatu zen Campanella eta tortura gogorren pean airtortu egin zuen. Ondorioz, hogeita zazpi urte pasatu behar izan zituen giltzapean. Zuloan zegoela bukatu zuen “Eguzkiaren Hiria”. Milaka orri bete zituen nekea ezagutu barik. Aristotelesen kontra azkeneraino jarraitu zuen, Makiabelo zuzendu nahian. Edo Galileo defendatzeari ekinez. 1628. urtean aske utzi zuten, hirurogeikoa zenean. 1634an berriz ere arriskuan da eta Italiatik ihes egin beharrean aurkitzen du bere burua, eta Frantzian legez kanpo sartzea lortzen du. Parisen hil zen 1639an.

Gizarte perfektua lortu nahi zuen, ez dago dudan hori jartzerik. Baina bere sasoiko perfektutasuna zen hura. Bere utopiak zerikusituzena du orduko absolutismoaren ezaugarriekin, antolaketa autoritarioa iruditzen zitzaion zorion sozialaren legea. “Eguzkiaren Hiria”n gogortasuna gailentzen da nonahitik. Zoriona erdiesten da aurrez ikusitako ordena dela bide. Burgesen interesak monarkiarekin egokitzen diren bezalaxe utopiarri komeni zaio burokraziaren mendekoa izatea. Campanellaren ametsak loturik agertzen dira boterearekin. Dena den, airtortu behar da Campanella ez zela edozein. Laurehun urtez aurreratu zitzaion bere denborari lurruntziak profetizatuz. Eta irrati-telegrafia, eta hegazkintza. Elkarrekin bizitzearen arazoa antola daiteke Campanellaren optimismo sozialaren bitartez.

## Utopia. Bederatzigarren saioa

James Harringtonek (1611-1677), *Oceanan*, 1656. urtean, honako hau zioen: XVII. mendeko jendearen buruhauste nagusia askatasuna da, askatasun demokratikoa noski, barruko askatasuna, kontzientziarena. Baina nola libertateak ezarri eta zabaldu garaiko polizia erreinuan, jainkozko eskubide lotsagabe gisa? Mende hartan utopiek batu egiten dituzte herriaren xede iraultzaileak, guztien berdintasuna eta lur jabetza kolektiboaren helburua. Asmo horiek darabilzkienak gelditzen zaien bide oso luzeaz ez dira kezkatzen. Aurrera beti oztopoak oztopo. Lana egin dezagun mundua konpontzeko. Ametsa den aldetik esan dezagun frantziar iraultzaren arrastoa hor ageri dela. Tiranoak ekinez baztertu. Askatasunak agindu du. *Oceana* horretarako publikatua da. Legearen bidez herriak jauntxoan menpetik aske lagatzeko. Baita emakumea ere. Utopiak markatzen du emakume idealizatuaren etorrera. Komunitate berriak kenduko dizkie sukaldeko ezinak. Emakumea gobernuan parte-kide ez bada ere, legegintzan zerikusirik ez badu ere, eskubideetan gizonaren parekoa da. *Oceanaz* geroztik legea alde dute. Emakumea nazioaren ama da, ez daiteke saldua gertatu. Senarra ez da gauza emaztearen ondasunak maneiatzeko honen borondate librearen kaltetan. *Oceana* errepublika bat da.

Bizitza politikoa senatuak finkatzen du legeak proposatuz. Erljioari buruz tolerantzia eta kontzientzia askatasuna dira erregelak. Harringtonek lurraren jabetza zuzena eskatzen du. Hebroaren adibide zaharra aipatzen du eredu gisa. Errege, apaiz, lebita, eta israelita arrunten interesak berdintzeko joera. Bestetik, behin aitortu zuen errepublika baketsu eta iraunkorra publikoki eskatzea enkargu bat izan zela hasieratik.

Jaun batzuk inguratu zitzaizkiola esanez norbait gai baldin bazen errepublika bat nolakoa behar zuen erakusteko bera zela pertsona hori eta horregatik jarri zela *Oceana* idazten. Bere liburuak bildu egiten ditu utopia mendebaldarren bi irudiak: alde batetik, gizarte perfektua zelan iristen den eta bestetik, frogatu gainera zergatik gizarte berri horixe den onena. Harringtonen egitasmoak botoen banaketa berria eta gobernu moduak zentzuzko oinarrien heinean eraikita daude. Bi ganbera beharko dira: goikoa edo senatua eta behekoa edo diputatuena. Lehenengoa proposatzeko eta eztabaidatzeko. Bigarrena erabakitzeko eginkizunarekin. Utopia baten inpaktua neur daiteke sortzen den distopia edo utopia kontrako joeraren arabera. *Oceana* 1657an publikatu zen, eta urtebete geroago astekari batek karta batzuk argitaratu zituen iseka moldekoak Harringtonen *Oceana* barregarri utzi nahian. Honen asmoa zen gobernu eta

lurren banaketaren artean proportzio handia jartzea derrigorrezkoa zela. Alegia jabetzearen banaketa era jakinean egin behar zela, zeinaren bidez gizatalde batek ezin zuen eduki berak bakarrik beste herrikide guztiak baino jabetza gehiagorik. Errepublikak zuzena eta iraunkorra ezartzeko herri osoaren onarpena eta baieztapena derrigorrezkoak dira. *Oceana* oinarri historikoa duen lehenengo Utopia modernoetako bat da: Utopia sozial bakarra XVII. mendetik XVIII. menderaino iritsi zena gobernua forma bat sistema ekonomiarekin harmonian egotea eskatuz.

Bere ideia moderatu eta errealistek Amerikako Estatu Batuek eredu gisako arrazoiak izan zituzten beren konstituzioa erabakitzerakoan.

### **Utopia. Hamargarren saioa**

Louis Sebastien Mercierrek (1740-1814). Honako liburu hau idatzi zuen: “2440 urtea”, 1772. urtean Londresen agertu zen egilearen izenik gabe eta izenburuan hitz hauek zituela: “Ametsa noizbait izan bazen”. Gainean Leibnizen hurrengo esaldi hau zuen: “Oraingo denbora etorkizunnez ernari dago”. Mercierrek ukronia berri bati hasiera ematen dio: Utopia klasikoaren toki onak utziz denborari, aldiari heltzen dio, (aldi kronologikoari noski). Gizarte ideala irudikatzeko hega egiten du urruneko espazioa baterantz. Mercier 1770ean lotan geratzen da eta 2440an esnatzen da. Utopia guztiak dira ukroniak. Data bat proposatzen badute ere gezurrezko urtea da. Egileak lurra deskribatzen du arrazoiak argiturik, baina jakin ez daki. Soilki mahai baten gainean aurkituriko kazeta baten puskarri eskerrak enteratu da. Gainontzean utopiak ez daki munduko beste tokietan zer gertatzen den eta orduan bere jatorriaren sekretua erabat gordetzen du. Lur prometatuan edo Mesiaren erreinuan pasatako denbora ez du ezagutzen, heriotza ukatzeko modu bat bihurtzen da, zeren heriotza bera ere denboraren amaian baitago. Narratzailea Londres ezezagun batean esnatzen da eta bakarrik laguntzaile batzuek erakusten diote bidea. Gizon eta emakumeak dibortziatuta bizi dira, ateak bezala utopia honetan.

Hemen emakumearen askatasunaren kontrako joerak ikus daitezke, senarraren aginpide zorrotza ikusten da bere emaztearen aurka, beti gaintetik agertzen dela. Utopistek irizten dute makinek erraztu egingo dutela herritarren biziera, bere gorputza eta izpiritua hobetuko dituela. Laburki esanik, aurrerapen teknikoek gizartea perfekzionatutako dutela. Mercierrek teleskopioaz pentsatzen du superstizio guztiak porrokatu dituen neurri moralaren antzekoa dela, eta horretan laburbiltzen du Argi

mendearen pentsamendua. Utopia laborantzakoa da, baketsua, zoriontsua. Eta honen altzoan jaio egiten da bestelako utopia bat, etengabe aldatuz ari dena, dinamikoa, zientzia eta teknologiaren eremua. Mercierren “2440 urtea”n Utopiako protagonista hizketan ikusten dugu ingeles batekin. Honek sermoia egiten dio erreinuaren egoera zoritxarrekoaren gainean. Eztabaida amaitzean lozorroan geratzen da.

Idazkia 1768. urtean hasia zen eta loaldiak 672 urte iraun ditu. Beraz, 2440. urtean dago gure gizona. Betiko tankeratxoan buelta bat ematera irteten da, lehen bezalako aurpegi, ohitura eta giroa topatuko dituelakoan. Ustea ustel ateratzen zaio. Kaleetan galdi zaharrak ikusi ordez ibilgailuak daude edadekoentzat, etorbideak txit zabalak dira, jendea ordena harrigarrian dabil. Gaixotxeak altxa dituzte, teatro ederrak ikusten dira, itxura bikaineko etxeak ere. Beste mundu bat da benetan huraxe. Dena aldatua dago edozein ikuspuntutik. Bostehun urteko epean paradisu hiritarra da jaio, arrazoiak eta abantailez betea goitik beheraino. Zientzia, jakitea eta adimendua oso estimatuak dira eta jendeak zoriontasunean bizi dira. Ez dago gehiago eskatzerik.

## **Utopia. Hamaikagarren saioa**

Saint-Simongo Kondea, Claude Henri de Rouvroy (1760-1825). Liburu batzuk idatzi zituen eta ezagunen artean: “Industriaren dotrina”, “Europar gizartearen berrantolaketa” eta “Kristautasun berria”. Hitz magikoak, bi, hots, “Industria” eta “Berritasuna”. Inguru filosofikoetan iragartzen dute, hau aro berria, garai berria dela. Eta honi dagokiola zuzenki gizon berriaren hasiera, etorkizun denborako gizona, herritarra, delako. Itxaropen erraldoi bat jaioa da munduan. Makinak gizakiei botere gehiago emanaz eta irabazi gehiago neke gutxiagorekin, astia emango die hausnartzeko, hobeak bilakatzeko, eragileago izateko beren mendeko lurrraren gainetik. Saint-Simonek esango du jendeak hobetu beharrean aurkitzen direla geroko gizartearen heltzea antolatzeko.

Pentsamendu hauxe da Saint-Simonzale zenbaitentzat egiazko mesianismo baten giltzarria.

Aurrerakuntzaren mirespena, aldi berriaren erlijioa. Mendebaldearen abiada bere destinoaren bila eta indar itsuaren kemena da Saint-Simonentzat fede berri bat, denbora modernoaren siniste oinarria. Lan fisikoaren gainean Morok egindako aipamena nabarmenki mesedegarria gertatu zen iritzi utopikoaren historian eta zentzu berean jardun zuten

geroko sistema sozialista orok. Saint-Simonek printzipio bera aldeztu zuen, alegia “gizon guztiek lan egin behar zutela”. Saint-Simonentzat langileak dira baita ere fabrikatzaileak, merkatariaik eta bankariaik. Industrialaria ez da norbait partikularra baizik eta funtzionario publikoa. Esplotazioa honenbestez kanporatua geratzen da, deuseztatua, banakako ekonomiarik ez baitago. Bere lekuan projektismoaren egunsentia jaiotzen da, industria eskuzabal bedeinkatua loratzen da. Industria berria, betiere modu gardenean, lurreko zerua, zerua lurrean.

Baporea oso gauza garrantzitsua da, etorkizuneko mundua sortzen du, presentea iraganetik bereiziz. Ilusio horri eutsi zion Saint-Simonek industria biziera laudatuz. Langile prestuak ziren kapitalistak, merkatariaik, enpresariaik, artistaik eta zientzialariaik. Gizateriaren kreatoriaik, etorkizun asmatzaileak. Saint-Simon itsutua zegoen azken berrietasun industrialez. Baporearen indarrarekin harreman betea zuen aurrerapen galantak. Proiektu izugarriak agertzen ziren. Adibidez, Suez edo Panamako kanalak. Mundua eraberritzeko eta hobetzeko asmoak. Europako boterea “Newtonen Kontseiluan” egongo da, hogeita bat jakintsuen elkarteak. Enpresa buruzagien bidez osatuko da, Platonen Errepublikako filosofoen gobernuak, Salomonen jakintsuena. Gobernu denborala eta espirituala Europako zientzia akademien zeregina izango da. Artean Saint-Simonek ondotoxo daki jende gehiena behartsua dela, estu eta larri bizi dela hainbeste aurrerapenekin ere.

Apustu argia egiten du egoera hori aldatzeko. Estatuaren xede ukazina da beraz bakoitzari lanerako eskubidea aseguratuzeko, heziketa orokorra zabaltzeko, boterea egiaz eta benetan biztanle guztien zerbitzari leiala bihurtzeko. Saint-Simonek ez du utopiarik idatzi baina bere ametsak bitarteko direla zientzia fede sendo bat sortu egin du. Frogatu nahi izanez guztia datorrela grabitazio unibertsalaren ondorioz. Horrela ikusten da gertaera sozialak lege nagusi horren ataltxo batzuk besterik ez direla. Gorputzen beheerako erorketa bezala, planeten eguzkiaren inguruko biraketa bezala. Uste hau zientzia humanoen ardatza ere bada noski. Honen araura soziologia bihurtuko litzateke fisika sozial bat. Saint-Simonen obrek uste honen arrastoa daramate. Hala, zientzia espiritu berri bat da, sistema politikoari oinarri filosofikoa ematen dioena. Hortaz, produktugileen eliteek, hau da, kultura kreatoriaileek agindu behar dute gizartean. 1450. urteaz geroz idatzitako utopietan oso gutxi dira ezerezetik datozenak. Gehienak lehengo utopietatik etorriak dira.

Bere asmo berriengatik adina giza izaeraz erakutsitako sakontasunagatik, pentsalari saila frantsesak pentsamendu utopikoaren barruko izar-

tegi bat izan zen. Lana eta amodioa ongi elkartu zirelarik gizarte idealaren alde. Normalki aurkikunde intelektualak buru-kreatzaile batetik sortu izan dira. Abagune bakanetan azaleratu izan dira garrantzi bereziko ideiak. Behin, ordea, besterik esateko parada aurkezten zaigu. Kointzidentzia bitxia eman zen European Henri Saint-Simon, Charles Fourier eta Robert Owenekin. Hirurok kezka sozial batek elkartu zituen beren garai-ko krisia konpontzerakoan. Hirurok iragarri zuten etorkizun hobea eta bera kontrolatzeko borondatea agertu baitzuten. Frantzia Napoleonen denboraldian sartua zegoenean sozialismoa aurreratu zen bereziki teoriaren alorrean, sozialismo utopiko izenaz bataiatua izan zena. Fantasia eta gizartearen azterketa errealista nahastea ondo agertzen da Henri Saint-Simonen bizitza eta liburuetan.

Iraultza Frantsesean eta Amerikako Estatu Batuen independentzia gerran parte hartu zuen Saint-Simonek. Honen liburuak asko lagundu zuten European ideia sozialisten hedapena. Liburuotan galdera bat gailentzen da klarki: gizarte industrial berrian zein izan daiteke printzipio ordenatzaile nagusia? Saint-Simonek berak kausitzen du erantzuna: industria bera eta industria kontrolatzen dutenak. Gizarte osoa industriaren gainean eraikia baldin bada, industria hori baldin bada aberastasun iturri bakarra, orduan industria klaseak behar du izan gidari eta agintari. Saint-Simonen izena soziologia modernoaren abiapuntuan dago. Bera izan zen Augusto Comteren maisua proposatu zuen zientzia berri baten kreazioa moral eta politikoa gizateriarentzat. Saint-Simonen lanak azkeneko liburuan agertzen ziren. Saint-Simonen Eliza Frantzia osoan eta beste estatuetan ere adarrak izan zituen.

## **Utopia. Hamabigarren saioa**

Robert Owen (1771-1858). Londreseko prentsan, 1817ko uztailaren 30ean, Owenek dio erabakia hartuta daukala, gerturik dagoela nagusi den eguneko sistemaren oker eta gaizki guztien kontra borrokatzeko, kaltegarri horiek sozial nahiz politikoak direla eta horretan azkeneraino saiatuko dela txar denok txikitu arte. Berrogeita sei urteko gizona zen orduan eta bere bizia arriskatuko zuen behar bazen eginkizun horretan. Ez zuen beldurrik etsaien aurrean. Aurrez aldetik egindako lana eskaintzen zion bere herriari. Bere burua eskaintzen zuen. Pausoz pauso eginiko lana. Lantegiz lantegi igoa zela langile soil bat bezala hasi eta gero botere industrialaren gailurreraino iritsia zela alegia urtetan saiatua izanik.

Eskoziako New Lanarkeko fabrika baten eta beste industria kate baten jabea azkenik izateraino.

Zer erakusten zuten lorpen guztiok? Gauza argi bat: bera ez zela bakarrik ameslari bat, baizik eta gainera erakusle on eta sendo bat gizarte berri eta osasungarri bat eraikitzeke modukoa. Industriaren jaiotza elkartua dago Robert Owenekin eta bertako sozialismo goiztiarrarekin. Owen sozialista europarra zen eta aldi berean industriari filantropo eta ameslaria. Bere esperientzian kooperatibismoaren oinarria dago eta baita ere mutualismoa. Platon, Moro eta Campanellarekin, Owenek uste du posible dela gizartea eta mundua erabat berritzea. Mundu moral berria alegia. Bere utopia askatasuna zen, ez edozein gauza gero. Ingalaterrak esperimenduak zuen industrialismo modernoa beste edozein herrialdek baino lehenago. XIX. mendean bere lehen sozialismoa agertzen da. Horregatik Owen ikusten dugu kontaktu zuzenean industriarekin eta bere teoriak lantzen ditu oinarri ez utopikoekin Fourier eta Saint-Simonen asmoez. Robert Owen errementari baten semea da, Gales iparraldean jaioa. Bere patriaren liburuari esker bere burua hezteko era eduki zuen eta Manchesterreko irundegi fabrika baten kontramaisua izatera iritsi zen, zeinean iaio jokatu zuten lantegiko jabeakide bihurtu zen.

Gerora beste lagun batzuekin elkaturik fabrika bat erosi zuen Eskozian, New Lanarken. Aurreko jabearen alabarekin ezkondu zen. 1800. urtea zen. Oraingoan Owen ez zen soilik artegatu eraginkortasun eta produktibitateaz, saiatu zen ere arazo humanoak, makinismoak sortutako haserrea eta alogeraren istiluak konpontzen. Izan ere, New Lanark alkoholismo, miseria eta bizio saila guztien mende aurkitzen baitzen. Owenek denda merkeak sortu zituen, etxe bizitza txukunak eraiki, fabriketan ohitura egokien sistemak bultzatu, haurtzaindegiak muntatu, eskolak ugaritu. 1806an, krisia bete-betean, langileei soldata osoa pagatzen zien, dena normaltasunean izan balitz bezala. Gobernuek edozein langile eskaerari esku gogorrez erantzuten ziotenean Robert Owenek topatzen zituen bitartean gauzak konpontzeko molde harrigarriak, jakintsu jendea bera txunditzeraino.

Besteak beste, 1813an Owenek publikatu zuen beste liburu bat: “Gizartearen ikuspegi berria”, azpitituluz “Izaera humanoaren formazio gaineko saioak” eta bertan erakusten zuen sozialista guztien segurtasuna gizartea antolatzeke, beti gizonaren eskuetan. Hau zen xede nagusia: zorion gehiago gehienentzat, langilearen biziera hobetzea bide baketsuen bidez, eta aldi berean ahantzi gabe nahitaezko ingurugiroaren garbitze



eta prestatzea. 1800 aurretik hasia zen Owen, hau da, 25 urte luzeetan ibili zen Britainia Handiko kotoi harituaren fabrika inportanteena egiten eta eusten. Owen izan zen guztien iritzira eredurik goitiarrena eta inspirazio iturri berdingabea.

Langileen zoriona aurkitu zuen beren bizi-mailan dudarik gabe aupa-tuz. Horrekin batera ekonomia arrakasta gaitza lortu zuen, guztien harri-garri. Bisitari multzoa biltzen zen egunero sartu nahian, ez edozein kla-sekoa gero. Jende inportantea, jakintsua, agintaria eta nagusitakoa eten gabean. Lantegi hura Europako toki famatuenetako bat izatera heldu zen luzaroan, mundu industrial berriaren sinbolo garbia. Baina 1824ko urrian Owenek pentsatzen zuen fabrika hura, hain eder, probetxugarri eta fa-matua izan eta ez zela egokiena bere ametsetarako, bestelako asmoek indartzen zutela haren arima, gizarte berria jaioarazi nahi zuen, ez baka-rrik gainera bere kezketako Britainia Handirako. Bere bihotzak gehiago eskatzen zion munduari, mundu osoari hain zuzen berritu on bat eman nahi zion eta hori, gainera, urte askotarako, denbora luzerako, benetan denak barru eta kanpo harritasunaren sarean eror zitezten. Ordurako Owen gizon heldua zen, 53 urtekoa. Beste bide bat ireki behar zuen. New Lanarkeko lotura oro hautsi eta bere “Mundu Moral Berria” helburu zue-larik barruko dotrinak praktikan ipiniko zituen lotsagabeki Amerikako lur bedeinkatu eta birjinetan.

Zeukan diru pila dantzan ezarri zuen Indianako New Harmony eskualdeko herri batean proiektu utopikoa probatu zuen, komunitate bat, berdintasunaren gizartea, kide guztien berdintasuna xede baitzuen eta holaxe deitu zitzaion “berdintasunaren komunitatea”. Anaitasuna es-treinatua erosteko Owenek 125.000 dolar haizatu zituen eta beste horren-beste behar zirenen gauzez jabetzeko. 1.200 lankide elkartu ziren kolekti-boki lurrak maneiatzeko eta produkzio sailak menderatzeko. Irabazien berdintasuna zen lege nagusia. Eskaera gutxiz eta barruko eztabaiden kausaz porrota sufritzera eraman zuten akordio izugarri hura. Owenek zoritxarrez konprobatu zuen amerikar zelaietan zein larri zen idealen eta errealtatearen arteko diferentzia. Bere dirutza osoa jarria zuen Amerika-ko utopian. Hura bai utopia jatorra! Hiru urte haietan dena erreka jota zegoen, erabat amildegitik zulora joana. Amets ederra amets penagarria bihurturik. Owenek aitortu behar izan zuen goizegi zela holako esperi-mentua egiteko, aurrez aldetiko heziketa gabe. Antolakuntza jabetzak saldu zituen beraz galera izugarriez. 1829an Ingalaterrara bueltatzen da ameslari pobretua bihurturik. Nork-nahi pentsatzen du, nori-nahi buru-ratzen zaio badela ordua bere proiektuak ikusiak ikusita goitik behera

aldatzeko. Edozeinek hori egingo luke, buru pixka bat duen jende arruntak behintzat. Robert Owen, ordea, ez da egur klase horretakoa, ez da ohizko tipo bat, ez da edozein, bere bizialdian askotan erakutsi duenez.

Owenen ustetan, guztiz bestera, baikorrak izateko garaia zen. Izan daiteke, zioen, hurbil dagoela aldaketa handiren bat, zeinen ezpatak golde bihurtuko direla eta lantzak aitzur. Owenek erakunde asko sortu zituen. Bere helburua mundu moral berria eratzea zen eta mundu horretako asmo bat langileen laguntza iraunkorra mugitzea, komunitateak antolatuz heziketa, etsenplu eta enpleguaren bidez.

Utz ditzatela albo batera langileek beren ohitura txarrak. Ondorio baitira ezjakitearena, pobretasunarena eta lan-ezarena. 1831n sortzen du lan zuzenaren Burtsa, hasiera ematen dio herri komun berri bati. Marxan ipintzen du sindikatu bat: klase produktiboen Elkarte Moral Handia, 1834an. Fundatzen du, 1835ean, Nazioen Klase Guztien Elkartasuna, handik gutxira “Sozialistak” deitua. Aipaturiko Elkartasun horrek hiru sail zituen, horietako bi kontsumo bazkunak besterik ez direnak, eta hirugarrena anaitasun handi bat izango da, produktore eta kontsumitzaileen klase bakarrekoa, apaiz, abokatu, militar, saltzaile eta eroslerik gabekoa. Owenek pentsatzen du gizarte aldakuntzak totala izan behar duela bere zati guztietan.

Bakarrik ordena zuzen bat batasun bakoitzean ordena totalaren oinarri, alegia hori baita sozialismoa. Owenek ospe handia hartu zuen Europa osoan. Segitu zuen etsi gabe bidaiak egin eta hitzaldiak ematen bere asmoen barreiagarri. 1853. urtean Owenek publikatu zuen *The Future of the Human Race*. Bertan iragarri egiten zuen iraultza baketsu baten etorrera, hildako gizon eta emakume handien espirituak eraginda, hots, espiritua-lismoz kutsatua. Bizitza luzekoa izan zen Owen, 87 urtez hil baitzen. Agian datu honek argitzen du bere pentsamendua denboraldi batetik bestera nola aldatu zen. Owen, teoria eta praktikako gizona zen. Bere ekintzek hamarkada asko iraun zituzten baina ospe internazionalen marka hoberena 1830 inguruan eskuratua zeukan. Aski bizitzeko parada egokitu zitzaion 1885ean aldakuntza unibertsaleko bilera antolatzeke ere.

Kooperatibak eta mugimendu sindikalak aurreko urteetan zehar buruz eta bihotzez bultzatu baino lehen ere saiatua zen gogotik teoria saioak aldarrikatzen. Inoiz ez zen geldi eta isil geratzen, ahalegina eta esfortzua jaiotzetik heriotzarainoko ezaugarriak izan zituen arren, bere sistema 1849 aldean soilik osatzea eskuratu zuen. Bere izkribu ugarien

artean *The Social System* eta *The Book of the New Moral World* nabarmentzen dira. Lehendabizikoan, benefizentzia erakundeetatik apartatuz sozialismoaren bila dabil. Bigarreanean, sozialismoa gomendatzen die lagunei.

Orduantxe Owenek sinesten zuen hobekuntza soziala lor zitekeela aldaketen bidean gora, greba arbuatuz. Kontziliazioaren aldekoa izanik ekonomiaren egiazko aldaketa modu baketsuan gertatzea espero zuen. Bapore indarra eta makineria lantegietan sartzea ere eskatzen zuen. Hitz gutxitan bilduta, esan beharra dago Robert Owen sozialismo ingelesaren aita dela, gizartearen zientziaren euslea, gehienentzat zorion handienaren eta berdintasunaren printzipioa zabaltzen zuela eta harmonia zela inongo dudarik gabe “Mundu Moral Berriaren” urrezko giltza.

Londreseko kanposantu batean dagoen Owenen oroitarrian irakur daitezke segituan datozen hitz hauek: “Berak sortu eta antolatu zituen haur eskolak. Berak finkatu zuen emakume eta haurrentzako lan orduen murrizketa fabriketan. Bera laguntzaile liberal bat zen ahalegin goiztiarretan heziketa nazionala lortzeko. Berak lan egin zuen nazioarteko arbitrajea bultzatzeko. Bera zen ingeles buruzagietako bat erakutsi ziena gizonei egoera sozial altuagoko bat izaten kapitalaren eta lanaren interesak elkartzuz, adiskidetzearen bidez. Berak xahutu zituen bere bizia eta ondasun handi bat bere herrikideen zoria hobetzea bultzatzeagatik, horretarako ematen zizkielarik hezkuntza, konfiantza eta balio moralak. Bere bizitza santutu egin zuten maitasun humanoak eta esfortzu goitarrak”.

### **Utopia. Hamahirugarren saioa**

Fourier, Charles (1772-1837). François Marie Charles Fourier 1772. urtean jaio zen Besançon-en, ehun merkataria aberatseko familia baten baitan, nahiz eta gero kiebra jotakoa gertatu. 1779an hasi zen saltzaile bidaiari gisa lanean. Urte horretan bertan jatetxe bateko menuan ikusi zuen sagar baten prezioa eta oso harritu zen. Izan ere, bere herrian diru harekin ehun sagar ale on erosi baitzitekeen. Gerora, urteak pasata, sagar kontu hori gogoraturik, pentsatu zuen historian zehar lau sagar famatu aipatzen zirela. Horietako bi mundura zoritxarra ekarri zutenak. Eta beste biak, aldiz, adiskidetasun ekarleak. Aurreko bietan Adan eta Paris ibili ziren. Beste bietan Newton eta Fourier sartu ziren. Newtonek grabitazio unibertsalaren legea aurkitu zuen eta Fourrierren sagarrak bultzatu zuen atrakzio erakarpen apasionatuaren legea, zeinak hasiko zuen munduan zorientasun unibertsalaren aro edo garaia.

Honi eskerrak Fourier konturatu zen mundua eta zibilizazioa errotik bizioek ustelduta zeudela. Jainkoak kreatutako instintu eta pasioak naturalki onak eta harmoniatsuak dira ematen bazaie behar den egokitasuna. Horixe da Fourierrek ikusi zuena. Bera baita mundu sozialaren egiazko Kolona, eta Fourierrek berak esatea gustatzen zitzaionez: *Nire teoria, esaten zuen, Newtonen teoriaren jarraipena besterik ez da sexu atrakzioari buruz. Ni naiz bere jarraitzailea maila industrialean. Nire aurkikuntzak mundu osoarentzat balio du, iritzi bereizketarik gabe. Nire ikasleen artean erlijio guztietakoak dira. Ez diet konturik eskatzen beraien kredoez, zeren nire asmaketa nonahi aplikagarria baita, odol-isurle eta intoleranteak salbu.*

Izan ere, indibiduo zoroak dauden bezalaxe, planeta eroak ere badira. Hauentzat zoro etxerik balego hara bidali behar genuke Lurra gure planeta, zeren milaka urte badira gurean alferrrik galdu egin dela hainbeste denbora bolada luzea. Zergatik? Mende pila pasatzen utzi delako ezagutu gabe, jakin gabe pasioen legea edo atrakzioa, harmoniaren legea alegia, Fourierrek aurkitutakoa, lege giltza, ordura arte ezkutua, jainkoaren plana zena. Harmonia horren arabera, pasioen atrakzioak eskatzen duenez antolatu behar da gizartea, gizarte berria, mundu guztia aldatzeko. Esperientzia bat probatzea proposatzen du, sozietate eredu bat, txikia, falansterioa, zortziehun edo mila pertsonetakoa, horixe zen hain zuzen Fourierren aholku eta kontseilua pasioak analizatu ondoren. Bata-sun horretan alogerako, soldatako sistema alde batera utzi eta bere orde z irabazien legea ipiniko duena martxan, denak irabazien banaketan sartzen direlarik, langileak jabe bihurtuz eta enpresaren buruzagitza lankideok eramanez. Gutxieneko diru sarrera bizitzeko adinekoa izango litzateke, lana egiteko obligaziorik gabe. Falansterioko lagunen eginkizuna lurgintza izango da, industria lana bigarren mailarako utzirik.

Partaideak oro mankomunean biziko dira jauregi distiratsu batean. Fourierrek maiz esana zuen falansteriotan gastronomia zereginetan aparteko ugaritasuna eskainiko zuela, egunero sei zazpi bazkari plazerrezkoetan. Fourierrek desiratzen zuen falansterio bakoitzean sar zedila 810 konbinazio psikologikoetako bat behintzat. Dotrina horrek arrakasta estimagarria ezagutu zuen Alemanian eta Ingalaterran. 1843tik aurrera falansterioak sortu ziren Estatu Batuetan, guztira 236 komunitate, eta Kanadan ere asko. Mugimendu horiek denek oinarritzko printzipio zaharrak aplikatzen zituzten, hots, elkartasuna eta lan atsegina, interes orokorrak, ekimen bateratuak. European lehenengo falansterioa Errumanian eratu zen eta gero Bulgarian.

Fourier seguru zegoen berehala onartuko zela bere proiektua gizateria itxuraldatzeko. Fourierren sekretua zen lanaldi motzak egitea aldaketa ugariekin, lan libreko taldeen alaitasuna, janari eta edari nahikoa, aukera asko, falansterioek atsegin iturri amaigabeak izan behar zuten, xedea garbi zegoen: aberastasunak eta atseginak eskaintzea. Amodio mundu berriak sortzea guztientzat. Zein diferenteak falansterioko gizon zorionsua eta zibilizazioko gizon zoritxarrekoa! 1817an Fourierrek erabaki zuen Errusiako Tsarrari zuzentzea, munduko nagusitasuna eskainiz bere sistema hartzen bazuen, esanez falansterioetako lanari esker Errusiako eguraldia, klima eta guzti, aldatuko zela Italiako lurraldeetakoaren berdina eginez. Beste behin ere Jerusalemgo erreinua eskaintzen zuen diruz laguntzen bazioten falansterioen alde...

Hauek izan ziren Fourierrek idatzitako hainbat liburu, garrantzitsuenak edo:

“Lau mugimenduen eta destino orokorraren teoria”

“Nekazari elkartearen tratatua”

“Industria eta elkarteen mundu berria”

“Industriaren mundu berria”, “Amodio mundu berria”. Aipatu beharra dago utopia gehienak ez direla zeharo berriak. Orokorki lehengo beste utopia zenbaitzuen alabak izan ohi dira. Beren egileek behin eta berriz esaten duten arren beren buruetatik bakarrik, eta ez beste inondik, atereak direla, osotasunean berek asmatuak. Fourier pentsalari frantsesa horietako bat da. Bere pentsaketa indarra eta giza izaera sakona denek aitortzea desiratuko zuen, jakina. Fourierrentzat zibilizazioaren kritika sustraizkoa zen, oinarrizkoa benetan. Miseria gaitza sortzen baitzuen populazioaren kalteaz. Zoritxar bikoitza, gainera. Miseria, batetik, bizimodu penagarriagatik, jendea estu eta larri bizitza era eramaten zuelako. Miseria, bestetik ere pobreen pasioak beti asegabean uzten zituelako. Zibilizazio hori hobetzea engainu hutsa zen, gezurra, iruzur betea. Ez zuen konponketarik eta kito. Ez zen horretan denbora galdu behar. Zibilizazio delako hori egiaz presondegi bat da. Egin beharrekoa oso besterik baita. Kartzelako burdinak hautsi, ebaki, txikitu, urtu eta ihes egin korrika bizian.

Fourierrek ikusi zuen arroz tona pila zeramaten itsasontzi handiak uretara botatzen zituztela krisialdi gogor batean prezioak ez jaisteko. Eta krudelkeria itsu hori, errealitate ero izugarri hori, ekonomiaren sinbolotzat hartu zuen. Horrelako bat gertatzen zen ere egunero mota guztie-

tako bitartekoekin. Jentila alferra, zizareak, parasito antisozialak. Beren zeregina zen egiazko produzitzaileak zapaltzea, ezinbizian mantentzea, gizon helduak eta milaka haurrak esklaboak bihurtzea miseria madarikatuan kondenatuta. Salaketa horretan finkatzen zen Fourierren kritika. Pobretasuna bizioa baino txarragoa zen. Ez dago ukatzerik kritikatzaileak izan direla utopia guztiak. Utopien arteko antzekotasuna argia da. Maila denek berdintasun eta justizia gehiago eskatu izan dute mendez mende. Lanik egin gabeko irabazien kontrako kanpainak historian nabarmendu dira. Utopien antzekotasunari buruz zerbait gehixeago erantsi daiteke.

De Sade Markesa, 1740-1814, Fourier baino zaharragoa zen, 32 urte zituen azken hau jaiotzen zenean. Biak garaikide suertatu ziren 42 urtetan. Egia da De Sadek hogeita hamalau urte pasatu zituela kartzela ezberdinetan. Fama handiko pertsonaia izan zen, idazle txit ezaguna sexu gaiez, pasio nahaspiletan, amodio librea zabalduz atsegin argudioak erabiliz. Hori bai, Markesak askatasun neurrigabea zabaltzen zuen batzuentzat bakarrik. Giro aristokratiko jendearentzat jarduten zuen. De Sadek pentsatzen zuen sexualitatea nagusitasuna bezala, aginte itxuraz. Jainko sinestearen etsai amorratua zen. Berak publikatzen zuen atseginaren esku-bidea jabetzaren eskubidea baino lehenagokoa zela. Fourierren jokabidea De Saderena bezalakoa zen, grina, pasio, intentzio eta borondatez. Baina Fourierrek Jainkoagan sinesten zuen. Askatasun sexuala eta amodio librea predikatzen zuen falansterioko kide guztientzat, pobre eta aberats guztientzat. Denek merezi zuten libertate osoa. Esaten zuen bezala, “chassez le naturel il reviendra au galop”.

Naturala ukatzen baduzu korrika itzuliko da.

Jainkoak egin zituen pasioak, hauek errespetatu behar dira. Diferentziak gorabehera ez dugu ukatuko De Sade eta Fourierren joera berdineko asmoak zituztela hasieratik. Ahaztu gabe, ordea, Fourierren asmoak sozialismoaren barruan zabaltzen zirela. Honegatik hain zuzen ere sozialista pentsalarien artean Fourierren joera irizten zen sexualegitxo. Hala ere lizun usaina antzematen zioten. Sozialismo desbiazionista alegia. Fourierren kasua laburbildu nahiz esatea komeni da batasun soziala, langileen elkartasuna zela guztia. Horri helduz Fourier azaltzen da, alde honestatik behinik behin Frantziako iraultzaren etsai gisa, zeren Iraultza elkartzeko eskubidearen kontrako baitzen, sindikatuak galarazten zituenez. Beharbada mundu aldatzaile zenbaitek kutsu paranoiko pitin bat badute edo paranoikoak izateko arriskuan zeuden. Adibidez, aipa dezakegu utopiagile handienetako batekin, Fourierrekin suertatzen dena. Azter-

keta sozial zorrotzak egiten iaioa da, ongi dakigu. Bestetik, ordea, etorkizuneko irudi txundigarriak bururatzen zaizkio. Geroa profetizatuz esaten du bigarren eguzki bat agertuko dela, oso indartsua. Andaluziako klima ezarri lezakeena Europan, hots, berotasuna. Erokeriak direla, ez direla, hurrengo mendeetako errealitateak nola edo hala ikusten dituzte. Esate baterako, Fourierrek garraio liluragarri bat ikusten du etorkizunean. Hemen dugu bidaia zale adoretzu bat. Goizean irten daiteke Calaistik eta Parisen gosaltzen du. Eguerdian Lionen dago eta gauerako Marseillan topatzen da patxada ederrean. Zer gertatu da profetia horrekin? Bere denboran astakeria galantaren itxura zuen, dudarik ez dago. Baina Fourierrek erdi erditik asmatu egin zuen. Fourierrek iragarri, ikusi egin zuen orduan geroko automobila edo abiadura handiko tren izugarria.

### **Utopia. Hamalagarren saioa**

Cabet Etienne (1788-1856). Cabet industria produkzio-bide kolekti-boekin guztiz bat zetorren eta bera izan zen arte langileek bozeramailetzat zeukaten beren etorkizuna konfiantza osoz haren eskuetan jarriaz. Cabetek sinesten zuen aberats eta behartsuen arteko tirabira konpon zitekeela klase borrokarik gabe. Cabeten utopia indartsu agertzen da antolatzaile gisa kontsideratuz gero. Cabetek industria famatzen du eta aldi berean industriaren ahalmen iraultzailea. Seguru dago bere ideala edozein toki edo lurraldetan, edozein momentutan, eraikitzeko gauza dela. Pentsatzen du jende libreak onartuko duela, nahiz eta sakrifizioarekin, hiri berriaren beharra..

Uste du denek lagunduko dutela gizarte horretan gauzak hobeto egiten, lana atsegina gerta dadin. Jabetza guztiena izatea txit inportantea da. Lantegien erosotasuna beharrezkoa da.

Langileak animatzen eta pozten dituzten kantu ugariak, guztientzako lan berdintasuna eta lanaren iraupen moderatua ezinbesteko baldintzak dira. Utopia horretan gutxi dira zigorrak eta orokorrean nahikoa izan ohi da hutsegitea publikatzearekin. Cabetek ondo daki herritarren bihotza ukitzen. Ez alegia bertute berriak eskatuz, baizik eta ahal den ongizatea eskuratuz. Bere liburu “Ikariaren bidaian” itxuraz uharte soil bat besterik ez dakar, baina benetan zerbait gehiagorik ere badu ekartzen dudarik gabe. Utopia hau ustekabeko probalekua konplexua eta modernoa da, asmoak ere berriak baitira, hala nola hauxe da arau nagusia hau da: “Nori bere beharraren arabera, nork bere indarraren arabera”.

Herrialde proiektatuak ehun probintzia ditu, denak zabalera eta biztanleria antzekoak. Probintzia bakoitza hamar komunitatez osatzen da. Bizimodua guztiz antolatua dago. Lantegietako jarduera zazpi ordukoa da. Ezinbesteko uniformeaz horniturik egiten du lan. Komite exekutiboek aurrez aldetik ezarriak dituzte urtean nolako eta zenbateko ondasunak ekoiztu behar diren. “Ikaria” langile estatua delarik goiko ahaldunek gidatzen dute ekonomia erdiguneko Metropoli handi baten bitartez. Herriko buletin bakarra argitaratzen da, egunkari bakarra probintziako eta argitalpen bakarra estatu osorako. Borondate nazionalaren eusle jakintsu bakarrekin erabakitzen dute obra bat publikatu ala ez iraultzarako mesedegarritasuna ala eza aztertuz geroz. Ikuskizunen arduren gainean legearen espirituz ados daudenak zaindu behar dira, lagun adina etsai baititu aldi berriak. Marxek eta Engelsek idatzi zuten “Ideologia Alemana” liburuan utopikoek sistemak publikatu zituztela beren denborako espirituekin eta egileen izaerarekin. Batzuek idazteko dohaina zutelarik poesia graziaz aritu ziren. Baina Cabetek ez omen zuen xarma hori eta utopia argitaratu zuen negozio gizon batek bezala eta legegile baten maltzurkeriaz.

1847. urtearen erdi aldean El Havren “Ikariazale” talde bat ontziratu zen Atlantikoz beste aldera joateko, Cabeten kolonia bat fundatzeko asmoz Missouri ibai ertzean, Mississipira urak isurtzen dituen. Delako kolonia hori, “Ikaria”, Utahn kokatu zen. 1854ko uztailaren 21a zen. Langileen estatua izateko pentsatua zen. Ikariak 1895 arte bizia izan zuen. Bere porrotak erakutsi zuen ezinezkoa zela gizarte bat eraikitzea balio indibidualak ukatuz. “Ikariak” mende erdi bat iraun zuen zatiketaz zatiketa bere kideak ibili ondoren. Gatazkaren lehen arrazoia Cabeten dogmatismoa diktadura bihurtzean izan zen. Temakeria horrek iraultza latza sorrarazi baitzuen, amaiezineko eztabaidak azaldu ziren bi taldekoen artean. Azkenik batek lur jo zuen. Beste taldea Cabet 1856. urtean hildakoan zatitu egin zen. “Zaharrak” batetik eta “Gazteak” bestetik, iskanbilak nonahitik. Denboraz kolonia bera desagertu egin zen, fede faltaz batez ere. Zailtasunak gaina hartutakoan Kaliforniara baztertu ziren azkenekoak zeharo etsita. Errealitatean “Ikaria” gizarte txiki bat izatera murriztu zen. Egiatzko “Ikaria” Sena ibai ertzean aurkitzen zen, Frantzia perfektuaren irudi ideala islatuz.

### **Utopia. Hamabosgarren saioa**

Proudhon, Pierre Joseph (1809-1865). Gizateriaren historian agertzen diren utopiek adierazi egiten dute beren amankomuneko nolakotasuna:



koadroak dira, eta gainera, existitzen ez den zerbaiten koadroak, irudizkoak dira, irudimenezkoak, imajinazkoak. Baina hori ez da nahikoa horiek definitzeko. Irudimen hori, fantasia hori ez dago esaterik zehaztasunik gabe, helburu jakinik gabe. Sendoa da, tinkoa, ez dabil galdua, badu xede argi bat fantasia horrek. Zerbait hori desira bat da, irudi horretan ikusten den desira nagusia da izan behar duen zerbait, egileak nahi du desira errealitate bihur dadila. Gainera, utopiko irudigile hori ez da amets bat, ez da gauza pasakorra, berehala ahaztu egiten den horietakoa, badu sakontasun berezi bat, eta zuzenaren lehia da, zuzentasuna bilatzen du, ez indibiduoaren zuzentasuna, baizik eta giza komunitatearen zuzentasuna, guztientzako zuzentasuna, jarrera kritikoa gaurko munduaren aurrean. Denbora eta espazio perfektuaren irudia. Elkarrekin bizitzearen koadroa ordena zuzenaren bitartez. Etorkizunerako pentsamenduek eta asmoek soluzio bat behar dute, eta pentsamendu hori osotasunean utopian agertzen da. Aspaldikoa da Marxek eta bere lagunek sozialismo zientifikoa iragartzen eta sozialismo utopikoa zabaltzen zutenekoa. Horrela, bi sozialismo ikusten ziren abiadan eta aurrez aurre; sozialismo zientifikoa zen bitartean sozialismo utopikoa poesia zen.

Proudhonek, lehen liburutik bertatik auzitan ipintzen zuen oinarri-zeko kezka gaitza.

Zer da jabetza?

Eta erantzun txundigarria ematen zuen: jabetza da lapurreta bat. Baina, zergatik da lapurreta? Ba bidegabekeria galanta delako, erabateko justizia eza. Horren bidez jendea dirutu egiten da lanik batere egin gabe. Abusu horiei zor zaie aberats alfer asko agertze eskandalagarria. Jabetza da lapurreta guztien giltza.

Beste liburu batean, “Kontraesan ekonomikoen sistema edo miseriarren filosofia” tituluduna (1846), jabetzari ez zion egotzen hain oinarri erradikala. Oraingoan baditu jabetzak sustrai naturalak ere, esate baterako derrigorrezko garaietan ikusten den gauzen premian sortzen da halakoetan jabetza normala. Horrek arrazoia eman zion itxuraz Marxi Proudhonen kontrako liburua ateratzeko, alegia “Filosofiaren miseria” izenekoa. Dena den, Proudhon bera batzuen eta besteen aurka agertzen zen. Sozialismo zientifikoen aldekoa ez zela bistan da. Utopikoen kontra jarduten zuen aldi berean. *La voix du peuple* Proudhonen egunkariak 1850eko apirilaren 17an dei gogorra publikatu zuen Cabeten komunitate “Ikarien” kontra. Proudhonek gorrotatzen baitzuen ametsezko komuni-

tate pila. Blanc sozialistari eta honen aldeko ei adarra jotzen zien pozik edozein momentuan.

Era bertsuan, Proudhonek 1844an Saint-Simon eta Fourierren utopiek zituzten kontraesanak kritikatzeko zituen, esanez horiek agirian jarritzen zirenean ikusiko zela argi eta garbi sozialismoa politika besterik ez zela. Proudhonen formula hitz gutxitan bil daiteke: denok elkartuak eta denok aske. Batera kapitalismoa zentrotik kendu eta proletariotza zentroan ezarri. Goitik zetorren guztiari ikara gaitza zion. Askatasuna nahi zuen beti, oreka dinamikoa, federalismo eta mutualismoa. Berak esan ohi zuenez, ideia guztiak akastunak izaten dira. Kredo guztietatik gizateria askatu beharra dago. Helburuak hauek dira: gizonak makinaren morrontzatatik askatzea, kapitala langileen kontrolpean jartzea, hiritarren berdintasun politikoa finkatzea, hezkuntza publikoaren sistema errealitatean ezartzea.

Kapitalak eta lanak bat egindakoan, gizarteak berez irauten du eta orduan ez dago gobernu beharrik. Gobernuen sistema urtu egin baita sistema ekonomikoan. Hau da anarkia, gobernu eza. Hauxe da giza elkarre helduen ezaugarria. Anarkismoaren dotrina sortzen da ideia liberalak eta sozialistak bat egitetik. Liberalismotik hartzen du libertatearen gorespene, ekonomia naturalaren asmoa eta sozialismotik jabetzaren kritika. Anarkismoak bi dotrinok gainditu egiten ditu. Sozialismo gabeko askatasuna pribilegio gezurtia da, eta askatasun gabeko sozialismoa esklabotza izugarria. Askatasuna!, horra hor nire sistema, dio Proudhonek. Askatasuna denetarako, kontzientzian, prentsan, ekonomian, beti eta edonon askatasuna.

Proudhon da egiaz anarkismoaren modernoaren aita. Ez du nahi bor txakeriazko iraultzarik. Anarkia egiteko gauza den iraultza bakarra da bihotzena eta kontzientzien iraultza. Anarkiaren espiritu berriak ordena zahar usteldua suntsitzen du erabat. Egiazko berrikuntza ekintza iraultzaileak dakar. Iraultza da gizonen lana. Proudhonek dio erne egon behar dela iraultza ez dadin bihur erlijio dogmatiko berria. Borondate onez ikusten zituen batzuen eta besteen argudioak. Intolerantzia ez zuen inolaz ondo ikusten. Ez dugu geure burua egin behar erlijio berri baten apostolu. Aldakuntza nahi zuen noski, baina aldakuntza askatasunaren argitan, aniztasunaren argitan, pentsamenduaren heldutasunean. Beste inor ez bezala, Proudhon saiatu zen bihotzez eta kemenez bere garaiko errealitate sozialaren sekretua aurkitzeko eta lokarri guztietatik langileak askatzeko.

## Utopia. Hamaseigarren saioa

Morris, Williams (1834-1896). Morris diseinugile, inprimatzaile, poeta eta idazlea da, eta baita ere arte merkatuko berritzaile handia eta sozialista ekintzailea. “Inongo berriak” utopia liburuaren gainean idatzitako zati bat 1890. urtean publikatzen du. Aldaketa bat suposatzen du, itxuraz, sozialismo ezagunetik utopia nobelatura, pasarte modu bat. Morrisek maite ditu natura eta artea. Arteari dagokionez, eguneroko bizitzan desirak eramanik sentitzen eta kezkatzen duen sentimenduak behartzen du Morris paper pintatuak marraztera ere. Sozialismoak barren barrenetik bultzatzen du horren alde lana etengabeki egitera eta ekintzaile bizia bihurtzen du. Elkarte sozialista berri baten fundazioan ere agertzen da. Baina gero, desengainatuta utopia girokoekin elkartzen da injustizia soziala konpontzekotan.

Morrisen grina da langileak askatzea bidegabekeriatik eta batera itsukeriatik. Senti dezala langile bakoitzak poza eta atsegina bere eguneroko lanean, bizi dadila artistaren kreaziozko inguruan. Liburuaren gaiak oroitarazten du Mercieren 2440 obrarena. Izan ere, han eta hemen, 2440 lanean eta “Inongo berriak”etan norbaitek loaldi pisuak hartzen baitu urteetarako eta esnatzen denean aldaketa gaitzak gertatu direla ikusten du. Morrisek frogatu nahi zuen bere idealak errealitate bihur zitezkeela. Mendi giroa eta natura inguruak gauza onak direla hiri handietako bizieraren aldean. Ingalaterra Jerusalem berria bezalakoa izan daiteke. Hori ere eraiki daiteke eta, zioen. Morris estetika berri eta indarberriaren sineslea zen, tresna paregabea hain zuzen desiran zuen gizarte berria sorrarazteko. Etorkizunean kokatua, amets utopikoa, Ingalaterra eta mundua egoera hobean jartzeko.

Lo hartutako arrotz hori esnatzean konturatzen da ekonomia deszentralizatua dagoela eta unitate txikitan funtsatua. Jendea ere aldatu egin da. Gizakiak ez dira berez erasotzaileak, ez agresiboak. “Inon”en ez dago gobernu zentralik. Ez dago esplotaziorik. Biolentzia desagerrarazia da. Lan kontua ere oso bestelatu dago. Bakarrik eskulana da jende ona egiten duena. Makinismoak, aldiz, gaiztotu egiten du, infernua da eta. Lanaren amodioa ikusten da. Lan maitasunak zabaltzen du kapitalismoarekiko gorrotoa. Horregatik produktua gauza itsusia da, ezinbestez humanoak jasandako bidegabe eta sufrikariorik jaioa delako. Morrisek nahi du langile bakoitzak sentitzea atsegin eta poztasun bat, herria aske eta alai bizitzeko ahalmena bere arte kreazioan izan dezan. Bestela sozietate osoa eta mende osoa ere zoritxar orokor horren errudun gertatuko da.

Baina berak proposatutako aldaketak errespetatzen badira, guztiz bestera noski, hobera. Jendea artzain giroan ariko denez, patxadan biziz, ez baita aberatsik ez behartsurik, berdintasuna jaun eta jabe besterik ez. Lana egitearen poza arte bezala sortzen da herritarren bihotzetan. Guztien gogoetan bizi baita edertasun irrika. Horixe da lan librea, saio estetiko, artisten eginkizuna, zorion iturri paregabea. Lur aske honetan bizilagunek gazteagoak dirudite. Begi-bistan dago zoriontsuen artean nekezago zahartzen dela. Denek inbidia ematen dute. Emakumeek soineko alai koloretsuak janzten dituzte. Jende arrunta oinutsik ibiltzen da nahi duenean. Haurrek aukera dute ikastera joateko nahiz ez joateko. Morrisen munduan badago erlijio berri bat, gizateriaren erlijioa. Gizaki guztiek elkar maiteko dute eta langileen bizi maila ezin eta gorago bultzatua izan da, zeren giza kontzientzia salbatzeko era ikusi ahal izan baita. Londreseko auzo narrasena desagertu egin dira, horien ordezkari parke ederrak ikusten dira, museoak berriz ugaitu, bizimodu ederra aske eta zoriontsu arteari esker.

### **Utopia. Hamazazpigarren saioa**

Henry David Thoreau (1817-1862). Utopikoa ez bazen ere zuzen zuzenean, utopiaren aita eta inspiratzaileetako bat izan zela esan daiteke. 1817an jaio zen, uztailearen 12an, eta 1862ko ekainaren 23an hila; beraz, 44 urte, 11 hilabete eta 23 egun bizitua. Biriketako gaitzak ez zion utzi 45. urtea osatzen. Tolstoi eta Gandhiren mugimenduen aitzindaria gertatu zen. 1849. urtean “Desobedientzia zibila” saiakera liburua argitaratu zuen, lan tekniko ederra hain zuzen, eta Gandhiren iritziz lan magistrala. Thoreau mundu guztian famatua izan zen, batez ere “Walden edo basoetako nire bizitza” liburuagatik, ingelesez *Walden or life in the woods*, 1854an argitaratua. Skinner jakintsua titulu horretaz baliatu zen 1968an “Walden bi” idazki utopiarekin, zeinean argi eta garbi agertzen diren Thorearen pentsamenduak. Thoreauk *Waldenen* hartu zuen izena Conordeko (Estatu Batuak, Massachussetts) basotik eta hantxe kokatu zuen bizitegia natura betean gozatzeko.

Esklabotzaren etsai amorratua zen eta antiinperialista gogorra. Zer-gak ordaintzeari uko egin ziolako gau bat giltzapean pasatu behar izan zuen. Bere hitzetan gezurrezko gizalegetik kanpora bizi nahi zuen, lege mota horrek pertsona bihurtzen duelako bere tresna propioen tresna. Thorearen asmoa zen natura betean eta bakartasunean irautea, behar ez zen jabetza saihestea eta gobernuaren kontra borrokatzea, ez baitzi-

tuen inolako zergak onartzen. Hona hemen bi zati nabarmen zituen bere liburutik ateratako hainbat uste, ideia eta esamolde:

-Jakitea dakiguna dakigula, eta ez dakiguna ez dakigula.

-Zure bizibidea lortzea izan dadila zure jolasa, eta ez zure lan eta nekea.

-Goza ezazu lurraz, baina ez ezazu erosi.

-Gure bizitza osoa moral harrigarrikoa gertatzen ari da.

-Bertutea eta bizioaren artean ez dago atsedunik.

-Ontasuna sekula porrotik egiten ez duen inbertsio bat da.

-Saia zaitetz egiten jendeak ezinezko jotzen duena eta erakutsi baietz egin daitekeela, zuk zeuk ahal duzula.

-Antzinako filosofo txino, persa eta grekoak kanpotik berdingabeko pobreak ziren eta aldi berean barruko aberastasunean ere sekulako berdinik gabeak.

-Nork bere bidea aurkitu eta segitu behar du, eta ez bere aitarena, amarena edo auzokoarena.

-Guk geure kuraia transmititu behar dugu, ez geure etsipena.

-Orduan nire baitan topatu nuen eta oraindik ere topatzen dut biziera goitarrago edo espiritualago bat, eta bestetik topatzen dut gizon primitibo edo basatiaren irudia. Eta nik errespetua diet bi sen horiei.

-Thseng-tseuk aldarrikatzen duenez: arima ez baldin bada bere jabea, batek begiratzen du eta ez du ikusten, batek entzuten du eta ez du ulertzen, batek jaten du eta ez du bereizten elikagaiaren zaporea.

-Gizonak, bere buruaz pentsatzen duenak, erabakitzen du bere destinoa.

-Gizon batek fedea badu besteekin lan egingo du edozein tokitan. Federik ez badu besteen bizimoduari lotuko da.

-Bizi zaitetzte aske, eta ez konpromisoez lotuta, posible duzun bitartean. Axola gutxi giltzapean zareten landetxe batean edo herriko kartze-lan.

-Basoetara joan nintzen borondatez libre bizi nahi nuelako bizitzaren egintza funtsezkoenak.

-Erraztasuna, sinplifikazioa. Biziera xumea maite dezagun.

-Biziera zikoitza daramagu gure ikusmenak gauzen azala besterik ikusten ez dugulako.

-Denbora da arantzaz egiten dudana ibaia.

-Hilkorrak gara, baina egiarekin tratatzen dugunean hilezko bihurtzen gara.

-Gizaki batek baino gehiago ireki du bere bizitzaren aro berri bat liburu baten irakurketatik.

-Mundu oso hau espazioan puntu bat besterik ez da. Zein distantzian bizi dira izar haren biztanle urrunenak?

-Inoiz ez genuke txantxetan ibili behar zintzotasunarekin. Inoiz ez genuke isekarik egin behar besteei buruz gure maltzurkeriekin.

-Egiazko Amerika bakarra da batek askatasuna duena dagokion bizi-moduan irauteko.

-Bizitzari eustea izan bedi zure jolasa, ez zure lana eta nekea. Goza ezazu lurraz, baina ez erosi.

-Natura guztiak bedeinkazioa merezi du.

-Balio eta irabazi jatorrenak ez dira merezi bezala estimatuak.

-Maite ezazu zure bizia, pobre izan.

-Saldu zure soinekoak eta gorde zure pentsamenduak.

-Eta abar eta abar...

Thorearen askatasun ideala desiragarria zen eta ikusi bezala, mundu osora iritsi zen indar bereziz. Nork ez du nahi libre, bere jabe, aske izan, bere buruaren nagusia beti benetan azaldu? Eta ahal delarik holako gizarte klase munduan ezarri?

### **Utopia. Hemezortzigarren saioa**

Skinner, Burrhus Frederik (1904-1990). Skinner Harvard Unibertsitateko Psikologia irakaslea izan zen eta planeta osoan famatua. Batez ere bere "Skinnerren kaxa" delakoagatik baldintzadun zientifikoan oinarritua. Liburu bat publikatu zuen *Walden* izena hartuz, lehen Thoreauk ezagutze-

ra emana. Skinnerrenak “Walden bi” zuen izen osoa, nobela utopikoa, utopia kreatzaile bihurtu zuena Skinnerrek.

Horrela esaten zuen: “Elkarte berri bat sortu dugu, Estatu Batuetan askatasuna zabaltzeko”. Komunitate hori ez zen primitiboetako, jatorrizkoa. Hain zuzen horretatik zetorkion bere originaltasuna. Komunitate hori bere denboran ezagutza zientifikoen arabera pentsatua zegoen psikologia sozialaren esparruan. Skinner behaviorismoaren aldeko elementu guztiz nabarmentzat ikusia zegoen. Doktrina horrek kontsideratzen du gizona ez dela bete-betean bere buruaren jabea. Eta inguruaren influentziek, alegia giza organismoa eta honen ahalmen eta gaitasunak behartu egiten dituela. Gizonaren gogoa aldatuz. Lurra kosmosaren zentroa ez dela aitortu behar izatea ez da samurra gertatu. Orobat pentsatzea dagokigu itxuraz gizonaren eboluzioaz kate maila bat besterik ez dela biologia jeneralean. Zientzialari asko ez dira giza askatasunaren aldekoak. Skinnerrek gainera beste liburu ezagun bat ere idatzi zuen, “Askatasunaz eta duintasunaz haraindi” izenekoa. Horretan zioen gauza zaila egiten zitzaiola imajinatzea beste mundu bat non jendea ez dabilen bere artean etengabeko borrokan eta elkar hiltzen. Ikuspuntu horretan Robert Owenek argiro ulertu omen zuen ingurumenak sortzen duela egiazko kontrola gizakien jardun eta ibileretan.

Pertsona, izan ere, gehiago da noski beste animalien artean, baina bera ere orobat analisi zientifikoaren mende aurkitzen da. Halere, gizonari buruzko iritzi zientifikoak posibilitate zoragarriak eskaintzen dituela ez dago ukatzerik. Oraindik ikusteko baitago humanoak zer egin ahal duen bere kidearen alde. Dena den, “Walden bi” obra polemikoa gertatu zen.

Ez alferrik guri-guri zeuden gaiak planteatzen baitzituen, hara nola familiaren krisia, askatasunaren problema, demokraziaren bideragarritasuna eta abar, gehienetan jarrera iraultzaileak agertzen zituelarik. “Walden bi”k ukitzen zituen arazoak prisma berri baten argipean erakusten ziren. 1948an idatzia izan zenez gaiak berak ere zahartu egiten dira. Hogei urte ondoren egileari galde egin zioten: “Zure obra idatziz geroz bigarren munduko gerra sufritu egin behar izan dugu. Ordudanik aurrerapen zientifiko inportanteak ikusiak gara, beste gertaera larriak ere bai. Artean lan horrek ez ote du gaurkotasuna galdu? Indarrean ote da oraindik bere mezua?” Eta B. F. Skinnerrek honela erantzun zuen bere gutun batean 1967-9-14an: “Uste dut bere oinarrizko printzipioak arrazoizko izaten segitzen dutela. Uste dut balio ahal izan dela bere pertsonak

bultzatzera kritikoki aztertze bere kultura propioa eta hobetzeko posibilitateekin pentsatzera”. Literatura utopikoan diseinu kulturalerako sail bat aurkitzen dugu. Egile utopikoek deskribatu dituzte beren irudiko bertzioak bizitzea zoriontsuaren gainean eta lortzeko metodoen gainean.

“Errepublika”n Platonek hautatu zuen soluzio politiko bat, Tomas Morok eta Francis Baconek, biak abokatuak, legeari eta ordenari itsatsi ziren. Rousseauk XVIII. mendean ustezko ontasun naturalera jo zuen. XIX. mendeak soluzio ekonomikoak hobetsi zituen eta XX. mendean berri ikusi izan ditu utopia konduktualak dei genitzakeenak. Batzuek ikasten dute besteengandik eta alderantzira. Etxea ez dago haserre ikastolarerkin eta kalearekin, erlijioak ez du gobernuarekin gatazkarik eta horrela. Beharbada eskema utopikoaren ezaugarri garrantzitsuena da, komunitatearen iraupena bihur daitekeela baliozko gauza bere biztanleentzat. Zenbait asmo utopikoak proposatu izan dira mila eta bostehun urteetan eta esfortzu gehienak errealitatera eramateko porrot izugarrietan bukatu izan dira. Baina Historiaren erakuspena beti egon izan da edozein berrikuntzaren aurka. Eta baldin ekonomia planifikatuak, borondate oneko diktadurak, sozietate perfektzio zaleak eta beste abentura utopikoak kale eginak badira, kontutuan ere eduki dezagun galdu ere egin direla kultura ez planifikatuak, ez behartzaileak.

Porrot bat beti ez da hutsegite bat. Gerta daiteke, soilki, ahal zen guztia egin dela. Egiazko hutsegite eta okerra dena da ahalegina ez egitea, ez saiatzea, errenditzea. Gauza zailen eta ez hain zailen aurrean, beti amore ematea, berehala errenditzea.

Berehala errenditzea.

Hauxe bai dela txarrena.

## **Utopia. Hemeretzigarren saioa**

Utopia... antiutopia...

-Victor Hugok esana: Utopia biharko egia da.

-Leninen hitzak: Utopia burokratiko bat bihurtu gara.

-Oskar Wilderenak: Begiratu bat ere ez du merezi mapamundi batek Utopiako Herrialdea ez baldin bada bertan topatzen.

-Blochenak azkenik: Gizona utopia duen izakia da.



Seguru dirudi, mundua leku ez perfektua den bitartean utopiak izango dituela, izango direla zeinetan agertuko diren mundu garbiak edozein inperfekzioetik. Eta baita ere seguru dirudi mundu inperfektua den bitartean beti izango direla antiutopiak, zeinetan gaur egungo inperfekzioak handiagoak izango diren munduan. Oso aspalditik utopiak eta antiutopiak lagun handiak izanak dira. Utopia eta antiutopia antzeko paisaia da argi ilunean. Antiutopia ez da izan Aldoux Huxley eta George Orwellen asmaketa bat. Gutxienez Platonen denborakoa da. Aristofanesen “Emakumeen Asanblada”n zehazki irakur daiteke utopiaren kontrako iseka lotsagabe askoak emakumeen botoaren gainean. Mororen garaiko Utopia famatuak bide eman zuen burla, parodia eta utopia satirikoak egiteko.

Utopia guztien barruan bizi baita antiutopia bat ere, eta alderantziz esan behar da edozein distopiaren edo antiutopiaren bihotzean taupadaka ari dela utopia ezkutu bat. Utopia itxaropenaren promesa bat da, esperantza utopiaren iturria da. Esperantza eta utopia mugakide dira. Utopiak absolutuak direnean totalitarismoa gora doa eta derrigorrezko iritzia izatera heltzen da, denak ados, konforme egoteko lege gogorra, diktadura bat. Ahobatezko dialektika ofiziala. Horregatik Garaudyk bazuen susmoa utopia denen atzean ez zegoela bakarrik itxaropenaren printzipioa, inguruan zebilkiola absolutuaren malenkonია, irrika eta itzala ere.

Bere “Zibilizazio berri bat” liburuan konklusioak ateratzen ditu aldakuntza nabarmenak eskatuz, baina garbi utziz ez direla inolaz ere utopia tipokoak:

- Bere proiektua garaiko joeren mugimendu errealean erroturik daudelako ez da gauza utopikoa.
- Bere proiektuak ez du zerikusirik utopiarekin. Gaurko egunean utopia txarren eta irrealena dena da *statu quo* delakoa eta bere antzeko ideia beldurriak.
- Azkenik, bere proiektua ez da utopikoa pertsonak ahazten ez dituelako.
- Proiektu hau pertsonaren kontzepzioan oinarritua dago...

### **Utopia. Hogeigarren saioa**

Marcuse, Herbert (1898-1979). Marcusek 1967an “Utopiaren amaia” titulu zuen liburu bat publikatu zuen. Ez zen lehenengoa noski, ordurako

pertsonaia ezaguna zen egileen artean, liburu garrantzitsuak zabalduak zituen aurreko urteetan, baina hau zen gure garaiari zuzenki eskainia. Utopiaren bukaera hori ondo ulertu beharrekoa da. Marcuseren estiloari dagokiona baita. Liburua ez zen utopiaren kontrakoa. Ezta pentsatu ere. Marcuse utopiaren alde ari zen lanean.

Adierazten zuen gauzak beste itxura bat hartzen zuela garai hartan, alegia, utopia ez zela jada burla egiteko motibo bat, eta mendebaldeko gizartean, eta horrenbestez, mundu osoan, aurrerapen maila teknologiko eta produkzio gaitasunari buruz iritsia zela konpetentzia eta horrela, ziurtasun osoz, ekonomia menderatzea eta beraz, gizartea erabat aldatzea lortuko zela. Beraz, lehen ezin zena egin, lehen utopia bezala edukitzen zena orain egin zitekeen, lehen utopia zena ez zen gehiago utopiarik, utopia bukatuta zegoen, orain errealitate bihurtua zegoen aurrerapenari esker. Hori zen Marcusek zioena. Lehen utopia zena, orain errealitate egiteko prest zegoen humanitatea, horrenbestez hori da egin behar zena. Ez utopiarik, baizik eta aldakuntza ekonomian ezarri gehiago luzatu gabe, gehiago itxaron gabe, Esplotaziorik ez.

Justizia eta aurrerapena. Gizarte berria nagusi.

Hogeigarren mendean zientzia eta teknologia elkarrekin egiazko baka ekartzeko gai saiatu zen buru-belarri Marcuse. Utopiaren amaia, paradoxa askatuz. Faktore material eta psikikoak gertu bazeuden iraultzarako, salto egiteko askatasunerantz nola hau guztia ez zen gertatu? Berak bere buruari egindako galdera erantzuteko, Marcusek esan zuen gizarteko indar guztiek jardun zutela iraultzarik gerta ez zedin. Marcusek berriz pentsatua zuen lehenago iraultza sozialaren fabrikanteak osatuko zutela iraultzaren abangoardia indartsua... baina ez zen horrelakorik gertatu. Gizonek ez zuten ireki bide berria sozialismo zientifikoaren bila, askatasun aro berrirako. Utopia guztiak mendebaldean egiteko bezalakoak ziren beren sistemen barruan. Ez ziren gaitasunak falta zirenak. Marcuse berandu konturatu zen kontraesan ekonomikoak eta herritarren gogoak zirela aldakuntzarik uzten ez zutenak. Marcusek pentsatu zuen orduan askatasun berri batean. Zein izango litzateke utopiaren beizgarria utopiaren amaiaren ondoren? Utopia berri bat.

Jokoan zegoena industria berri bat zen, hiriak bestela eraikitzea, kapitalista moduko industrializatzea erabat uxatzea, birrintzea.

Bestelako teknokrazia garbia, kapitalismo gaitzetatik aldentua. Eta horrela, pentsamendu utopikoaren bilakaeran Marcuse profetiko bat

izango da historian azalduko dena. Marcuse bihurtu zen ikasle mugimendu baten filosofo gidaria eta etorkizunaren profeta edo igarle antzeko bat. Teknologia berri hori ondasun absolutua bezala ikusia izan zen. Jende gaztea nazkatuta geratu baita teknologia inhumanoaren erruz eta askorentzat Marcuse agertzen da beren desira eta kezka gordeen interprete zaharraren tankeran.

## **Utopia. Hogeita batgarren saioa**

Antiutopiak.

Huxley, Aldous (1894-1963) eta Orwell, George (1903-1950).

Bi idazle horiekin antiutopiak bolada ona izan zuen. Huxleyk 1932an “Bai Mundu Berria” (*Brave New World*) liburu ironikoa idatzi zuen, pentsamendu utopikoaren puntu larri bat ukituz, indibiduo eta gizartearen arteko harremanena hain zuzen. Teknika makinistak arriskurik gabe handiena dira askatasunarentzat. Efizientziaren kultura baita totalismoaren bidea.

Estatu totalitarioa dago agintean. Buruzagi politikoen komite eragileak esku zorrotza dauka populuaren gainetik. Jendea behartu beharrik ez dago, jaiotzetik herritarrek maite baitute morrontza. Egileak horrela adierazita, hau da hain zuzen liburuaren mezua eta ardatza. Alabaina, nobelaren sarreran Huxleyk dioenez, erbesteratuek ihes egin dezakete “Bai Mundu Berria”tik gizarte humanoago bat fundatzera, aurrerapen teknikoak onetsiz. Baztertu gabe izaki humanoaren duintasuna. “Bai Mundu Berria” akatsik gabeko unibertsoa da, dena kristal eta nikel, zein indibiduo baldintzatuak zientifikoki helduz gero bere probetetan zoriontsu aurkitzen du bere burua. Utopiako biztanleak seguru sinesten du naturaren arrakastaz, gaitza garaitzeaz, horrela betetzen direlarik hor bizi diren pertsonen ametsa. Aldous Huxleyk bere obran ukatzen ditu harreman sexualak, hau ametsarena amaieraino doa, geroko belaunaldiak probetetan jaiogaraziz: haurgintza iruditzen zaie lizunkeria harrigarria eta hori aipatzea bera debekatua dago eta orobat “ama” izena ahotan hartzea ere.

Baliabide zientifikoak erabiliz falta zen iraultza lortzen dute, hots, indibiduo baldintzatuak. Aristotelesekin eta Platonekin bilatu izan zuten intzestuen irtenbidea aurkitu dute probeta haurren bidez. Orwellek 1945ean “Iraultza abereen etxaldea” publikatu zuen bere burua horrela famatua eginez. Baina mundu guztian ezaguna egin zuen bereziki 1984

liburuak, 1948an idatzia, 1949an salgai jarria eta arrakasta fantastikoa eman ziona.

1984 liburua ez da erraza behar bezala ulertzen. Izan zen, esan zuenik Orwellek bertan egin zuela Alderdi Laboristari buruzko satira bat. Moskuko “Pravda”k agertu zuen liburuak Estatu Batuetako kritika egiten zuelarik. 1984k “Abereen etxaldea”ko asmo gehienak bai hartu egiten ditu, baina sobietar girotik atereaz eta Ingalaterran kokatuaz. Orwellek ukatu egin zuen publikoki Amerikan bere liburuak Laboristekin zerikusia zuenik. Baina aditzera eman zuen ere gerra bitarteko ekonomia zentralizatu guztiek komunismoaren eragina zutela. Hori hanka-sartze izugarria izan zen Orwellen ezpainetan. 1984 liburuan gobernuko goi funtzionarioa den Winston Smithen historia faltsutzeko lana du, historia berridazteko zeregin berezia, partiduak nahi duen modura aldatuz. Joandako denbora da partiduak nahi duen bezalakoa. Igaroa da inportantea, ez geroa. Holakoa da “Anai Handia”.

Alderdiaren esloganek dute indarra: guda da bakea, askatasuna da morrontza, ezjakitea da indarra. Orwellek ez dio bere buruari galdetzen horrelako gizartea posiblea ote den. XX. mendean bizi direnek ongi dakite horixe. 1945ean egoera kaltegarriak agudotu zuten Orwellen emaztearen gaitza eta egun gutxitan hil egin zen. Orwellek lana bukatu nahi izan zuen sozialismo sobietikoaren mitoarekin, mito horren aurka gogotik jardun zuen eta iraultza guztien ideien aurka ere. Orwellek bilatzen ez zuen arren itxaropen asko lurreratu zituen, adieraziz pobreentzat irteerarik ez zegoela inondik ere. Huxley eta Orwell pesimista gaitzak ziren.



## IV. GEZURRETAN

### **Gezurretan. Lehen jarduna**

Utopia kolektibo ezagun batzuk jorratu ditugu azkenaldian, bide batez utopien aurkako joerak ere aipatuz. Mota guztietako pertsonak gaudenez gero gizartean, izango dira asko tokatu zaien edo orain duten bizimailarekin konforme edo etsita daudenak. Hori noski bistan dugun errealitatea da, egunerokoa dugu. Egoera horretan bi bide aurkezten zaizkigu, gauza ezin eta logikoagoa denez.

Lehenengo bidea: Jator eta zuzen bakarra, biziera berri baten bila abiatzen da, bertan geratua naiz kanpora aterata. Bigarren bidea, egiazko aldaketarik eskatzen ez duena, baizik itxurazko aldaketan geratu egiten dena. Pentsamendutan agortu egiten dena. Imajinazioak egiten du lan. Irudipena da martxan hasten dena. Ametsak. Desirak. Asmoak. Gogoak. Baina dena barrendik batez ere. Utopia partikularrak izaten dira. Nahikunde bereziak. Horretara joko dugu denbora galdua ez, probetxugarria bai izango delakoan. Horrelakoak filme eta telebisten erreinua antzetzten dute ugaritasunean nahi adina. Hortxe ikasi genuen aspaldi ez dela itxurretan sinistu behar. Irudipenak direla antz horiek, engainagarriak besterik ez. Fantasiak. Oroi gaitzezen pelikula haietaz. Batek besteari nola eskatzen zion esateko mesedez. Oraindik maite zuela jakin arren egia ez zela. Askok gustura hartuko genuke gezur goxo bat geure belarriz entzutea, “maite nauela oraindik” pentsatzea. Itxurakerietatik juzgatzea, ordea, gauza negargarria eta arriskugarria ere maizegi ohi da. Holako bat gertatu zitzaion orain asko ez dela dominak paparrean erakusten ibili beharra zuen bati. Tentazioan erortzen zen mutila. Banitateak mende zeukan. Gure Pierre bihoztuna familia ederraren nagusia zen, hiritar ongile bat, itxuraz. Erabat tipo jatorra izango zen buruhauste harengatik izan ez baten. Zein buruhauste gero? Dominen buruhauste handia. Urteurrenak, oroitzapenak, desfileak gogotik itxaroten zituen. Jai horien zain egoten zen etengabe bere dominak erakusteko, agertzeko, frogatzeko.

Etxekoandreak bazekien bezperatik zer zetorkion gainera. Gizona bapo janzteko zeregina. Eta batik bat, jakina, dominak txukuntasunean prestatzeko lana. Domina bedeinkatuak! Berriro guztien aurrean azalduko baita gure Pierre maitea, harro asko, karrikak dominatzera. Bere balentrien froga argia bertako eta kanpokoentzat. Baina gauzak nola diren! Azken desfile horretan zurrumurru maltzurak entzuten hasi ziren han eta hemen Pierre eta bere dominen kontra.

Maiseatzaileak xuxurlatzen zutenez, agertutako dominak ez ziren legezkoak eta gutxiago merezitakoak. Zirudenez, inork ez zuen Pierre eza gutzen gerra garaiko soldadu konbatiente gisa. Protestanteok jo zuten ingurune ofizialetera eta ondorioz jakin ahal izan zen militar elkartearen presidentek frogatu zuela Pierreren izen-deiturarik ez zela inondik ere azaltzen bazkun- artxibategietan.

Orduan deitzen zaio domina erakusleari jakin dezan bere aurka epe-rik gabe sartuko dela salaketa ofiziala. Pierrrek hasieran ukatzen du kargua, baina txantxetako kontua ez dela berehalakoan ikusiz berandu gabe egia aitortzen du.

Desegina, malkotan urtua, belaunikaturik, arren eta arren, erreguka, barkatzeko eskatzen du, laguntzeko, salbatzeko. Ez Suzanne andreak, ez seme-alabek, ez zekitela ezer, pentsatu ere ez zutela gezurka ari zitekeenik. Zergatik kutsatu zen saltsa zikin horretan galdetu ziotenean zera zioen, berak ere ez zekiela erantzuten zuen, berak ere ez zekiela errepi- katzen zuen, diruagatik ezetz, harrokeriagatik akaso, norbait bazela au- zoan agertu nahiaz edo... Domina batzuk engainuen bidez beretu omen zituen, imitazioak landuz beste batzuk, eta batik bat berak inoiz aipatu ere egin ez zuen bere anaia zahar Benoitek frenteko ekinaldietan lorturi- ko ohore dominak, ondoren zerbitzu militarrean jarraituz azken ofentsi- ban bizia galdu zuen amaiazen ohore dominak. Horra, ba, Pierre gizona jostailu huts bihurtua. Negargarria benetan. Itxura egarri madarikatua- gatik jendea hondatu eta erabat erotu nola egiten den!

### **Gezurretan. Bigarren jarduna**

Hegoaldeko geriatrico zaharren egoitza batean bizi izan zen hogei urtez bere anaia. Hura hilda gero ikusi zuen haren kontuan dirurik ez zela geratzen batere, eta bertako zuzendariak kopuru bat erretiratu zute- la heriotza gertatu ondoren. Orduan familiakoak hasi dira ikerketak egi- ten eta zer aurkitzen dute? Egoera nahasia egoitza horretan, beste kasue-

tan ere. Zahartegiaren zuzendarien arazoa argi jartzean topatzen dute frantziskotarren abitua daramaten arren ez direla benetan fraideak. Gauza konplikatzen ari da, argi eta garbi azaltzen baita apaizak ez direla, apaiz faltsuak baizik. Beste herriak sinisterra, urte batzuk lehenago salaketak agertu ziren sexu abusuak zirela eta. Gainerakoan, ordea, jakiten da beren kontura prozesioak eta horrelako funtzioak antolatu zituztela nabarmenkeriaz jokatu.

Maila handieneko zuzendaria beste arazotan ere sartua zegoen, lurrak erosi eta saldu, ganadu tratutan ere ibilia zela, beste negoziotan interesak ipiniz eta abar probintzia diferenteetan. Ematen duen eran, gauza ilun horietan egindako inbertsio ugari egoitzan izandako zaharren diruarekin eginak izan litezke, engainuen bidez lortuak.

Zentzu honetan agiri eta frogak nahi adina bildu dituzte. Zer gerta ere kartzelan sartua izan da harreman susmagarri horien guztien egilea eta hortik aurrera zer datorren ikusiko da. Zaharren egoitza txukuna zen edozein moduan ere.

### **Gezurretan. Hirugarren jarduna**

USAko Estatuak Denver du hiri nagusienetako bat. Denver honetan bada gertatu zen orain kontatzera goazena, Helioko globo handi bat, aireontzi bat, igo zen kontrolik gabe mendien gainetik eta hor zebilen haizearen eraginez zeharka noraezean hodei eta laino artean. Estatu Batuetako telebistak globo horren irudiak emititzen ari dira, eta mundu osoan albistea zabaldu da globoan sei urteko mutiko bat bertan doala, gurasoak jakin gabe noski, globoan sartzea lortu ondoren. Polizia, bonberoak eta abiazioko zerbitzuak salbatzeko logikoki saiatzen dira bitartean. Gurasoak estu eta larri mirari baten esperantzarekin bizi dira. Horretaraino iritsi dira informeak.

Baina zorionez gertaerak bestelakoak izanak dira. Globoa puztua zegoen ez helioez, bai gezurrez. Coloradoko senar-emazteak, alegia, umearen gurasoak, fama egarriak eraginda ibiliak ditugu. Dena beraiek asma-tua izan dela aitortu baitute. BBCk informatu duenez, biek onartu dute salaketa faltsuko kargua eta kartzelako hilabete zenbaiten zigorra ikusten dute aurrez aurre. Eta semea? Zertan da? Arriskuan al dago? Mutikoak ez zekien ezer globo, edo sasi-globo, horri buruz. Etxeko trastelekuan ezkutaturik zeukaten. Jostaketan ziharduen bere txokoan lasai ederrean. Gezurrak hego zabalak izaki.



## Gezurretan. Laugarren jarduna

Gezurrak sustrai sakonak baditu alderdi guztietara giza izaeran, hori da legea eta kazetariak ez dira salbuespena. Kazetaritzaren gezurra horrenbestez soro ongi ongarritua da komunikabideetan, zelaigune landua estatu aurreratuenetan bereziki. Eremu horretan, jakina, erabateko gehiengo zintzo eta fina, egiaren zerbitzari leiala eta lege gordetzaile amorratua. Beraz, giro horrek ezin eta gehiago nabarmentzen ditu gezurtia eta bere bidegabekeriak altxatzen direnean.

Holako bat gertatzen da Tomasso Debenedetti italiarrarekin. Berberak aitortu baitzuen: “Gustatzen zait Italiako gezuraren txapelduna izatea”. Elkarrizketa faltsuen egilea izan zen. Nobel saridunak, idazle famatuak, Dalai Lama, Gorbachov, Chomsky, Joseph Ratzinger hizketatu zituen irudimenez edo imajinazioz kazetari horrek eta gero noski publikatu egiten zituen. Gezurrezko hizketaldien zerrenda luzatu zen ederki, laurogeitaraino iritsi zen eta.

Biktimetako bat Derek Walcott dramaturgoa izan zen. Egun batzuk geroago Philip Rothek iruzurra argitara atera zuen. Kazetari batek galde-tu zion ea zergatik galdu zuen bere fedea Obamarengan. Orduan Rothek ukatu zuen hori esan zuenik eta orobat Debenedetti ezagutzea ere. Elkarrizketa faltsuen egile hori garai hartan gertu egon zen Madrileko *El Pais*ekin hitz egiteko. Lehen esan berria zuen hizketaldi haietako batzuk errealak zirela. Eta oraingoan aldiz dio ezetz, hizketa guztiak faltsuak zirela, alegia berak asmatuak eta kito. Zehatzago mintzatuz guztia joko bat zela. Kazetari hau Erroman jaioa zen 1969. urtean, ezkondua eta bi semeen aita, italiara eta historia irakaslea, literatura kritikari ospetsuen seme eta biloba. Debenedettik aitortzen du pozik dagoela berak egindako lanarekin. Molde berri bat asmatu duela uste du eta elkarrizketa eta faltsu berriak publikatzea espero du, gero guztiak liburu batean biltzeko asmoz. Galdera: zu kazetaria zara ala ez? Erantzuna: literatura eta historia estudiatu nituen eta gero kazetari libre gisa jardun nuen. Nik zintzo nahi nuen lan egin, baina inork ez zidan hizketaldietarako egokitasunik ematen. Orduan metodoz aldatu behar izan nuen.

-Eta hizketaldi faltsuekin hasi zinen?

-Probintzietako egunkarietara lanak bidaltzen hasi nintzen. Ez zuten asko ordaintzen, baina dena erosten zuten trukean.

-Noiz idatzi zenuen lehenengoa?

-2000. urtean Gore Vidalekin zela uste dut.

-Baina egiaz egin al zenuen?

-Ez. Baina publikatu zen eta elkarrizketa gustukoa izan zen eta egunkari bateko zuzendariak esan zidan: “Orain ezin dugu mailaz jaitsi”. Egia esan izugarri dibertitu nintzen.

-Iruzurretan biziaz?

-Bai, grina itsutan bizi nintzen.

-Hamar urte mitomaniarekin bizi zena asko da gero. Inor ez al zen lehenago konturatu?

-2006. urtean hauteskondeen aurretik John Le Carreri esanarazi nion Berlusconi emango ziola botoa. Hizketaldi faltsua ikaragarri zabaldu zen eta Le Carre oso haserretu zen. Eta gezurtatu zuen, baina ez zen ezer gertatu.

-Ez al zenuen beldurrik salatua izateko?

-Ni soilik mugatzen nintzen joko barregarri tragikoa segitzera.

-Zein izan zen zure kolpe hoberenak?

-Ratzingerekiko hizketa konklabe aurretik eta asmatu nuen Aita Santu-gaia zela esan nuen eta.

-Zer teknika erabiltzen zenuen hizkerak imitatzeko?

-Beren liburuak irakurtzen nituen eta bere esamoldeak eta giroa aztertzen

-John Grishamek kaleratu berri du zure aurkako salaketa sartuko duela.

-Ez dakit momentuz ezer. Nik garbi jokatu dut. Ez naiz aberastu. Ez naiz heroi bat ere. Baina egia esateari eutsiko diot. Ez diot inori kalterik egin nahi. Baina modu onean bizitu nahi dut.

### **Gezurretan. Bosgarren jarduna**

Koldo Mitxelenak miresten zuen zinema eta benean poztu egiten zen arte honen XX. mendeko aurrerabideez. EGAN aldizkarian berrogei zine kritika baino gehiago argitaratu zituen 1954tik 1961 arte. Horregatik pentsa daiteke poza hartuko zuela “Biolentziaren historia bat” ikusiz.

“Zesar” izeneko filmari buruz, beste iritzien artean, esaldi hau idatzi zuen: “Cassiok ongi daki odolak odola eskatzen duela”. Lan honetarako, ikusiko denez, ondo datorren esaldia da. Filma hartan, eta “Biolentziaren historia bat”ean azken gabeko biolentzia baita nagusi. Bi tipo motel bate-tik ateratzen dira lasai bidaia segitzeko. Itxuraz giro baketsuan gertatzen da guztia. Badirudi pertsonaiak eguna normalki pasatzeko asmoz da-biltzala negoziotako gauzetan edo. Baina xehetasun bat harrigarria ikus-ten da: bidaiarako ura hartzea ahaztu zaie. Kameraren mugimenduak, bietako baten ibilia emanaz, aditzera ematen du motelean berriro sartu denean lehen gertaturiko krimen basati bat egina dutela biek. Iskanbila batean bizirik geratu zela neskata bat odol hotzez tiroka hiltzen dutela, gauza guztiz normala bezala. Eszena horrek gardenki salatzen du direla-ko bikoteko tipoak ez jende baketsua baizik kriminal ankerrak direla. Hurrengo irudiek presentatzen dute Midwesteko bazter isil bat, familia eredu maitagarri bat. Ama gazte polita, aita zintzo etxeokoa, kafetegi txiki baten jabea, hamabost urte inguruko semea eta gazteagoko alabatxoa. Mundu perfektu bat, amerikar paradisu txoa. Hasierako kriminal pareka kafetegi txiki horretan sartzen da eta lotsagabeki hango zerbitzuan ari den neskamea heldu eta bahituta eraman nahi dute. Baina kafetegiko nagusia konturatzen da eta bi arrotzak bertan garbitzen ditu tiroka. Al-bisteza zabaltzen da herrian eta telebistak heroi bat bezala txalotzen du gure gizona. Bidezko defentsan jardun baitu.

Kementsua dela erakutsi besterik ez du egin. Egun batzuek pasata, kotxe beltz luze batean aurpegi itsusiko gangster ezagun bat, beste bi lagun dituela agertzen da, salatzen du kafetegiko jabea esanez hau aspal-diko gangster bat dela, bere adiskidea izana, eta gainera beren bandako nagusitakoa. Kafetegikoak, berriz, dena ukatzen du. Ez duela inondik ere ezagutzen delako salatailea. Honek segitzen du bere salaketarekin, Filadelfiara eramatera etorri dela. Bandako burua dela kafetegikoaren anaia, eta honek bere aurrean ikusi nahi duela. Suspense gaitza kreatzen da filmean. Argi dago bere mezua. Gaiztakeriaren mundua da gurea. Mundu gogor odolez zirtatua. Krimena gizadiaren iturburu gisa. Emazteak ez daki zer pentsa ere. Benetan al da bere senarra aita zintzo bat ala gangster nabarmena? Zein da benetan haren iragana? Bi haiek zein erraz nola likidatu dituen gogoratuz duda gaitza du barrendik. Errealitate nahasia gorrotoa eta maitasuna zinematua. Ezkontza fartsa bat besterik izan ote zen? Zein da haragi, hezur, odolezko aurpegi jatorra eta zein kartoi latzezko kareta lotsagabea? Dena dela, senarra joaten da anaia zahar-raren bizitegira eta musu emanda gero hizketan hasten dira. Zaharrak ez

du barkatzen bestearen bizi-aldaketa. Gazteak, berriz, defendatzen du bere burua eta bere berria. Ez du atzera egingo. Bi nortasun gizon bakar batean. Odola odol eske. Zaharra eta bere lagunak saiatzen dira etorri berria likidatzeko. Gazteak, ordea, denetan maltzurrena eta trebeena dela probatzen du. Garaile gertatzen da. Bere kontrako talde osoa akabatzen du tiroka. Garaile? Umil bezain garaile. Iragan ezkutatua indarrean azaltzen da. Iraganak harrapatzen gaitu gutxien uste dugunean. Iraganak ez du barkatzen. Umilki kafetariak egia osoa aitortzen du. Gezurretan urte luzez ibilia dela onartzen du.

Bai, engainatu egin du bere emaztea. Barkazioa eskatzen dio. Eginda-koa damutzen zaio. Erru guztiak bere buruari egozten dizkio. Gezurrezko errainuak ahaztu mesedez. Gutxi gorabehera holako bat da “Biolentziaren historia bat”. Maila honetako filme bat beti da berria, beti da moderno. Eta hori burutu duen zinemagilea betiko da maisu. Maisulanak beti dira eskertzekoak. “Biolentziaren historia bat” 1995 ingurukoa da. Duela bost urte modan egon zen. Edozein zinema aretotan ikustea orain bertan ere merezi duena da. Bukatzean galdetzeko tentaldia datorkigu. Benetan azkenik zer pentsatzen ote zuen emazteak, seme-alabek, senarrak berak? Zer iruditzen zaio filmaren ikusleari? Zer esan zinemagilearen gainean? David Cronenberg munduko ikusle guztiak merezimenduz bihotz-bihotzez txalotzen eta eskertzen dute.

### **Gezurretan. Seigarren jarduna**

Tania Head guraso diplomatikoen alaba, Harvard eta Stanforderko Unibertsitateetan ikasi zuen eta irailaren 11n lan egiten zuen Merrill Lynch-en bulegoetan New Yorken, World Trade Center dorretan hegazkinen eraso terrorista gertatu zenean. 2001. urtean, Tania Head besoan zauritua geratu zen baina hala ere bizirik irtetea lortu zuen. Bera izan zen eztanda bizitzatik gora bizirik atera ziren hoge pertsonetako bat.

Hondamen eta nahaspilen artean hiltzear zegoen gizon batek eztei eraztuna eman zion gero alargunaren eskuetan jarri zuena. Egun hartan beste gizon bati eskerrak salbatu zen eskailerak jaisteko. Taniak historia bera kontatzen zien “O zona edo esparrua” bisitatzen zuten kazetari, estudiante, lagun eta jendei. Lan handia egin zuen gidari gisa, ildo horretan aipatzekoak izanik New Yorkeko alkatea, Estatuoko gobernadorea eta hauen antzeko pertsonaiak. Tania Head Estatu Batuetan neska heroína gertatu zen azken urteetan. Lortu zuen behintzat aurpegi ezagunenetakoa izatea. Dave bere senargaia egun hartan hil edo desagertu zen. Eta

Tania salbatu zuen gizona Welles Remy Crowder izan zela, 24 urtekoa erreta hil zen askori ihes egiteko lagundu ondoren. Ospitalean hil aurretik bere gurasoekin bakarrik afaltzea eskatu omen zuen. Horretaraino Tania Headen bertsioa. Baina gero mitoa suntsitua izan da, behera erori erabat. *The New York Times*ek aurreratua zuen Tania Head superbibienteen elkartetik bidalia, egotzia izan zen ezinezkoa izan zelako kontaktzen zuenik egiaztatzea eta konprobatzea.

Jardun omen zueneko azken lantegiko jefeak ukatu zuen enpresa hartan lan egina izatea. Aipatzen dituen Unibertsitateak ukatzen dute Tania hango ikaslea izana izatea.

Gainera, Tania Head ez da bere izen-deitura egiazkoa. Egiaz dena Alicia Esteve Head Bartzelonakoa da, *La Vanguardiak* publikatua zuenez, enpresari familia bateko alaba. Familia hori 1992ko ekonomia eskandaluan inplikaturik egon zen, Planademunt kasua, Katalunian izandakoetan handienetako bat. Aliciak lan egin zuen Hovisan, idazkari Takeshi Hiro-nako japoniarrarekin, baina ordurako ez zuen harremanik bere aita eta anaiekin eta esan behar da arazo honek kalte egin ziola. Alizia Esteve Head ez da 11-9-2001eko atentatu terroristaren biktima, baizik eta bere bakardadearen biktima. Hego Dorrearen eskarmentua eta gezur pila imajinatu zuenak bizkarrean biografia pisua darama eta horrek laguntzen du amildegira egindako saltoa. Alizia ez baizen egon egun ikaragarri naitetan New Yorkeko dorreetan. Guztia asmatu zuen. Kontaketa hartan ez zegoen inolako egiarik, ez bazen Aliziaren ama, diplomatiko Ingelesaren alaba zena. Estebetarrek oso posizio ona zuten. Aliciak gurasoak bananduta ikusten zituen familiaren izena egunkarietan eta ez onerako ere. Haustura eta bakartasuna. Horiek dira Aliziaren gainera eroritako dorreak. Dorreen kontrako atentatuaren ondoan berrehun pertsona baino gehiago saiatu ziren legez kanpoko irabazi zikinak sakelarazten. Ez hala sasizko Tonia eta egiazko Alizia. Honek ez zuen abantailarik ez mesederik bilatu. Berak gezurra esan zuen baina garbi jokatu zuen hasieratik bukararaino. Guztiek berdin diote Aliziari buruz.

Ezin eta zintzoago ibili zela. Mesede asko egin zituela. Superbizituak elkartuz eta bene-benetan lagunduz. Ez zuen xentimorik ere kobratzen. Behin baino gehiagotan bere dirutik ipini egiten zuela. Jendeak gezurrak botatzen ditu, hau ez da derrigorrez delitua. Ez gara orain hasiko noski gezurra laudatzen. Alizia lehendakari izan zeneko urteetan modelo izan zen. Fantasiak izan zituen, ez dago dudarik. Bikaintasunaren fantasia izan zen. Sufrikarioaren fantasia. Tristura kutsuko fantasia, hain zuzen.

## V. BIKAINTRASUNA

### **Bikaintasuna. Lehen jarduna**

Helen Adams Keller (1880-1968). Amerikar idazlea, Alabaman jaioa. Umetan itsu, gor eta mutu geratu zen, erakutsia izan zen hitz egin, irakurri eta idazteko makinak erabiliz. Liburu batzuk idatzi zituen bere bizitzaren istorioa sartuz, asko bidaiatu zen eta egin ere asko egin zuen bera bezalako gabetuen hezkuntzarako. Bai, halaxe da. Helen neskabila gorra, mutua eta itsua zen. Bere bizitzaren etorkizuna erabakita zegoela zirudien: gauza txiki bat bezala bizi beharko zuen, bere inteligentzia aparta izan arren gainerako gizakiekin komunikatu ezinean. Baina irakasle zoragarri baten ardurapean mundua ezagutzeko bidean jarriko da bere uki-menari esker, beste gizakiekin harremanetan ipiniko da pixkanaka, beste gauzen zentzuaz jabetzen joango da berak letreiatzen duen esku alfabetoarekin baliaturik. Braille metodoaz irakurtzen eta idazten ikasiko du. Helenek aurrera egingo du bere ikasketetan eta unibertsitate titulu bat ere lortuko du eskualde hartako unibertsitaterik ospetsuenean.

“Anne Sullivanen Miraria” filma ikusi dutenek ez dakite Helenen bizitzak ondorenean nondik nora jo zuen. Behatzen jokoia eskuetan beste gizakiekin komunikatzeko lengoia bat zela konturatu zenean. Ordura arte, itsua eta gorra izanik ezinezkoa zitzaion jakitea bizitza berri baten ezaupiderako ateak ireki zitzaizkiola. Irakasle aparta hori Anne Mansfield Sullivan Maci izan zen (1867-1936), hogeitau urte zituen neska, eskolatik irten berria, Helen itsu-gor-mutuari hizkuntza eskuzko alfabetoz Braille irakurkeraz eta idazkeraz, idazteko makinaz eta azkenik hitz egitea erakutsiko dizkiona. Gero Helen unibertsitate batzuetan sartu zen. Denboraz liburuak ere idatzi zituen: “Nire bizitzaren istorioa” 1902, “Argia nire iluntasunean” 1913, “Eta konfiantza izaten utz nazazue” 1940. Heleni galdetu ziotenean beretzat aurkikunde gogoangarriena zein izan zen, hone-laxe erantzun zuen: “Sekula ahaztuko ez dudana momentu bat izan zen. Bakarrik nengoen eta inorekin komunikatzeko gauza ez nintzen. Ez nekien ezer nola deitzen zen ere. Orduan egun batean modu diferente

batzuk maneiatu ondoren, nire irakasle Anne Sullivanek jarrarazi zidan eskua gure landetxeko ur punparen pean. Ur freskoa nire esku azpitik jario zuela zebilen bitartean, irakasleak letreiatu zuen ura hitza nire beste esku gainetik, eta bat batean jakin nuen gauzek izena bazutela eta inoiz ez nintzela berriz bakarrik egongo”.

Helenen behatz txiki bizkor eta sentiberek laster asko ikasi zuten ematen zizkieten bolak harian errenkadan sartzen eta multzo txikietan banatzen. Gero irakasleak lepoko bitxi konplikatua bat eginarazi zion: bi bola multzo batetik, hiru beste batetik, hurrengotik lau, eta abar. Harrigarria zen zeinen agudo ikasi zuen honetan ere. Hurrengo jokoa are zailagoa zen. Eta zailagoa zenez, interesgarriagoa noski. Artilezko haril bat eta gakorratz bat eman zion Helenen eskua bere eskuen artean poliki poliki hartuz begizta egiten irakatsi zion eta gakorratza aurretik atzerantz paseaz kate bat osatzen. Baina jokorik zoragarriena “eskuen jokoa” zen. Helenek ez zekien noski, baina ikasten ari zena esku alfabetoa zen, hain zuzen ere. Irakasleak katilu bat zeraman eskuan eta lorategiko bonbarantz eramane zuen Helen eta ur bonbaren parean eutsi zion Helenen eskuei, kontura zedin uraren sentsazioaz. Beste eskutik helduz URA hitza letreiatu zion behin eta berriz, aurrena astiro, gero arinago, horrela askotan. Bat-batean Helen geldi geratu zen, arnasarik gabe. BAZEKIEN! Konprenitu egin zuen! Konturatu egin zen! Gero ideia argiago hasi zitzaion buruan bueltaka. URA. Gauza fresko zoragarria URA zen. Irakasleak kolpetxoak jotzen zizkion bizkarrean. Bai, arrazoia zuen. Helen Kellerrek bere bizitzan lehenengo aldiz beste izaki batekin “hitza egin” zuen.

Annen behatzak Helenen eskuan mugitzen ziren, eta lurra ukiaztatzen zituen LURRA! Hura LURRA zen noski. Neskatilak ere letreiatu zuen hitz berria. Orain gehiago jakin nahi zuen, dena jakin behar zuen. Batetik bestera korrika hasi zen gauza berriak ukituz eta irakaslearen behatzak bilatuz hitz berriak ikasteko.

Handik aurrera Annek Heleni Braille idazkeraz irakurtzen eta idazten irakatsi behar izan zion. Braille, itsuek behatz puntarekin puntu batzuk eginaz idazten da, puntu multzo bakoitza letra bat da. Helenek berehala ulertu zuen eta laster ikasi zuen alfabeto osoa. Harrituta geratu zen Anne Braillez idatzitako liburu bat eman zionean, Helen denaz nola nagusitu zen ikusiz. Helen zortzi urteko neskatila bakarrik zen gero! Laster gormutuen eta itsuen hezkuntza mugak gainditu zituen Helenek eta jendeak irakurri ahal izan zuen neskatila itsu-gor-mutu batek lortu berriak zituen aurrerakada harrigarriak.

Horregatik bizitokia aldatu beharra izan zuten. Trenez Estatu Batuetako ipar aldera joan ziren Massachusetts estatuko Boston hirira. Perkins Institutuan biziko ziren. Helen zoriontsu zen haur talde batekin elkartuko baitzen eta haiekin “hitz egiteko” modua izan ere bai. Helen gramatika, geografia, historia eta aritmetika ikasten ari zen. Azkeneko gai honiek zailtasun handiagokoak zitzaizkion zenbaki guztiak buruz ikasi behar zituelako.

Han jarduten zuen bitartean Helenek aditu zuen Ragnhild Kaatarena, alegia Norvegiar neskatila bat zena, itsua eta gorra Helen bezala, gauza miragarria lortutakoa, hitz egiten zuela, orduan Helenek erreakzio bikaina izan zuen. Beti hori desiratua zuela esan zuen, berak beste horrenbeste egingo zuela. “Neska horrek egin badu neuk ere lortuko dut”, esan zuen segurantzia osoz. Helenek ere ahoarekin mintzatzeko saiatu behar zuen. Bostonen haur gor-mutuen eskolako zuzendari zen miss Fullerek lagunduta hori ere ikasi zuen Helenek eta hamaika urte zituela hitzun itxurazkoa izatea lortu zuen. Hamalau urterekin sartu zen New Yorkeko Wright Humason haur gor-mutuen kolegio espezializatuan, baina lengoaiari espero zuen hainbat ez zen aurreratu. Ikastetxe horretan bi urte egin ondoren Annek erabaki zuen unibertsitateko arazoari aurre egiteko garaia iritsi zela. Bitartean Helen mundu guztian ezaguna egin zen. Harvardeko Unibertsitatea gizonetzakoan da eta berarekin lotua dago emakumeentzako Unibertsitatea, Radcliffekoa alegia. Honetan sartzea lortu zuten Helenentzat. Hirugarren kurtsoan Helenek plazaratu zuen “Nire bizitzaren historia” liburua, hizkuntza askotara itzulia eta, jakina, Braillez ere argitaratua. Urtebete falta zitzaion Heleni unibertsitate aldia amaitzeko. 1904ko ekainaren goiz distiratsu batean, hogeita lau urte ederrin jabe, Helenek jaso zuen Harvard Unibertsitateko diploma preziatua.

1914 aldera adiskide eta laguntzaile bat izan zuten Helenek eta Annek, Polly Thomson neska gaztea, idazkaritza ikasketak bukatu berria. Polly alboan edukiz Anne eta Helenen bizitza, hobetu eta erraztu egin zen. Mila xehetasunez ez zuten handik aurrera pentsatu beharrik. Annen osasuna korapilatu egin zen denbora hartan. Ohean egon behar izan zuen maiz, Helenerentzat hori gauza benetan kezagarria zena hain zuzen. 1936. urteko egun eder batean Helen Keller eta Anne Sullivan berdingabeko bikote zoragarria Franklin Delano Roosevelt Presidente handiarekin bildu ziren Etxe Zurian urrezko domina bana hartzeko Lehendakariaren eskutik, haien lan humanitarioarengatik. Urte bereko urriaren arratsalde batean Anne ongi samar sentitzen zen butaka batean eserita egoteko Helen alboan zuela besotik helduz, elkarrekin pozik. Gau hartan bertan



Annek lo baketsua egin zuen, poliki poliki, beste mundurantz labaindu zen leunki itsurik gabeko zelaietarantz. Hirurogeita hemeretzi urte zituen. Bizitza eredu bat egiaz!

Anne Sullivan hil eta gero ia denbora guztia bidaietan pasa zuten Hellenek eta Pollyk, Suedia, Norvegia eta Danimarkan ibilaldi luzeak egin zituzten. Amerikar herriaren Enbaxadore gisa 1954an laurogei mila kilometroko bidaia egin zuten munduko biran. Planetako lurralde denak bisitatutzat zeuzkaten. Japonian hiru aldiz egonak ziren. Izan ere, mundu osoan zeuden itsu eta gorrak, eta gure bikoteak ahaleginak egiten zituen oro bizimodu normala egiteko aukeraren jabeak izan zitezten. 1954an Hellen dotoreziaz eta segurtasunez ibiltzen zen hirurogeita hamalau urte konplituak izanda ere. Burua tente eta neska baten ibileraz ari zen. Haize leunaren musuarekin indarra hartzen zuen itxuraz. Goiz hartan Braillez idatzitako aldizkari barri bat heldu zen eta Hellenek bere gelara eraman zuen. Pollyk argia itzali eta gelatik irten zen. Hellenek Braille Biblia hartu zuen. Orriak pasa eta nahi zuena topatu zuen. Irribarrez behatzez irakurri zuen:

-Jauna da nire artzaina.

1968. urtea zen. Bizitza harrigarria hauxe! Zer nolako 88 urte!

### **Bikaintasuna. Bigarren jarduna**

Curie, Marie (Marie Skłodowska). Varsovia 1867-Sallanches 1934. Fisikari frantsesa, jaiotzez poloniarra. XX. mendeko emakumerik ospetsuena munduan, iraultzaile eta zientifikoa. 1898an bere senar Pierre Curierekin batera Polonio eta Radio elementuak aurkitu zituen eta halaber Torioaren erreaktibitatea. Nobel Saria jaso zuen lehengo emakumea izan zen 1903an bere senarrarekin eta Bécquerekin kimikan. Nobel Saria bigarren aldiz hartutako pertsona izan zen 1911n. Nobel Sariaren historian kasu bakarra, berdingabeko omenaldia. Medikuntzan, isotopo erradioaktiboek igorritako erradiazioaren erabilera terapeutikoa landu eta ikertu zuen. Hortik, besteak beste, "Curie" unitate estandarra, Radium gramo baten emanazioa, hain zuzen. Rita Levi Montalcini italiarra bera, 2009-4-22an ehun urte bete zituena alajaina. Fisiologia eta Medikuntzako Nobel Saria jaso zuen Stanley Cohenekin batera 1986. urtean. Estatu batuetan Zientzietako Akademia Nazionalarentzat aukeratua izan den hamargarren emakumea. Gainera Columbia, Madril eta abarretako Unibertsitateetako zientzia fakultateetatik sari asko hartua. Biologia zelularrean aitzindari

lana egin du eta munduko zientziaz emakume dirdaitsuenetako bat da. Historia harrigarria du neurologo honen bizitzak. Etxean bere aitak har-  
tzen omen zituen muntako erabaki guztiak.

Haren iritziz, karrera profesionala emaztearen eta amaren kontrakoa zen. Baina Ritak bere pentsamenduak zituen. Hogeitaz urtekoa zenean, aitari adierazi zion emazte eta ama izateko gogorik ez zuela eta horren orde-  
z nahiago zuela medikuntza ikastea. Berak esatera, haurtzaina minbiziaz hil berria zen. Gainera, handik urtebetera aita joan egin zitzaion biho-  
tzekoak jota. Horrela, hogeita hamarreko urteetan Turínen medikuntza ikasi zuten zazpi emakumeetako bat, 150 ikasleen artean, bihurtu zen. 1936an lizentziatura lortu ondorengo hiru urtera neurologia eta psikolo-  
gian espezializatu zen. Ikerketa lanetan atzerrian ere ezagutua zelako Belgikara joan eta Bruselan urte pare bat pasa zuen Neurologiako Institu-  
tuan. Berriz Italian bere bizitokian ikerketa zentro bat eratu zuen minbi-  
ziko zelulekin lan eginez eta sakonki erreakzioak aztertuz. 1941. urtean Turindik alde egin eta landetxe batean bere laborategia instalatu zuen. Bigarren Mundu Gerra bitartean erizain eta mediku gisa aritu zen errefu-  
xiatu zelaietan. Gerra amaitutakoan Victor Hamburger biokimiko iparra-  
merikarrak Rita Leviren liburuak irakurrita, Washington Unibertsitateko Zoologia Sailera joateko eskatu zion. Gogorra gertatu zitzaion orduan. Hilabete batzuetako egonaldia hogeita hamar urteko luzapena bihurtu zen, kasi biziera osoa. Hango Zoologia Fakultatea garaitu zuen eta bolada hartan Ikerketa Zentroa muntatu zuen Erroman. Harrezkero USAn eta Italian banatzen zuen bere denbora, 1977. urtean erretiratu zen arte. Orduetik Erromako bere laborategian jardutera mugatu zen. Ehun urte-  
rekin ere lanean segitzen zuen Europako Garun Ikerketa Institutuan, Ita-  
liako Senatari Biziartekoa izanik eta bere izena daraman Fundazioko Lehendakaria delarik Afrikar Neskaten Hezkuntzari laguntzeko.

Eta hauek dira, hain zuzen, bere kontseiluak zientzia ikasle izateko asmoa duten neskenentzat: “Ez izan inoiz ezere beldurrik, ezta ere etorki-  
zunarenik. Zerbait egitean aurrez pentsatu ongi eta lasai. Eta orduan egizue erabat, osorik, ez gero erdizka”. Hau da Rita Levi Montalcini. Era-  
kusbidea.

### **Bikaintasuna. Hirugarren jarduna**

Ruth Corrêa Leite Cardosok ere merezi du gogoratua izatea. Brasilgo Presidente Fernando Henrique Cardosoren emaztea izan zen. Brasilgo Lehen Andrea, beraz, bera izan zen 1942-2002 epean. Alde egin zuenean,

kultur mundua eta era berean pobretasunaren kontrako borrokaren mundua betaz oroitu zen. Latindar Amerikako antropologoa ezagunenetakoa izan zen, Sao Paulo Unibertsitateko katedraduna, Paris eta Berkeleyen irakaslea, orokorki esanda eskola kreatzailea. Komunitate Solidarioaren fundatzailea esatea da Brasilgo herri behartsuenetako biritza hobetzeko mila gizarte zituen sare handi bateko fundatzailea, horrela programa sozialak egiaz eta benetan aurrera eramateko.

Emakumeen aldeko mundua betaz oroitu zen feminista ekintzailea izan zelako, Brasil eta Hego Amerikako emakumeak bil zitezen saiatu zelako eta emakumeak, talde bezala, ondo eratuak gerta zitezen beren eskubideen onerako betiere. Brasilen eta Amerikar kontinente osoan ari zen diktaduren aurkako erresistentzia mundua betaz oroitu zen, bera izan zelako demokraziaren aurrerakada bultzatzeko laguntzailerik hobereena berritsukeriak lagata. Jendea, eta hitz batean, herria betaz oroitu zen bera izan zelako beldurrik gabe -eta halere gorrotorik gabe- doktora Ruth andre abegitsua zeinarengan konfiantza jar zitekeen gauzak behetik gora aldatuz joateko, arrazoia zuen guztiari babesteko. Nazioaren giro behartsuenetan emakumeen aldeko kooperatiben bitartez berak jarduten zuen neke eta atsedunik gabe. Berdin arrantzaleen bizi baldintzak behar zen moduan aldatzeko. Beti irribarretsu eta sekula zalaparta gabetik, buruz eta bihotzez andre jakintsuak -2008an desagertua- maite zituen herrikideak bezalaxe kanpokoak eguneroko eta biritza osoko saio bakar batean bildurik etengabeaz azaltzen zuenez. Rosa Parks Estatu Batuetako emakume beltz bat zen. Laurogeita hamaika urteko andre hau aspalditxo hil zen eta famaduna izan zen. Alabamako hiriburu den Montgomeryn bizi izan zen. Joan den mendeko erdialde inguruan giro latzak agintzen zuen. Beltzentzat gorriak ikusi beharra. Esate baterako, garraio publikoetan. Autobusetan lehen ilarak zuriak erreserbatuak. Eserleku librerik ez bazegoen pertsona beltzak beren tokiak uztera beharturik zeuden zurien mesederako. 1955eko abenduaren lehenbiziko arratsaldean zen, orain berrogeita hamabost urte. Rosa Parks bere lantegitik bueltan lasai eserita zihoan, baina hutsarterik ez, eta legea lege. Gure Rosa, ordea, mugitu ez, ez zen altxatu. Legea konplitu gabe geratu ez zen ba! Atxilotu egin zuten eta hilabete pare baterako kondenatu. Eta gutxi bazen, hamar dolarreko multa pagatzera behartu. Garraio publikoaren kontua zailtxo jarri zen.

Montgomeryko biztanleriak uko egin zien autobusei eta lantegieta-raino oinez joatea deliberatu zuen. Autobus konpainiek porrot izugarria jo zuten. Eskandalua. Beltzen kontrako sasi lege haiek apurtzeko mugi-

mendu itzela nagusitu zen. Ekintza horretan ospe nabarmena lortu zuen Rosa Parks andreak.

### **Bikaintasuna. Laugarren jarduna**

Stephen Hawking, 1942. Hogeita bat urteko estudiante kirolzale arraunlaria zen. Halako batean gaixorik aurkitu zuen bere burua eta sendagileen eskuetan geratu zen egun batetik bestera. Albiste txarrak izan zituen. 1963. urtea zen. Diagnostiko beltza benetan: alboko esklerosi amiotrofikoa izan, neurona motoren gaitza hain zuzen. Heriotza eragiten dutenetakoa.

Urte pare bateko bizitza iragarri zioten Hawking gazteari. Ezkonzekotan zebilen eta ez zuen asmoz aldatu, eta horrela, Jane Wilde literatura doktorearekin ezkondu zen. Hiru seme alaba izan zituzten, bi seme aurretik, Luzy alaba azkenekoa. Gaitzak, ordea, ez zuen Stephen hilabete batzuen epean hil, medikuek esan bezala. Baina osasuna hondatuz joan zitzaion. Makilekin ibiltzen hasi zen. Gero gurgil aulkian. 1974 arte bera bakarrik moldatzen zen jaten, ohetik jaikitzen eta baita haurrak besotan edukitzen. Baina gaitzak aurrera etengabea jotzen zuen. 1985ean pneumonia bat sufritu zuen. Bizia arriskuan zegoela eta trakeotomia egin behar izan zioten. Halere, jarraitu zuen bere hitzaldiekin, bidaiekin, lanekin. Mintzatzeko naturalki gauza ez zenean, informatikara jo zuen laguntza bila. Gaixotasuna aurrera joanez, esku bakarra geratu zitzaion idazteko. Gero hatz bakarra. Harrezkero begiak bakarrik. Masailaren mugimendu txiki bat. Begiak ñirñirka, Hawkingek mugitzen du bere lentesetan jarritako sentsore bat. Honek keinu bat, seinale bat bidaltzen du ordenagailu batera eta honen bidez esaldiak eratzen ditu, pantailan azaltzen direnak hain zuzen. Alegia, begiekin, aukeratu egiten ditu aurrean duen pantailako hitz zerrendak eta horrela esaldiak antolatzen ditu, azkenik sintetizatzaile batek ahoskatzeko.

Zientifikoak aurten 2013. urtean 70 urte ditu. Hogeita bi zituenean iragarri zioten bi urteko bizitza baino gutxiago geratzen zitzaiola. Ez da ezagutzen Hawking adina biziraun duenik. Luzy alaba 1966an jaio zen. Neska hau eta aita zientifikoa elkarrekin moldatu dira. Zortzi urtetik gorako haurrentzat liburu oso jakingarri bat argitaratu dute. Kasu honetan konfirmatu egiten da gauza nabarmen hori, hots, aita eta alaba ongi konpontzen direla edozein lan aurrera eramateko. Liburu hori “Georges eta unibertso sekretuak” izenekoa da. Georges aldamenekoen familia bateko mutikoa da. Bere gurasoak zientzia eta teknologiaren zaleak ez

dira eta bai aldiz ekologiaren aldekoak. Baina Georgesek dena jakin nahi du eta berrikuntzak gустatzen zaizkio.

Liburuan protagonista aita da, Erik, zientifiko bat. Eta berarekin Annie alabatxoa. Kosmosen jabeak dira munduko ordenagailu indartsuena dutelarik. Ahalmena dauka pertsonak hegan bidaltzeko unibertsoko edozein punturaino. Berek dute unibertsoreen giltza sekretua. Neskatila eta mutila leihotik irtenda kometa batean sartzen dira. Bidaian espaziotik Lurra ikusten dute. Kometa horretan eguzki sistema barrena bidaia egiten dute. Baina makinak ez ditu aurkikuntzak egiten, pertsonak baizik, alegia Erikek, dio Luzyk. Nik bi anaia zaharragoak ditut, bat ingeniari komunikabide tekniketara dena eta liburuiko Georges haren antzekoa da. Hawkingen liburu famatuena 1988an publikatu zuen “Denboraren historia labur bat”. Hawking “zulo beltzen” teoriaren asmatzailea izan zen.

Unibertsoaren jatorriaz eta zulo beltzen existentziaren asko du sakondua. Bere “Denboraren historia”n esplikatzen du kosmosaren elementuak, izarrak, planetak, galaxiak, fotoiak, neutrinoak, ortziaren sekretuak eta abarrak. Azken liburua “Bing-Bang”i buruzkoa da. Zulo beltzez, unibertsoaz, fisikaz, zientzia eta ekologiaren azkeneko bi hauek, nolabait esateko, kantu bat osatzen dute planeta salbatzeko. Berak dioenez, unibertsoaren irudi modernoa ongi ezarririk dago, etengabeki zabaltzen ari da leherketa handi batekin hasia delakoxe. Pozik handiena zerk ematen dio? Inork ez zekiena aurkitzea, ez dago ezer hunkigarriagorik. Bere bulegoa Cambridgeko Centre for Mathematical Sciencesen dago. Matematikaren Katedraduna da Unibertsitate ingelesean duela 28 urte. Hawkingen idazgelaren mahai gainean katilu bat ikus daiteke eta bertatik bapora zuri lodia ateratzen da: hezegailua, arnasa hartzeko jakintsuari dioena. Badira urte batzuk telebista britanikoan dibulgazio programa batean agertu zela “Hawking unibertsoko nagusia” izenekoak. Grabazioak eta kosmologiaren egin dituen lanak meritu nabarmenekoak dira, noski. Eta oraindik ere jarraitzen du liburu zoragarriak argitaratzen, adibidez “Unibertsoa intxaur eskola batean”. Berak esandakoa da hurrengo hau: “Ego-kiera gloriosoak izan da bizirik egon eta fisika teorikoa ikertu ahal izatea”.

Bere azken lanetako bat izan da Albert Einsteinen idazki sorta hautatu eta argitaratzea. Bere egoera fisikoan horren lan garrantzitsua egitea da harrigarriena. Borondate gaitza egunero jartzen agirian. Bizitzeko erakusten duen grina paregabea. Espiritu alaiko borrokalari. Buru lan eta sentimentalean hutsik egin gabe nolatan irauten duen. Mito eta utopiak, fikzio eta fantasiak txiki utzi ditu, sinistu ezina lortua du. Skinnerek esan

bezala, oraindik ikusteko dago izaki humanoak zer egiteko gai den izaki humanoaren alde. Txapela kendu eta bizkarra makurtu behar, buruz eta bihotzez, honelako gizon baten aurrean.

### **Bikaintasuna. Bosgarren jarduna**

Mandela, Nelson (1918-7-18). Rolihlahla (“adar bati tira egin” edo “bazter nahasle” esan nahi duena, hain zuzen) Nelson Mandela Hegoafrikako Transkeiar lurraldeko Mvezo, Mthatha, herrixkan jaio zen, Cape-Tow Lurmutur Hirian, Ekialdean, Afrika hegoaldeko puntan. Populazioa dela eta, 33 miloi edo dira, ehunik kasi 70 beltz, 10 inguru Xoxa talde etniko Mandelarena, zuriak gutxi gorabehera 20 eta 10 inguru mestizoak eta indioak. Thembu dinastiaren, Xoxa, adar bateko kidea.

Rolihlahla Mandela bederatzi urteko mutikoa zela eskolara joan zen, bere familiako lehen kidea izan zen hain zuzen eskolaratua izaten, eta han Miss Mdingane andereñoak izen berri bat jarri zion, ingelesez: “hemendik aurrera Nelson izango zara”.

Hantxe ikasi zuen ingelesez. Mandelaren hezkuntzan ere hantxe sartu zen afrikar anaitasunaren ideia, “ubuntu” bezala deitua, besteenganaiko borondate ona eta errukia erakusten duena. Horrela, elkarri laguntzeko joera sendoa goiz ikasi zuen gure gizonak.

Historiari begiratu arin bat emanaz, badakigu 1652 aldean holandesak kokatu zirela Cape-Tow Lurmutur Hirian barazkiak, fruituak eta ardoak lantzeko asmoz. Ondoren, 1795 inguruan Britainiar inperioa jabetu zen lurralde horietaz Indiarako bere mugimenduak babesteko. Gero Afrika Iparralderako zabalduz gerrak sortu ziren bertako Khosa etniaren aurka, Mandelaren etniaren aurka. Laster hesiak altxatzen hasi ziren han bizi ziren bertako beltzak basatiki tratatuz. 1836 inguruan zuriak Transvaaleko muinoetara iritsi ziren, oraingo Johannesburgo inguruetara. Bi urtetara hango ibaietan diamanteak azaldu ziren eta hori zela-eta ingelesek interes handiagoa erakutsi zuten bertan iraun eta agintzeko.

Luzaroan bake giroan, itxuraz, konpondu ziren afrikarrekin. Batzuei eta besteei interesatzen baitzitzaien beltzen lan merke merkea. Baina azkenik bi komunitateak elkarren aurka hasi ziren. Ingalaterrak milioi erdiko soldaduen armada gaitza bidali zuen lurralde osoan jaun eta jabe eginez. 1948. urtean Alderdi Nazionala, AN, sortu zuten afrikanerrek, botereaz nagusitu, apartheid politika gogorrena ezarri, zurien estatua sortzea zelarik beraien helburua, eta zuriek armaturiko eta kontrolaturiko

sasi herrietan sarraraziz beltzak inolako eskubiderik gabe, noski. Bidegabeko eta erruki ere gabeko erregimen horren kontra, hots segregazio makina horren aurka errebelatu egin ziren beltzak, mestizoak, indioak eta milaka zuri ere, lotsagarrikeria guztiz larria zen eta. Giro horretan agertzen da Mandela. Bere protestaren historia berezia gaztaroan hasten da. Xoxa tribuaren buruzagia izateko eskubidea zuen aitaren aldetik, baina ahalmen horri uko egin zion legegizon izateko ametsa egia bihur zedin: 1942. urtean lortu zuen xede hori. Afrikarren Partidua boterea heltzean apartheid politika ezarriz Mandela buru zeneko Gaztediaren Ligak ekitaldiak antolatu zituen 1951-1952. urteetan segregazio legeen kontra, Gandhik Indian famatutako borroka ez bortitzen metodoekin. Boterearen erantzuna errepresio gogorrena izan zen: zortzi mila atxiloketa. Mendelarena barne. 1955ean, zigorra betetakoan, Johannesburgon Mandelak bere lehenengo abokatu bulegoa zabaldu zuen Hegoafrikan eta handik sustatu zuen Askatasun Agiri bat arraza ugariko estatuaren aldekoa, berdintasunaren eta demokratikoaren aldekoa, laborantza erreformaren alde eta aberastasun banaketari buruzkoa, hitz batean zuzentza sozialeko politika eskatzen zuena.

1956an Gobernuak Bantuen Legea onartu zuen, zazpi Bantu Lurralde sasi burujabe ezartzen zituela, baina egiaz eta benetan gehiengo beltza agintari zurien menpe gorri lotsagarriaren azpian jarriaz. Boikotak eta nahaspilak sortu egin ziren ondorioz eta abenduaren bostean atxiloketa pila ikaragarriaz erantzun zuen gobernuak. Gizon eta emakumeak, beltzak, mestizoak, zuriak, denetatik ugariak erori ziren sare haietan, bere artean herriaren Kongresuko lider ezagunenak, Mandela haien artekoa, doi traizioaren salaketapean, bost urteko zigorraz. 1961eko martxoan irten zen kartzelatik traizio kargu horretatik libre. 1959. urtean Afrikanistek partidu berri bat atera zuten ekintzara: Congreso Pan Afrikanista (PAC). 1960ko martxoan Sharpebillengo auzo beltz batean polizia tiroz hasi zen lege arrazisten aurka bildutako milaka gizon emakumeen jendetza desarmatuaren kontra. 69 pertsona hil ziren eta berrehun zauritu gertatu, gehienak bizkarrean jota ihes egitean. Mundu guztian eskandalu gaitza izan zen. Greba orokor batek bizitza guztia geldiarazi zuen. Bazirudien gobernu ez zela gauza istilua amaitzeko.

1962ko urtarrilaren hasieran Mandela pasaportetik gabe irten zen atzerrira bere Alderdiko Delegazio bateko buru zelarik. Itzultzean, salaketa bat medio, atxilotu egin zuten. Nahiz eta bere aurkako karguak ezin ukatuzkoak izan, berak ez zuen bere burua errudun jotzen. Defentsaren txanda heltzean Mandelak hitza hartu zuen, lau ordu aritu zen hitz egi-

ten bere sineste eta ideia bilakaera azalduz. Britainia Handiko sistema parlamentarioa goraipatu zuen. Ondoren, afrikarren egoera deskribatu zuen, beren eskubiderik eza, duintasun ukatua, behartsutasun latza eta bizimodu penagarria.

Argitu zuen Hegoafrika osoaren eskubide politiko berdinak aldezten zituela eta azkenik bukatu zuen esanez: “Nire bizitza eskaini diot afrikar populuaren borrokari. Nagusitasun zuriaren aurka borrokatuko dut eta berdin diot beltzen nagusitasunaren aurka. Gizarte demokratiko eta aske baten ideala gutziatu dut, non gizaki guztiak harmonian eta aukera berdinekin bizi ahal izango diren. Ideal horren alde bizi nahi dut eta lortzeko itxaropena ere badut. Baina behar bada, ideal honengatik hiltzeko prest ere banago”.

Azaroaren 7an jakinarazten diote Mandelari sententzia: bost urteko kartzela. Baina 1964an berriro epaitua da arauak estutuz, oraingoan bizi osorako zigorra egotzen diote Robber Islandeko uhartean. Hantxe eman zioten 466/64 zenbakia, mundu guztian hain ezaguna egin zuena. Robber Islandeko kartzelaldi luzeak eman zion ospe eta fama handia. Preso beltzen uniforme berezia praka motzak ziren, Mandelaren usterako iraingarria. Bere aurreneko protesta praka luzeak eskatzea izan zen. Bere gelan utzi ziotena. Baina bere lagunentzat aldaketarik ez zuten onartu, eta hori ikusirik praka luzerik ez zuen jantzi nahi izan. Hiru urte pasa ziren preso beltz guztiei aldakuntza hori onartzeko. Presoen biziera gogorra zen, baina halaz ere bazuten ikasteko aukera, eta horrela estudiatzeko giroa oso zabaldua zegoen kartzela honetan. “Unibertsitatea” deitzen zioten. Mandela berak ikastaro bat eman zuen bertan ekonomia politikoari buruz, hain zuzen. Mandelak postazko Londondar Unibertsitateko Zuzenbide ikasketak sakondu zituen eta baita Afrikaans hizkuntza ere landu. Lagunek zapaltzailearen hizkuntza zela zioten bitartean, Mandelak erantzuten zuen zapaltzailearen mentalitatea ulertzeko beharrezkoa zela hura, bai kartzelan eta baita geroari begira ere.

Mandela askatzeko nazioarteko deiadarrari irteera eman nahian Bhotak eskaintza publikoa egin zion Zurién Ganberan 1985eko urtarrilaren 31n: bere askatasuna biolentziaren uztearen truke. Gobernuaren asmoa Mandela eta kanpoko ANCREn artean zartadura lortzea zen. Baina Mandelak ANCREkiko bere leialtasuna aldarrikatu zuen. Argi azaldu zuen bera ez zela gizon erasotzailea, baina erresistentzia baketsuak aurrera eramateko bide guztiak itxi egin zizkietenean, eta orduan bakarrik, aukeratu zuela borroka armatuaren bidea. Eta horregatik bereziki, edozein akor-



diotara iristeko aurre baldintza bezala Gobernuak biolentzia utzi egin behar zuela lehendabizi. Afrikaner klase gidariaren baitan baziren, egon ere, politika ofizial horren aurkakoak, horrela jarraitzea epe luzera etorkizunik ikusten ez zutenetakoak. Horietako zenbait 1985etik kanpoko ANCren ordezkariekin hasi ziren harremanetan.

Gauzak horrela, ministroekin luze eztabaidetan ibili ondoren, inguruko erresistentzia gogor zenbait gainditu eta hurbileko zenbaiten aholkua jaso eta gero, 1990eko otsailaren 2an De Klerkek Hegoafrikako historia iraualiko zuen hitzaldi baten bidez “Parlamentu Zuria”n. Gobernuak debekatuta zeuzkan elkarte eta alderdi politiko guztiak legeztatu zituen. Odol krimenik gabeko preso politiko guztiak askatu zituen eta heriotza zigorrak balio gaberik geratu ziren. Eta horrenbestez, Nelson Mandela baldintzarik gabe aske eta lasai utziko zuen Gobernuak. Astebete bat geroago De Klerkek Mandelari jakinarazi zion libre aterako zela, aske erabat. Biharamunean Mandela irten zen kartzelatik askatasunera, ukabila gora jasota, mundu osoari bira emandako irudi ohorezko pozgarrian.

Hurrengo egunean emandako prentsaurrekoan eskerrak eman zizkien kazetariei, bera eta gainerako presoak ahaztu ez zituztelako. Denak harrituta utzi zituen kartzelan igarotako hainbeste urte ondoren samin-tasunik agertu ez zuelako, eta horren ordeztorkizunera begira zabaldu zuen esperantza eta adiskidetasunagatik. Aitortu ere zuen, aitortu ere, zurienganako gorroto bizia askotan sentitu izan zuela, baina ez zurien aurka orokorrean, zenbait zurien aurka baizik. Sentimendu hura pasea zuen, halere, eta benetako amorrua apartheid sistemari zion iraunkorki. Egun batzuk geroago Johannesburgon harrera bikaina egin zioten Sowetoko futbol estadioan 120.000 pertsona bildu zirenean.

Handik aurrera atzerrian ibili zen, Afrika guztian, Europa, Amerika eta Asian, bere xedea zelarik kanpoko gobernuari eskatzea egin zezatela ahalegina Hegoafrikaren aurkako legeak kentzeko, aldi berean Afrikaren aldeko dirulaguntzak bildu eta ugaltzeko. 1991ko abenduaren 20an alderdien bilera ospatu zen bantustanen ordezkarien artean, 1993an alderdi politikoen hurbilketa prozesuak jarraitzen zuelarik 1994an lehenengo hauteskunde demokratikoak egitea erabaki zuten lauhun ordezkari osatutako Legebiltzar bati begira. Eta horrela, 1994ko apirilaren 27an lehen hauteskundeak ospatu ziren eta maiatzaren 9an Legebiltzarra bilduta Nelson Mandela Presidente hautatua izan zen aho batez.

Bere aurreneko hitzaldian egin behar horretan Mandelak Hegoafrika aldarrikatu zuen “Ortzadarraren Nazioa” bezala, bere buruarekin eta

mundu osoarekin bakean bizitzekoa eta ereserki berria “Nkosi Sikelele Afrika” (Jainkoak bedeinka dezala Afrika). 1995ean Hegoafrika Munduko Koparen antolatzailea izanik Errugbi lehiaketa ospatu zen (beltz herriaren kirol nagusia Futbola zelarik ordea). Eta Mandelak erabaki zuen aukera hori ongi aprobetxatzea. Aukera paregabea iruditu zitzaion elkarren arteko adiskidetzeari bultzatzeko, zuri eta beltzen arteko bizikidetzari urrats sendo bat eman nahi izan zion kirolaren eskutik, zuriaren kirola zen errugbiaren eskutik hain zuzen, nahiz eta beltzek futbola maite bereziki. Eta lortu ere, lortu zuen. Springboks errugbi taldearekin mintzatuz eskatu zion Hegoafrika berriaren ordezkariak izateko eta bere aldetik laguntza osoa emango ziela. Beltzei, beste aldetik, eskatu zion ekipoari laguntzeko inolako zalantzarik gabe. Eta hala gertatu zen. Bertakoek garaitu zuten eta Mandela atera zen zelaira kapitainari trofeoa emateko. Taldearen kamiseta eta txanoarekin jantzita azaldu zen. Publiko gehiena beltza zen eta elkartasun giro ederra sortu zen.

Nelson Mandela hogeita zazpi urte giltzapean igaro eta gero askatasunean, Presidente izendatua da Hegoafrikan. Barruz eta kanpo z gizon librea da erabat. Ez du gorrotorik. Mendeku bila ez dabil. Bere eginkizuna, bere misioa, bakezko adiskidetzeari du. Nazioa berriro eraikitzea. Botea zuriaren atzaparretatik kendu. Gehiengo beltzaren eskuetan ipintzea. Indarkeriarik gabe. Mirariaren harrigarria. Bera Madiba baita, guztien Madiba gero. Bihotzeko adiskidea. Gehiago oraindik. Laguna eta aita. Ez bakarrik Hegoafrikakoa. Mundu osoarena.

Madiba

Mahatma Gandhi eta Luther King bezala, politika zibilizatuaren apaiz nagusia, askatasunaren modeloa, eredu hutsa. Bestetik, ez inolaz agindu behareren morroia. Bere herriaren lehenengo Presidente demokratikoa izanik, izendapenaren legezko epea amaitutakoan, 1999. urtean politika aktibotik erretiratu zena bere borondatez mundu guztia oster harrituta utzirik, Thabo Mhekireni agintea patxada ederrean emana. Nelson Mandela, maila goreneko gizona. Berdingabeko nortasuna. Idolo bat.

Amets bat.

### **Bikaintasuna. Seigarren jarduna**

Christopher Nolan, dublindarra, 1965. Jaiotzez paralitiko eta mutua. Amak kokotsetik heldu eta buruari eusten dio espasmoak dituenean. Gorputz torturatu batean bizi da. Eroki mugitzen zaio burua aurrera eta

atzera, mihia ahotik atera egiten zaio, kontrolaezina du, lerdea ahotik atereaz. Hankak atrofiatuta dauzka, besoak gelditzerik ez du, batera eta bestera dabilzkio etengabe. Bozak konprenigaitzak ditu, ustekabeen ateratzen zaizkio tarteka. Haur minetan erdi hila, trabeska jaio zen. Hala eta guztiz, familia konturatu zen Christiren gorputz gaixoan izaki kontziente eta sentibera bat bizi zela eta, beraz, borrokatu zen semea bizitza normalean gizarteratzeko integra zedin. Eskola berezi batean urte batzuk pasatakoan Christ mutikoa, denboraz inon hartua izan gabe haur normalen eskola batean sartu zen azkenik. Baina bere bizitza egiaz eta benetan aldatu egin zuena epilepsia kontrako botika miragarri bat izan zen. Hari esker gauza izan zen makinaz idazteko bere kopetan ipinitako estilete baten bidez.

Horrela, 1981ean lehen poema liburua publikatzen du *Dum-Burst of Dreams* Amets leherketa hamasei urtekoa denean, eta gainera, zenbait sari lortzen ditu. 1987an bere *Under the eye of the clock* Ordularien begipean nobela argitaratzen du. Lan honetan Christopherrek bere historia propioa kontatzen du, hirugarren pertsonan idatzia. Gaztetxo minusbaliatuaren bizitza.

-Zergatik hirugarren pertsonan?- Galdetzen diote.

Amari eskatzen dio ispilura eramateko, bere irudia bera ikusten du ispiluan. Besteek, gainerakoek ikusten duten modu berdinean dakusala berak ere bere burua. Christopherrek hogeita bi urte bete ditu. “Ordulariaren begipean” obra hori Ingalaterran 1987ko hoberenentzat joa izan da, ingelesean idatzitako libururik onenari ematen zaion “Whitbread Saria” eskuratu zuena. Literatur saririk ezaguna eta laudagarriena. Kazetari ingeles, amerikar eta azkenik europarrak pasatu ziren Christi Nolan du-blindarraren etxetik. Irlandaren harrotasuna izatea lortu du nobela horrekin. Ildo ospetsuan kolokatzen da, Joyce, Yeats eta Becketen maila berean. Joseph-Christopherrek zorte neurrigabea izan du familia honetan jaiotzeko, zeren hortxe probatzen baita zentzu ona, umorea, kemena eta adore garaitzailea zertan den. Ama mintzo zaio semeari:

-Aizu, Joseph, zuk ikusteko ahalmena duzu, ondo entzutekoa, pentsatzeko, ulertzeko. Aitak eta biok adoratzen zaitugu. Zaren bezalakoa maite zaitugu.

Horiek lehen urteko hitzak dira. Arrakastak gero izan ziren. Hasierako Christopheren gorputz aldrebesa ikusirik nolabaiteko urduritasun larri batek kezkatzen du nornahi. Eta konponbiderik gabeko ezgauzatzat

aspaldi hartan jo bazuten? Eta ondorioz baztertu egin erabat? Erruki etxeetan, gaixotegietan ehunka, milaka baleude loturapean mutu, bizitza hobearen esperoan alferrik, beti begiratu askatzaile baten zain? Berez dator gogora Beckeren bertso inspiratu hura: “Ahaztua, isila, hautsez es-talia dago harpa... Ai! pentsatu nuen, zenbat aldiz holaxe lo dagien jenioa arimaren sakonean! Eta ez dago bozik bat ere, esateko, Lazarori bezala, Jaiki eta ibili”.

### **Bikaintasuna. Zazpigarren jarduna**

Kontaezinak dira zorionez heroismoa agertzen duten kasu indibidualak, gertaera txarren sufrikarioak direla eta emakume eta gizonezkoen kemen eta ahalmen izugarriak erakusten dituzten gertaerak.

Holakoekin jarraitu gabe, bestelakoak iragarritz bukatuko dugu, ekin-tza kolektiboak, komunitarioak izendatuz alegia, gizarteak berak egile direnak, hegazkinen arazoak, hots, abiazioaren hasierak. XX. mendeko gauzarik aipagarriena bezala kontsidera daiteke abioiaren etorrera gure zibilizaziora, ez, ez gero marka edo modelo hau edo bestea, baizik bere multzo osoa, pilo guztia, hegazkintza bere betean baita egiazko gertaera definitzen duena, ezaugarri harroa.

Leonardo da Vinci (1452-1519) pintore, eskultore, jakintsu italiarrak espazioa ere estudiatu eta aztertu zuen, eta zentzu horretan esan daiteke hega egiteko makina bat proiektatzeko zinez jardun eta saiatu zen lehen-biziko pertsona izan zela. Berak aztertu zituen txori mota guztien hegaldiak eta ez hori bakarrik, bere aurkikuntzen artean daude helizea eta paraxuta. Eta pentsatu zuen ere helikopteroren antzeko zerbaitetan.

XIX. mendeko bukaeran Estatu Batuetako familia batean hasi ziren hegazkinez arduratzen. Bizikleta fabrika bat zuzentzen zuten Daytonen eta gainera biziki interesatzen ziren hega egiteko aparatuez. Wright anaiak Hawakeko hondartzan (Carolinako Iparrean) hasi ziren saioak egi-ten, hasieran jauzi luzeak soilki zirenak hain zuzen. 1903ko abenduaren 17an lortu zuten bere ametsa egina ikustea lehenengoz historian kontrol-peko hegazkin batean: hogeita hamabost kilo pisatzen zituen eta 48km abiaduran egin zuen hegaldiak 112 segundo iraun zituen. Abioia biplano bat zen, “Flyer” deitu zutena. 1927an Charles Lindbergh pilotu estatubatuarra (Detroit 1902-Hawai 1974) bakar-bakarrik “Spirit Of Saint Louis” abioian izan zen lehen aldiz Atlantikoa zeharkatu zuena. New York-Paris

egin zuen geldiketa gabeko hegaldi batean, 5.810 km 33 ordu eta 32 minutuetan. Arrakasta mundiala izan zen, noski.

Bigarren Mundu Gerra bitartean azaldu ziren lehenengo bonbaketari eta ehiza hegazkin errektoredunak. Urte haietan sortu ziren motor indartsuenak, hiru mila zaldi indarrekoak, “Douglas DC-7”... hegazkin handiak bultzatzeko gauza zirenak. Horrela sortu ziren bi-bistako abioi erraldoiak ehun eta gehiago pertsona eramatekoak. Eta errektoreen garaia izan zen komertzial saileko lehendabizikoak. De Havilland Comet britainiar bidaiari hegazkinek harrera izugarria izan zuten sail honetan. Lurretik espaziora. 1957. urtean Sputnik sobietar satelitea aurrena izan zen Lurra orbitatzen. Eta 1961eko apirilaren 12an Yuri Gagarin bidali zuen Batasun Sobietikoak espaziora bira bat eman ziezaion gure planetari Vostok kapsulan ordubete eta berrogeita zortzi minututan 181-327 kilometroko altueran. Yuri Gagarin bere kapsulan jaitsi zen paraxutean Volgako estepan, Saratov inguruan, ehun eta zortzi minutu espazioan egon eta gero. Khrustwerek zorionak bidali zizkion kartsuki Gagarini. Urte bereko maiatzaren 5ean Estatu Batuek bidali zuten espaziora Alan Shepard. Eta maiatzaren 25ean Apolo programa ilargirantz abiatu zen. 1969ko uztailaren 21ean Neil Armstrong eta Buzz Aldrin iritsi ziren ilargira. “Tranquilidad”eko basera. Hirugarren laguna, Michael Collins, etorritako ibilgailuan geratu zen, LEMen zain geratu zen kontrolean. Armstrong lehenengo izan zen jaisten, poliki-poliki, gero Buzz Aldrin. Zabaldu zuten amerikar bandera haize eta atmosfera gabeko mundu arraro hartan. Harri erakusgarri batzuk bildu eta ordu t´erdi barru gora berriz LEM ibilgailura, Michael Collins goien geraturiko lagunarengana, hirurak elkarrekin itzultzeko lurrera.

Estatubatuarrak erakutsi zuten, beraz, beren espiritu garailea. Berak ziren espazioaren liderrak. Estatu Batuek Apolo misio berriak amesten zituzten. Egun horretan frontera berria zabaldu zen. Pioneroen garaia. Hegazkinen denbora. Hegazkinak gero eta automatikoagoak izango dira. Pilotuaren eginkizunari garrantzia kendu egingo zaio. Fabrikatzaileek inbestigatzen segitzen dute, geroz eta produktu seguru eta isilagoak izan daitezten. Indar iturri garbiagoak ere bilatzen dira. Etorkizunak abioi bereziagoak eskatzen ditu, energia berriak ere bai, agian elektrizitatea edo eguzki indarra.

Oro har, laburki, bistan da hegazkintzaren arrakasta itzela. Azken ehun urteko hobekuntzak kemen eta argitasunez beteak daude. Nork esango zuen XIX. mendean honelako aldaketak ikustekoak zirela? Dena

dela, asko izan dira hilak progresoko lasterketa honetan. XX. mendean humanitateak aurrera pauso gaitzak eman ditu hegazkinei esker. Ohore, omenaldi, errealitate berri hau posible izan dadin saiatu ziren guztiei.

## **Bikaintasuna. Zortzigarren jarduna**

Aron Ralston, 27 urteko mendigoizalea. Odol hotza superbizitzeko. Mendigoizale batek beso bat mozten du, bost egun iragan ondoren haitza gainean zuela. Zorte txarra eta harrigarritzko odol hotza dira betirako definituko duten Aron Ralstonen nolakotasunak. Bere eskuineko eskua harrapatuta geratu baitzitzaion tona batzuetako harri baten azpian mendi baten aldapatik jaisten zenean. Jarrera horretan geldiarazirik bost egun osoz pasatzeko, lasaitasun ikaragarria izan zuen azkenik bere bizia salbatzeko zerbait egin behar izan zuenean. Baina zer gin? Gorputza bihurritu, bere besoko hezurra hautsi egin eta gero besoa ebaki zuen, anputatu alajainetan, zeraman labanarekin. Gertaera hau Ralstonek kontatzen du irribarreka hori guztia pasata gero, ostera mendia eskalatzeko gogo biziz.

Ralstonek grina gaitza du aire libreko kiroletan jarduteko. Inori ez zion adierazi nolako goialdea menperatzeko asmotan zen. Oker hori izan zen burura aurrenekoz etorri zitzaion ideia arrokak eskua zapaldu zionean arraildura batetik jaisten zen bitartean zeharreko sokatik esekirik, bere esku gainean zeukan pisu gaitzak heltzen zuela lotu ahal izan zuen rappel egiteko erabiltzen zuen saketako bat eta honela osatu zuen une txiki bat bertan jesartzeko. Itxura horretan igaro zuen lehen eguna oina-zea ahazteko ahaleginetan. Noizik behin oinak tinkatzen zituen bihurgunetxo batean zangak luzatuz, moteldura zangoetan ez nagusitzeko. Ralston mendiko erreskate talde batean boluntarioa izaki, hasi zen kontsumitzen zeramazkien erreserbak: hiru litro ur, bi oilasko puska eta txokolatina. Bigarren eguna ere joan zen eta hirugarrena. Inork ez zekien han zegoenik eta bere gurasoek ere ez zuten faltan kontsideratzen, horixe baitzen “bere” astea natura librean. Laugarren egunean erabaki zuen eskua ebaki beste erremediorik ez zuela. Egoera hartatik bere burua ateratzeko gogoz, hortzak estutu eta hasi zen eskumuturraren aldetik zerratuz.

Konturaturik labainez bakarrik sekula ez zuela lortuko hezurra ebakitzea, taktikaz aldatu zuen: harriaren inguruan bihurritu zen erabat besoko hezurra hautsi zuen arteraino, ukondoaren eta eskumuturraren artea hautsiz osoki. Hezurra hautsita zeukala, ardatz bat egin zuen besagai-

nean eta labainaz azterka ibili zen azalan zehar. Ordubete kostatzen zitzaion bi zatitan bereiztea. Hartara, libre geratu zen haitzetik eta kontziente aurkitzen zen nahiz eta oinazez oinaze. Beso bakar batekin moldatu zen jaisten, geratzen zitzaion aldapa eta hamar kilometro baino gehiago ibili behar izan zuen mendizale talde bat topatu arte. Orain bere historia kontatzen du ospitalean, alegia muno garbitu zioten orduraino. Oraindik hantxe igaro beharko ditu zenbait egun.

-Ez dakit nola egin nuen- esaten digu, “sinpleki, oinazea gainditu nuen”.

Berak dioenez, mendizaletasunera itzuliko da “alta” ematen dioten bezain laster, eta ikasi egingo du beso bakar batekin eskalatzen.

## VI. PLANETA

### **Gure planeta. Lehen jarduna**

Puntu txiki bat besterik ez da gure planeta. Hori gure galaxian. Eta gure galaxia bera ere gauza gutxitxo da unibertsoan, milioika galaxia daude, edo gaude kosmosean eta. Galduta gaude unibertsoan. Lurra, gu, planeta hau, lau miloi urte t´erdi zahar omen da eta hasieran, itxuraz, harkaitz huts besterik ez zen. Biztanleria sei mila miloi emakume eta gizakume ginen XXI. mende hasieran, eta laster bederatzi mila miloi edo izan gaitezke. Alde nabari ugarituenak Asia eta gero Afrikan bizi direlarik. Horrekin ziur aski munduko politika egoerak aldakuntza handiak sufritu beharko ditu, Txina, India, Errusia, Brasil eta abarrek beren pisua erakutsiko dute, noski, eta emigrazioko mugimenduak larrituko dira estatuetan industrialetarantz. Gaur egun 6.700 hizkuntza mintzatzen dira gure planetan. Hogei mila hizkuntza hitz egiten omen ziren ez oso aspaldi ere.

Lurra dugu, bada, gure bizitoki. Hau dugu zaindu beharreko etxea. Egiaz esan daiteke gure planeta dela dugun altxor bikaina. Giza espeziaren baliabide, salbabide bakarra, gure etorkizuna, gure dena. Ekologia, planeta berotzearen kontrako borroka, planeta garbiago baten aldeko lana, mundu garbiago bat behar dela. Bizi garen planeta ez da egiaz Utopiek bilatzen zuten “mundu zoriontsu” hura. Hondamendiak egunero, modu eta era jarraikian ari baitira gertatzen: lurrikarak, tsunamiak, baso suntsiketak, animalien espezieak desagertzeak, era askotako kutsadurak. Ekintza kriminalak, terrorismoa, drogen merkatua.

Eta hori guztia gutxi balitz, erantsi ehunka milioien premia gorria, miseria latza, konparazioko gutxi batzuen oparotasunaren ondoan, globalizazio ekonomikoak zona handietan sorrarazten duen ezin egona, SIDA bezalako gaitza... zoritxarraren zerrenda aisa luza daiteke. Aspaldiko dilema etortzen zaigu burura: benetan bizi ote gara kosmos batean ala atzeraka ote goaz kaos aldera? Ala txandaka gabiltza, batzuetan zuzen, oker bestetan? Ala astroen orbitek ere ez, ala bai, dute zentzurik?



## **Gure planeta. Bigarren jarduna**

Errealitatea hauxe da, estatu nazionalak egiten dituztela herrien arteko harreman nagusiak eta egia ere da estatuak izan direla ez bakerako nazioak baizik gerrarako herriak. Eta badakigu zer diren gerrak: suizidio orokorrak, suizidioitsuak. Gerra batzuek eta besteek galtzen baitituzte, itxurazko garaile suertatzen direnek eta izenezko galtzaileek. Mundu guztia galera lotsagarrian. Denbora zaharretan morrontza hori zen araua, ez noski askatasuna. Hondamen horietatik alde egin nahi izan du mundu aurreratuak, baina leize berean erori egin da berriro XX. mendean bi aldiz milioika hildako sortuz. Bistan dagoenez, oraindik ere zer ikasi gaitza dago. Estatuak ez dira gauza izan sarraskiak ekiditeko. Aitzitik ez bada. Beharbada herri arteko borrokak estatuek berek bultzatu eta piztuak izan dira.

Gaurko egunean 161 estatu, handi eta txiki, aurkitzen dira planetan, humanitatearen onerako eta aurrerapenerako beste hainbeste eragozpen, oztopo eta zailtasun. Burujabetasunak, nolabait, neurritan hartzea eskatzen du zalantzarik gabe arrazoi eta eskubide politikoak nazioez gaindiko erakundeei bidea emanez. XX. mendea amerikanoa izan da indarraren aldetik, ikuspuntu militar, ekonomiko eta kulturaletan. XXI. mendean emigrazioko mugimenduak txit handiak ari dira gertatzen, orain artekoak baino larriagoak, eta aldakuntzak oro har berdingabeak. Txina, India, Errusia eta Brasilen mudantza ikaragarriak produzitzen dira, mundua ez da horren amerikanoa nabarmenki. Guztien onerako suertatuko den gizarte mundialarentzat interdependentzia globala antolatuko ahal da demokrazia eraberrituan egun diren estatuetatik hasiz eta planetaren tontorretaraino ailegatuz. Mundializazioa dator. Lehiaketan ipiniko dira sistemak, organismoak, eskala guztiak. Hau da erronka, desafio handia. Ideia berriak gizon eta emakume berrientzat. Helburu zuzen, berdin eta bakar bat. Lurtarrentzat internazionalismo noble eta eskuzabala humanitatearentzat. Hitz batean, espiritu berri bat lur zahar baina gizarte berri honen zerbitzurako, itxaropenerako.

Izan ere, badago makro-politika edo politika orokor bat begiratzen duena, pentsatzen duena eta zaintzen herri guztien ordenamendu nagusia. Eta badago ere mikro-politika bat, edo politika berezia, zeinaren ekimena bildu egiten da aspektu partzial jakinetan. Azken zentzu honetan aipatzen da, esate baterako, politika ekonomia, politika soziala, politika hezkuntza eta abar. Pertsona garenez, historikoki erantzule, arduradun garen aldetik, gidatzen gaituen helburua askatasuna da: ordena zuzene-

rako borroka askatasunaren alde. Zientzia politika, askatasunaren zientzia eta ondorenez.

Pertsona gehiagok eutsi eta gorde dezaten askatasun gehiago eta gaiago izan daitezen beren askatasuna erabiltzeko, baliatzeko. Ez gara presentean bakarrik, orainaldian bakaririk bizi. Geroan. Geroan ere bizi gara. Etorkizunean. Etorkizunean asmatzen dugu. Ekintza politiko guztia proiektua da. Pertsona horretan saiatzen da, etorkizuneko ziurgabetasuna murrizten, etorkizuna menperatzen. Destinoa eta patua domina eta menperatzen. Jean Paul Sartrek zorrotz idatzi du literatura eta eragile politikoaren artean dauden loturez. Literatura agertzen da askatasunaren ezagutza bezala. Literatura posible ez denean, zail da askatasuna hiritarren artean. Prentsa eta demokrazia lagunak dira...

### **Gure planeta. Hirugarren jarduna**

Gauza jakina denez, Roosevelt zein Kennedy jende intelektual eta trebatuez inguratu ziren, zeinekin kontsultatzeko neurri politiko eta plan garrantzitsuei buruz. Bai horixe, inteligentziaren aldetik ibili behar da fronte guztietan tankera ezberdinetan. Arrunzeria, indiferentzia eta konformismoaren aurka, ergelkeria eta ustelkeriaren kontra, erantzukizun gabeko intelektualen kontra ere. Lan eder batean Lain Entralgok deitu zituena “jakintsu ustelak”, mertzenarioak alegia. Erabateko utopia-zalea izan beharko da sinesteko USAko ereduak eta teknikak neurri eta langarik gabe aplikagarri direla non-nahi, edozein tokian. Hori gerta dakioke barrutik makurtua dagoenari ideologia baten alde amerikar *way of life*en mesedetan. Iparramerikar erakundeak onenak direla, Ipar Amerika inozentea eta osoki desinteresatua eta soilki bilatzen duela demokrazia edonon ezartzea eta herrien askatasuna han eta hemen...

Izaki humanoaren destinoa da politika, baina hau ez da ingenuitatearen erreinua. Zientzia politikoaren loraldia uztartua dago heldutasun zibilarekin, parean dabil zabaltasun kulturekin. Hiru eskema politiko aipa daitezke forma politikoak ulertzeko:

1. Baikortasun antropologikoa: gizakiaren zintzotasunetik hasten dena: Pelagio, Rousseau, anarkismoa, “basati onaren mitoa”...
2. Ezkortasun antropologikoa: aurreko jarreraren aurkakoa: Makia-belo, Hobbes, pentsamendu politikoaren jokaera irrazionalistak, absolutismoa, totalitarismoak...

3. Gizaki erorkorraren tesiak: Teologia kristautik datorrena, bekatu, erredentzioa. Gizakiak onartzen ditu gauza onak eta bertutezkoak. Alabaina, besarkatzen ditu gauza gaiztoak eta biziotsuak.

Filosofo ezkorra zen Schopenhauerek nabarmendu zuen aurreiritzien funtzio kreatzailea. Beretzat gizakiaren uste sendo gehienak maskarada besterik ez dira. Honela, gure mundu zibilizatua maskara izugarria da, maskarada larria. Ikusten dugun bezala gure gorputza jantzipean bildurik dago eta itxura honexetan gure izpiritua gezurrez inguratua dugu. Munduan izaki gezurri bat baino gehiago dago, alegia gizakia. Izaki humanoak bakarrak esaten du gezurra, adierazten du gezurra, gezur esan dezake eta gezur esan egiten du. Eta noski, gezurraren iturriak bere borondatearen nagusitasuna zabaltzen du beste indibiduen gainera.

### **Gure planeta. Laugarren jarduna**

Politikan beti behar dena etorkizuneko ikuspena da, berriaren erakuspena eta eraginkortasuna babesten duen pragmatismoa. Henry Ford mintzo: porrot ororen oinarrian zer dago? Ba, eraketa akastua, edo zuzendaritza arlotea. Beste hitzetan, porrotaren edo arrakastaren, hau da, garaipenaren edo galmenaren iturburua goiko aldean dago beti, zuzendari nagusien artean. Eta ez noski beheko mailan. Leon Blumek esana: lan egin behar da, lagundu behar dugu beldurretik eta miseriatik mundu askatua eraikitzeke. Bizikidetasun ordena erdiesteko jarduera politikoa komunitate osoaren lana bezala ulertzen du Blumek. Politikak, jarduera humano den neurrian, proposatzen duena da boterearen bitartez bizikidetasun libre eta borondatezkoa onestea. Forma politiko desideologizatuak irudikatzea zientzia fikzioko munduari dagokio. Irina gabeko ogia, sexu gabeko maitasuna, grina gabeko politika. Kafeina ez duen kafea, sorpresa gabeko jokia, kirol arrisku gabea. Edo txarragoa dena: desnaturalizazioaren pareko nahasketak, gerra den bakea, gezurra gertatzen den ogia, hizkuntza elektroniko hutsa den ezarritako poesia. Politikaren alde txarra eta zikina, horretan datza arriskua. Horrexegatik libertatearen behar kabalaren premia, askatasun giroaren nahitaeza, jokaera guztien derrigorrezko kontrola, oinarritzkoa eta errozkoa. Herriaren ondasunak gaizki erabiltzea, administratzea modu gaiztoan, batzuei gehiagoko beste batzuei urriagoko laguntzak motibo jatorrik gabe ematea, ustelkeria giroa jaioaraztea da aipaturiko alde txar eta zikin hori.

Beti ere gorrotoak, ezinikusiak, grina txarrak sortzea, lotsagabekeriaren erreinua zabaltzea eta errealtate gordineko erreinua bultzatzea. Ho-

rrela da askoren bizimodua. Eli Wiesel-en pentsamenduak hausnarketa bat gidatzen du mundua gainalderako ekintza daramana. Bultza ditzagun ikerketa zientifikoak, topaketa eta abentura kreaizaileak. Babestu ausarki, lagundu, borrokarako intolerantzia den guztiaren aurka, xenofobiaren kontra, miseriaren aurka, gure unibertsoan bizitza forma guztientzat erdeinua besterik ez duten guztien kontra. Indiako atsotitza: “Ematen ez den guztia galdu egiten da”. Beste esaera on bat: “Iragana da hitzaurrea”.

Politikaren eremuan ez dezagun hutsik landu gabe utzi, zelaixorik txikiena edo laboratzeke zer goldatu exkaxez, uzta ongi helduta bildu gabe, itsasorik garbitu gabe, herri eta hiririk zerbitzatu gabe, inongo gaitasun edo bururik galtzen alferrik eutsi gabe, inor utzi lagundu gabe, inongo horizonte, hodei, ertz ikustatu gabe, inongo zeru miretsi gabe. Oreka politikoa nahitaezkoa da integrazioan parte hartzen duten indar diferenteen artean. Oreka faltaz bultzatzen baita totalitarismo mota batera nahiz bestera. Etorkizunean Estatua gainditzeak etorri behar du egitura nagusiagoak antolatuz, politika ez baita noski identifikatzen soil soilik eta derrigorrez edo halabeharrez maila estatalarekin. Baina zeregin horretan, ikusten denez, badago, egon ere, zer ikasi eta zer ikusi asko oraindik. Prozesuak bide luzea dauka oraindik.

## **Gure planeta. Bosgarren jarduna**

Kultura politikoa kontzeptua ez dator bat sistema politiko konkretu edo jakin batekin. Kultura politikoa da politika egiteko jokaera modua, lanabes kontzeptual baliotsua mikro-politika eta makro-politika elkarbideratzeko. Laguntzen du politikaren multzoa ikertzeko osotasun bezala, harremanetan ipintzen ditu indibiduo partikularren interesak eta estatistikak taldeen eta gizartearen ekintza eta ereduarekin.

Kultura politikoa mailak ikertu daitezke kontutan edukiz honako hauek:

1. Lurralde desberdinetan politika heldua dutenak, kultura politiko garatukoak.
2. Kultura politiko baxukoak.
3. Gutxienezko kultura politikokoak
4. Azkenik, kultura politiko antidilubiana bakarrekokoak.

Kultura politikoaren eraginkortasun eta onuragarritasunari buruz mintza daiteke sistema politikoaren ulermenerako eta azterketarako, kultura politikoak eta forma politikoak konparatuz herrialde diferentee-tan. Erregimen politiko ingelesa hartu izan da herri guztiek imitatu behar luketen sistema eredu gisa. Britainia Handia luzaroan errespetatua eta inbidiatua izan da beste herrien aldetik. Bertan gauzatzen direlako era-ginkortasun politikoak eta hiritar askatasuna uztartuak itxura zoraga-rrian. Britainiar konstituzionalismoa indar biologiko batek zuzentzen du, eta bizitza bezala azaltzen zaigu, paradoxikoa, osoa, betea eta txundiga-rria batera.

Mauroisek Britainia Handia “inkoherentziaren lur bedeinkatua” be-zala bataiatu zuen, bere iritziz beti agertzen duelako soluzio bat, aldi berean liluragarri eta askotarikoa, konplexua alegia.

Voltairek bere aldetik honela zioen: “Bizitza ingelesa... elementuen zorieko konbinazioa da, nahaste harmoniatsu horretan bere ordena-ren sekretua gordetzen baita, jakin dute ederki bateratzen multzo oreka-tuan printzipio eta instituzio zenbait beste lekutan elkarrezinak gerta-tuak izan direnak, aginpidea eta askatasuna, monarkia eta demokrazia, tradizioa eta egokitasuna. Mendetako lanketa historikoa, honek sorra-razten duelarik gaur harritzen gaituen eraikinerako oinarri irmo sen-doa”.

Zein ideia da sistema politiko honi egitura ematen dioena? Oreka-ren ideia, zuzentza, Zuzenbidearen nagusitasunpeko arian doana, *rule of law*, legearen erreinua. Erakunde Britainiakoaren izaera berezia historikoa da, ohiturazkoa, iraganarekin leial, etengabeko eraberritzen dena. Ingalate-rran agintariak zein gobernatuak topatzen dira jokatzeko norma politi-koekin jakintsuki landuak mendeen joanean. Horregatik guztiagatik Bri-tainia Handia egiazko demokrazia da.

## **Gure planeta. Seigarren jarduna**

Lehen Ministroak ehun eguneko epea aipatu zuen herritarrei kon-fiantza berremateko. Estatu Batuetan demokratek, azken hauteskundera-tan garaile irtenak, presa gehiago agertu dute: aurreneko ehun lanordue-tan sei lege-giltza bozkatzeko. Ehun egun, ehun ordu. Nork daki! Gure agintariak ez daitezela fida. Politikoak bilakatzen ari den telebistako joko handi horretan, hautesle ikusle multzoak, kezkatu eta urduri, ehun segun-doko epea besterik ez die emango lehiakide politikariei.

Gaurko egunean politikak bere sinesgarritasuna berreskuratu behar du, eta, beraz, argi ikusi zer nolako etena irekia dagoen hitzaldien eta egintzen artean. Garbi gera dadila zer modutan hautatuek beren lanen argibidea eman dezaketen epe jakinetan, hautatu dituzten herritarren aurrean. Jendeak ez baitu nahi bost urtero deitua izan botoa ematera eta gero egiaztatu inork ez diola kasurik egiten. Hautatuek beren ona besterik ez dute bilatzen. Hori da herriaren sentimendua. Oker pentsatua egon daiteke, baina benetan hori serio hartzen az bada, okerrean dagoela jendea ez dago probatzerik. François Miterrandek errepikatzen zuen bezala, sozialistek aurreratzen duten proiektua handiagoa da beren pertsonak baino eta kolektiboki defendatzen duten xedea indartsuagoa berak indibidualki baino.

Derrigorrezkoa da gazteen langabeziaren aurkako ekintza behar bezain bortitza eta iraunkorra izatea. Horretan huts egitea, zalantzarik gabe, hirietako biziera zauritzen duen ebakia sortzea da eta horrela hausten den orekak gazte jendearen delinkuentziaren iturria bultzatzen dezake. Gutxitu behar da, desagerrarazi posible balitz desberdintasuna, amildegia herrialde aberats eta herrialde behartsuen artean. Diferentzia larri hori desagertzen ez den bitartean, miseriaren immigrazioak iraun egingo du. Mundu osoko politika aurrerakoi eta noblerik baldin bada gure planetarako horixe bai egiaz eta benetan. Arazoa ez da konpontzen jendea jendearen kontra altxatuz, taldea taldearen aurka jarritz, baztertuak gorapenearen bidean altxatuz baizik. Gure txanda da. Guri tokatzen zaigu etapa berri bat hastea, orrialde berri bat idaztea, bestelako ikasturte bat inauguratzea. Dilema ez da sozialdemokrazia bai ala ez. Ongizateko Estatua denek ontzat hartzen dute. Mingainez, ahoz, hitzez, ordea.

## **Gure planeta. Zazpigarren jarduna**

Hainbat gogoeta. Etorkizunari norik antzeman dio? Antzeman dioena emakume bat izan da, lan zailena egin duena bera. Ezker girokoen artean irudi berri baten ekarlea, sinbolikoa eta paradoxikoa bezain irreala belaualdi berri batentzat. Aurkitu duen herrialde nekaturia egoera nahasi batekin ateratzea lortu baitu, hodei baxuak eta udazkenezko euriak atzean utziz. Bundesbankeko lehendakariorde 57 urteko andreak ongi daki zer defendatzea dagokion. Lehentasuna -oraintsu esana du- inflazioaren kontrako gerra da. Bazen hautatzeko ordua. Etsaiak eta aurkariak ez dira gauza bera.

Bilatzen duenarentzat zertan dagoen horien arteko aldea, erantzuna sinplea da, erraza. Aurkariak kontra daude gatazka edo lehiaketa batean. Etsaiek, ordea, elkarri kaltea egitea bilatzen dute.

David Cameron sozietate altuko goi-gizartearen seme hau ondo dabil bere larruan, harrokeriarik eta damurik gabe nazkagarriki pribilegiatua izan dela aitortzen du. Berak esan du, “Balio duena ez da nondik zatozen, baizik eta nora zoazen”. Psikiatra batek zioenez, munduan behar handiena da umiltasuna eta umorea izatea. Umorea senak zabaltzen digu geure kontzientzia eta beste pertsonetik erlazioa. Umorea da munduaren pertzepzio maila, kontrasteak eta zentzugabeak hautemateko gaitasuna. Kreatibitatea eta askatasun sentiera duen sena. Txundiduraren ahalmena. Esanahiaz konturatzeko poza. Sozietate bat alde batetik super-elite batek mugatua eta beste aldetik baztertuez osatua dena, ez da sozietate ona eta zuzena, ez-zuzena baino.

Sakonetik begiratu, miraria zeretik dator, alegia, giza banakoak saiatzen direnetik zuzen jokatzeko sozietate ez-zuzen batean, eta ausaz zuzena ezin daitekeena saminari eta borrokari uko egiteko ongiaren ahalgina tiraniaren aurka eta zuzentasun ahuleziaren aurka saiatzen direnetik, hortik etor daiteke miraria.

Gauza bat dago argi: aldaketa berria behar dugu. Politikari belaunaldi berri bat eta ez egur-mintzaira darabilena, baizik gardentasunaz gobernatzen dakiena, interes pertsonalaren atzetik ibili gabe. Gure herriak guztia du arrakastari eusteko langabezia aurrez aldetik menderatzen badu, hauxe da ideia-giltza. CIAren txostenak aipatzen du “ziurtasun erlatiboan zerranda” munduko ikuskizunaz 2020. urteko horizontean. Baina... zein dira gero ziurtasunok? Jauresk zioen: “Bilatu egia eta esan egia” printzipioak gidatu zuela bere bizitza osoa. Royal andreak esana: “Nik ezagutzen ditut, ondo ezagutu ere, nazioa zutik jarri eta aurreratzen jarraitzeko eragileak. Hauek dira: hezkuntza, balioak transmititzea, inguramena, osasuna, oreka, harmonia soziala, familia, eraginkortasun ekonomikoa, ordena mundiala”. Nazioarteko lege eta Tribunal famatuenean Guantanamo eta Gazako gertaerak epaitu zituen. Baina Estatu Batuek eta Israelek ez dute atxikimenik izan. Maizegi ikusten duguna hain zuzen, bi pisu, bi neurri. Inkoherezia. Ez toki jakin batzuetan bakarrik.

## **Gure planeta. Zortzigarren jarduna**

Non-nahi bi bide aurkezten dira: inspirazio liberalaren onarpena eta joera sozialarena. Bata, sendotu indartsuak, gehiago aberastu aberatsak,

besteek segi dezaten nolabait atzetik, beti atzetik. Bestea saiatu guztiak sar daitezen aurrerakuntzaren itsasontzian. Lehenengoan zalantzarik ez: gizabanakoa utzia dago bere arrakastarekin nahiz bere halabeharreakin. Berritasun garaian gaude, gauza jakina da. Baina noski problemak agertzen dira. Gazte kutsuko aldaketak, orokorki, positiboak bezala hartzen dira, gazte eta positibo hitz sinonimoak dira eta. Txarrena da zahar tankerako guztia, alderantziz, negatibotasunaren multzoan pilatzen dela derrigorrean, ezgauza gisakoen taldean. Zahartzaroaren desegokitasunak aisa barreiatzen dira, nekez aspektu mesedegarriak. Akaso ikusmolde orekatsuago bat desiragarria edo gertatuko litzateke.

Politikari horren arrakastaren iturria, bere ideia kolektiboa ez idatzia izatean dago. Garaipenak, eraikitzeke modua, jokalarien estiloa, mozo-rrorrik gabeko etorkizun ustea, horiek guztiok bultzatzen dute sinisteko desira, gazte itxaropena, ekonomi ekoizpen ona. Gatazka politikoak inguratzen gaitu eta irteera bakarra besterik ez du: sintesi demokratikoa topatzea eszenategi politiko euskaldunen jarrera desberdinen artekoa.

Behar dena da gizartea aldatzea. Eta ez geroago saiatzea gizartea justifikatzeko. Orain arte filosofoek gauza bakarra egin dute: mundua ikusi. Egiaz behar dena besterik denean, alegia, mundua aldatu. Aldaketa ideiaz oroitzea betiere onuragarria da kontzientziak mugitzeko. Arazoa, ordea, da praktikan jartzea itxuraldaketa, esan dezagun mundua aldatzea. Hau da korapiloa. Eszeptizismoa, konfiantza eza, fidagaiztasuna sistema politikoari buruz. Zabalik hori dago hiritartasunaren artean. J.K. Galbraithek frogatzen du bere neurriko ekonomista batek ekar dezakeela aire freskoko olatu sendo bat kutsatuko giro gizartearentzat. Jaun famatu horren obren eduki eta helburu ekonomikoak xeheki deskribatzen dute iparramerikar ekonomia, eta bere azterketak “errenta-banaketaraino” iristen dira. Haren irudiko, kontsumo publikoko ondasunen banaketa errealitate egiten da aberatsak are eta gehiago aberasteko, eta behar-tsuak gero eta pobregoa suerta daitezen. 1865eko apirilaren 14an Abraham Lincoln hil zuten. Lau urte “Sezesio gerra” bukatu ondoren eta Iparraldearen garaipena Hegoaldearen aurka, esklaboen askatasuna aldarrikatu eta gero, Estatu Batuetako hamaseigarren lehendakariak bazekien mehatxatua zegoela. Bere amaiera tragikoak sarrarazi zuen legendan. Hiltzaileak uste zuen bere ekintza madarikatuaren bitartez Historiaren martxa aldatuko zuela eta nahasmendu hartaz abantaila izango zuela Hegoaldearen bereizketa aseguratzeke, eta, besteak beste, esklaboen zortea ere ez zela aldatuko, beti esklabo geratuko liriatekeela. Zorionez erratu zuen.



## **Gure planeta. Bederatzigarren jarduna**

Valentin Puigek gizakiaren, izaki humanoaren natura ez-perfektua onartzera deitzen du. Gurutzada erredentzio zaleak benetan krudelkeriak gertatu dira, gizagabetasuna erakarri dute. XX. mendeko historia zoritxarrekoa izan da, dakigunez. Hainbat arrazoik lagundu dute horretarako. Horien artean dago ere perfekziorako grina. Izan ere, sekula ez mende honetan bezala izaki humanoa saiatua da sozietate ideala sortu nahian, gizarte adiskidetua eta ez zatitua eraikitzeko, salbazio soziala lortzeko xedearekin. Kimera horien emaitza ezaguna da, gauza jakina, totalitarismoak. Horrekin batera, noski, milioika hildakoen odolak gorritu zuen kontinente europarra, XX. mendea bihurturik heriotza pila erraldoia, megaheriotza krudela. Erantzuna bakarra da: onartu behar dela humanoen izaera akastuna. Garen bezalakoak garela, eta ezetz esaten eta errepikatzen duten ideologiak gezurtiak direla eta gezurraren amak. Izan behar dugun hori, behar bezalakoak izan behar hori ez da ideologiaren eta politiken zeregina, gutxiago terrorismoaren kontua, ez da aginduzko obligazioa, oso besterik baizik. Hori da errealitatea, horren aurrean makurtu behar da burua.

Bat-bateko aldakuntzak aholkatzen dituztenak, hots, era batera edo bestera biolentzia saldu nahi digutenek hondamendira eraman nahi gaituzte erredentzioaren izenean edo aitzakian. Inork ez dezala negarrik jo etorkizun perfektu amestuentatik. Onar dezagun behar beharrezkoa ez den mundua. Erabil ditzagun beste moduak gauzak hobetzeko eta gaitzak sendatzeko. Ez, mesedez, mirarizko langailuak, ez ametsezko sistemak, ez alferkeriaren bidezidorrak. Ibilian egiten dira bide onak, ahaleginean, esfortzuan, nekean. Demokrazia konfiantzan datza. Gaur egungo arazoa da leize handia, amildegi itzela dagoela hautagaien promesen eta geroko politiken artean. Ez da gezur kontua, baizik konturatzea politikak gaitasun murriztua, urritua daukala mundua aldatzeko eta erabat zuzentzeko. Dena mundu guztiari prometatzea behar diren errekurtsuez jabetu gabe ere gaiztoa da. Horrek esan nahi al du politika ahula dela? Ez, politikak asko lezake. Baina liderren eginkizuna bestelakotu beharra dago. Ez da beren lana prometatzea. Beren alorra da esplikatzea egingarria dena eta egingarria ez dena. Pedagogia gaitasuna derrigorrezkoa gertatzen da gai horietan. Eta borondate kontua. Politikariek borondatea nahitaezkoa dute mugimenduaren aurrean txukun ibiltzeko, eta ez mugimenduaren atzean joateko.

Italian bizi izandako Goethek zioen: jardutea, jokatzea, gauza erraza da. Pentsatzea zaila da. Baina aritzea norberak sinisten duenez are eta

zailagoa. Esnarazi jendearengan borondate erreal bat eta horizonte politiko zabal bat munduko mailan pentsatzeko. Badatoz mezuak: iragane-koa, orain aldikoa, etorkizuneko, nahiak, asmoak, xedeak, premiak, eskaini guztiei leiho ederrak.

Ez naizela soilik zordun nire inguruko gizaki, izaki humanoekiko ba-  
karririk. Moltzo handiago batekiko, nire antzeko guztiekiko baizik. Lehen-  
go eta oraingo eta geroko jende guztiekin, hainbestek, anitzek osotutari-  
koekin alegia. Desira gogoia da, nahia da, zeruan bilatzea falta den izar  
hura bezalaxe. Gaston Bachelacek zioen bezala: “Bizitza gar berezi bat da.  
Baina... garra zer da? Bizitza bat”.

Teilhard de Chardin: “Igotzen den guztia bateratzera doa”.

Telletxea Idigoras: “Dena egiteko dago”.

Boff: “Jainkoak batu zituena, beregatiko kezka eta gure -guztien-  
beharrengatik kezka, inork ez lituzke banandu behar. Baztertuak batik  
bat, behartsuak, sufritzen dutenak, zorigaitzokoak...”. Gobernu europar  
gehienentzat balio du harako hark: “Esadak zertaz harro hagoen eta  
esango diat zer ez haizen”.

Galdu baita on-izatearen eta ongizatearen iparra. Herritarren txarte-  
la haizeak darabil: jadanik ez du nahi, honezkero ez dago, oraindik ez  
daki. Dena kezka eta duda. Istilu orokorra. Gure produktibitatea, lehia-  
kortasuna, atzerapen teknologia. Epe laburra. Epe ertaina. Epe luzea. Zor-  
teak, agian lagunduko digu. Nork daki! Politika ongi ulertuak asmo kon-  
traesanezkoei koherentzia ematea ahalbidetzen digu. Hori gabe bizitza  
pasatzen zaigu gure lantxoan katigu, gure denborari uztartuak, gure  
existentzia neurtu ezinean. Elkartasunaren beharra dugu. Irigana, orai-  
na, geroa elkartu. Gurea eta besteena elkartu. Politika sakona elkarbidea  
izan dadila.

Absurdoa dabil oraingo produkzioan. Horri John Kenneth Galbrai-  
theek zorrozki deitzen dio “Behartsuak ahazteko artea”. Oraingo eszenan  
joera nagusia gertatzen dena. Faltsukeria ezarria dago, eta da uste izatea  
jende gehienak, aginpidea duenak, kultura eta pentsamenduaren arloan,  
zuzentasunarekin leial jokatzeko duela behetuen interesen gainean.

Roosevelten hitz jokoa da hauxe: “Beldurtu behar duguna da bel-  
durra”.

Gobernatzea ez da soilki egite ofizialetan agertzea, zorionak ematea,  
hitzaldi harroak eskaintzea. Gobernatzea da makina publikoa ongi koipe-

tuta beti edukitzea, etengabeko lan isila, batik bat apala, lurraldeko sektore denekin egoki komunikatua, eta guztien gain berehala bertaratzearrekurtso nahitakoez hornitua zoritxarra sufritu duen lekura. Gauzak egin behar dira, bai, baina ez jendeagatik, jendearekin baizik. Estatuaren ereduak zerikusi zuzena du lehentasun politikoekin. Auzia da txirotasun larria mundutik erauztea lehentasun bat den ala ez den. Demokrazia ez da bakarrik hiru botereak ezarraraztea, Montesquieuk aztertzen zuenez, hots, legegilea, eragilea, judiziala, baizik batik bat, giro itxaropena, elkar akordio sentitu bat, hala moduzko batasun oinarritzoko bat hiritarren artean.

Porto Alegreko mezua:

1. Izaki humano guztien bizitza errespetatzea ekonomi lege berriei esker. Hegoaldeko herrien zor publikoa, zeina aldi batzuetan kitatua izan den, erabat bertan behera uztea.
2. Nazioarteko tasa zuzenak erabakitzea enpresa handien irabazietarako, armak saltzeko eta gauza kaltegarriak estalperik gabe barreiatzeko.
3. Deuseztatzea paradisu fiskal mota guztiak.
4. Lurreko biztanle bakoitzari enplegu bat bermatzea.
5. Salerosketa eta merkataritza mota guztiak bultzatzea.
6. Bermatzea herri bakoitzaren askatasuna eta elikagai guztietara iristea.
7. Debekatzea ezagutzapeen monopolio eta humanitatearen aberastasunen pribatizazioa, batez ere urarena.
8. Mundu berria eta posiblea bultzatzea, elkarrekin bakean bizitzea eta justizia humanitatearen mailan borrokatzea, eta hau dena politika publiko desberdinen mailan diskriminazio eta gehiegikeriak zokoratzeko.
9. Ingurumena salbatzea eta giro osasungarria laguntzea, klima aldaketan mehatxua saihesteko.
10. Beren herriez kanpoko base militarrek deuseztatzea, eta indar militar atzerritar guztiak erretiratzea ONUren aginduz ez bada.
11. Irak, Iran, Afganistan, Palestina, Kurdistan, Somalia, Afrika erdialdea dana eta ez dana, Ekialde osoa, herri zapaldu guztiak, guzti-

guztiak, demokraziarik gabe bizi diren guztiak eta abar eta abar ez uztea amildegiaren ertzetik beheko putzuraino erortzen inolako gupidarik gabe.

12. Bermatzea informazio eskubidea hiritar guztientzat, hedabideen kontzentrazioa debekatu.
13. Elkarte internazional guztiak aldatzea, hobetzea eta demokrazia-raztea, eta giza eskubide, ekonomiko, sozial eta kulturalak baliaraztea, indartzea eta zabaltzea.

Errakuntza, politika, gerra, geopolitika, errealitatea, herria, erraza, harria, bihotza, lurra, gizakia, emakumea, gizona, planeta, mitoa, idatzia, patua, helburua, ez idatzia, ez idatzia, ez dago idatzia, ez.

### **Gure planeta. Hamargarren jarduna**

Gure Herriak altxa eta zutitu egin behar du, lanari ekin. Lau saiakera zentzu horretan:

- Lehenengoa lana, enplegua, hain zuzen. Gabe daudenak gutxitu, derrigorrezko hasiera, edozeren oinarria.
- Bigarrena, legearekiko errespetua behartzea, etsenplua goitik etorrita.
- Hirugarrena internazionala, nazioartekoa hain zuzen, gure lana, gure izaera eta izatea Europan hobetu ezagutu dadin... Horren ahaleginaz ari naiz, hazkuntza ekonomiko iraunkorra eta politiken koordinazioa eta ingurumenaren zaintzak bultzatu nahian.
- Laugarrena herrialde behartsuekiko erantzukizuna, etorkizunari arreta boteretsua, aurrerakuntza eta progresoa era berezian. Ikerkuntzarako esfortzu handia. Ekologia aplikatua. Morala eta itxaropena.

Irudimena?, asmamena?, errealitatea?, ideia zehatzak?, elkarlana?, kontraesanak?, Fleming?, Newton?, Einstein?, politikarien gainbehera eta ilunabarra?, Blair?, Thatcher eta bere malko baina burdinazko eskua? Beethoven?, Shakespeare?. Zer da ona ala txarra? Ulrich Beck? Azken honek dei egiten dio izpiritu erabat europarrari betiere eraikia errealismo kosmopolitakoan, esan nahi baita tradizio autokritikoan. Orain arte ekintzon lana interes nazionalen mesedetan gertatu izan da. Bada garaia

onar dadin sendabidea etorriko dela errealitatearen sen kosmopolita gehiago izatetik. Pelikula handia izatez gain “Besteen bizitza”, Floridan Henckelen zuzendariarena, gogoeta iturri ederra ere bada zentzu sozial eta kulturalean. Zergatik herrialde batzuetan gizartea interesaturik dago gertuko iraganari buruz eta bestetan iragan hori ukigaitza da?

Badirudi iragan gabeko lurralde batean bizi garela, baita ere presente eta etorkizun gabekoan. Hiritarra da gizarte ireki demokratikoan bizi den pertsona. Gizarte itxi eta autoritarioan, aldiz, menpekoak bizi dira. Hiritarren baitan daude obligazioak, eginbeharrak, eta horregatik edukiko dituzte onurak eta probetxuak. Badago halako etsipen bat, edo banaketa bezalako joera bat. Dirudienez, eskuinari dagokio errealitatea eta eragintasuna lantzea eta bitartean ezkerari tokatzen zaio irrealitatearen monopolioa. Eskuinari ez zaio kontrajartzen ametsetako eginkizuna, baizik errealitatearen beste deskripzioa. Hauxe da funtsezko zalantza: jakin garbi ezkerak ba ote duen trebetasunik politikaz aritzeko zeregin burutsu batez boterearen kontzeptuak eta praktikak berrituz. Politika ez da administrazio soila, ez egokitze sinplea, baizik eta eratura, ekintzako markoan marrazketa, etorkizunaren igarpena. Berriri diot, posiblea egin behar da politika berria.

Politika berria, zein gure gizartearen konplexutasunaz jabetzen eta jabetuko dena. Adimen politikoa, gramatika berria geroaren balioen gainean. Bada garaia inguru honetakoek esplikatu eta adierazi diezaguten zergatik geroa ez den kontserbatzailea. Libertatea ez da berez gertatzen. Berezkoa, naturala dena menperakeria da, esklabo gertatzea. Berdintasuna ez da berezkoa. Naturala dena da desberdintasuna, indartsua goian eta ahula behean. Anaitasuna ez da berezkoa. Naturala dena da nor bere alde, bakoitza bere etxerako. Gaurkoan, gainera, erresistentzia da menpetasun ezkutua, isilagoa, egunero pixka bat aurrerako bide hartzen duena, espirituen morrontza maltzurra. Indartsuena nor da? Aberatsena. Diruak dena pasatzen du: libertatea, berdintasuna, anaitasuna. Bidea ez da izan berdintasuna guztientzat, ezta pentsatu ere! Non dago, ordea, Picassoren Gernika? 1937ko apirilaren 26an merkatu eguna, Gernika hiri euskalduna bonba su eragilean azpian, txikitua, itoa.

Zazpi mila biztanlekoa, libertatearen mitoa, leku sakratua, haritz historikoaren gordailua, 654 hilak, 889 zaurituak. Ez helburu militarra. Ez jomuga axolazkoa. Gernika laborategi bihurtu zuten, masako bonbardaketa su jartzaileen saio bat besterik ez, esperimendu sinple bat. Koadroaren lehenbiziko erakusketan ofizial aleman batek galdetzen dio Picassori:

-Zuk egin al duzu hori?

-Ez, zuk zeuk egina da.

Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Gobernuak, 2006ko apirilean eskatzen du bolara baterako bederik koadroa eraman dezatela Gernikara bonbardaketaren 70. urteurrenean. Ezetza biribila izan zen erantzuna. Ezinezkoa. Etsipena. Putzua. Gezurra arma politikoa bezala hartzea miopiaz kutsatua egotea da. Errealitate- printzipioa azkenik garaile geratzen da plazer-printzipio paranoikoaren aurka. Eta asko deliberatuki gezurtiak dira. Politika ez da joko bat. Nahi dugula ez dugula politikari hots egingo diogu, ez dago politika baztertzetik, ez ditu oporrak inoiz hartzen. Politika zerbitzu garrantzitsu bat da, pedagogia egiazko bat, datu handi bat aniztasunaz, nahitaezko oreka bat hiritarren kontrajarrien artean. Tuzididesez ohartarazi zuen gatazkaren halabeharrezkoa sinesteak bilaka daitekeela gatazka beraren kausa nagusia. Politika da batik bat elkar ulertzeko aukera, modua, ahalbidea izatea.

Desakordioa politikan maizegi gerta ohi da eta beharbada gehiegizkoa ospea du. Gehiengoak ez du derrigorrean arrazoiaren jabe izan behar, baina ezta printzipioz kontra dagoenak ere ez du maizagotan arrazoa bere alde. Horrela publikoki azaltzea teatro edo antzerkiaren mamiaren gainekoa da, Habermasek deitu zuena "txalo bilaka aldarrikapenaren ikuskizuna!". Akordioetara heltzeko gaitasun faltak egiazko politikaren atzeratzea dakar, ahalbideak ditu narrasten, taktikak aspertzen eta sormena itzaltzen. Partidu politikoez hartu behar duten barruko koherentzia gogortu egiten dute, baina kanporako hazkundera galarazten dute. Nola asmatu? Sarritan egin daitezke konbinaketa diferenteak eta mota bateko zein besteko orekak. Inoiz, ordea, ez litzateke ahaztu behar partidu batek balio duela bere aldeko boto kopuru osoa, eta, gainera, beste partiduekin egiteko gai den aliantza. Botereak bata nahiz bestea elkartzen ditu.

## **Gure planeta. Hamaikagarren jarduna**

Gauden jakinean destino berdineko komunitate planetario batean bizi garela, munduko mehatxu erraldoien aurrez aurre. Zer nolako etorkizuna inguratzen zaigu? Batetik, arma atomikoen ugalketa ikaragarria, eta, beraz, biosfera arriskuan. Bestetik, munduko ekonomia kontrol gabe, diruaren jauntxokeria. Hitz pare batean, antolakizun planetarioa kondentatua eraldatzera, beste bide bat hartzea edota bestela behar

baino lehenago hiltzera modu txarrean. Aberri bakarra osatzen dugu gero! Lurra, mundua, gizarte bat besterik ez da! Estatuen planeta gainditzea lortu behar da, mundugintza. Elefante bat definitzea zaila baldin bada, errazagoa da, ordea, elefantea ezagutzea aurrean topatzean. Halaxe zioen Joan Robinsonek. Nork ez du amets egiten demokrazia mundutar batekin, zeinean planetako biztanle guztiek arreta bera hartuko luketen? Bada ordua has gaitetzen sistema hori eraikitzen, beren instituzioak irudikatzen. Izan ere, orain bertan demokrazia europarrak topatzen dituen oztopoek erakusten dizkigute bidea luzea dela eta eragozpenez josia. Oraindik inori ez baitzaio posible iruditzen estatu-nazioak desagertzea gobernu mundialaren mesedetan. Ongizate materialak ez du beti lagundu ongizate mentala.

Aurreratze ekonomikoak ez du beti ekarri hobekuntza morala. Elkartasuna ahuldu izan da. Burokraziak gora jo du. Sormena jaitsi izan da uste baino gehiago. Erantzukizunari beldurra hartu zaio. Politika da boterea ideia batekin. Ideiak izan behar du, hain zuzen, proiektuaren muina. Demokrazia eraiki, berreraiki behar da, birgaitu maila denetan. Gauzak nola ikusten diren halako usteak bururatzen zaizkigu. Helburuak lortu ordez, badirudi atzeraka goazela zenbait asmoekiko. Aberastasun globala, egia hazi egin da, dudarik gabe, baina aberastasun hori gero eta pertsona gutxixeagoren eskuetan ari da bildu eta bildu. Munduko biztanleriaren ehuneko hamarrak planetaren ehuneko hirurogeita hamar metatzen du, eta bitartean 1500 miloi pertsonak euro batez egunean bizi behar dute. Zinetan geroz eta aberats gutxiago, baina aberatsago daude eta askoz behartsu gehiago, gero eta behartsuago. Argi eta garbi azaltzen da fenomeno liberal globalizatzaileak desberdintasunaren igoera erakartzen duela bereziki, batez ere biztanleria ahulenen artean, desoreka berez sortzen duelarik datu ezagunena bezala.

Erabaki onuragarriak behartsuenentzat hartu ohi dira munduko batzarretan teorikoki, baina printzipio horiek praktikara eramateko borondate politikorik gabe betiere. Gosea arma politikoa bilakarazi baita. Kontzientzia eza guztiz nabarmena dago goikoen tartean, eta horrela, ekonomia jende guztien zerbitzuan jarri gabe egunero ari dira sortzen zailtasun larriagoak mundu hau egiaz eta benetan izan dadin humanitatearen etxe, aberri eta patria.

Populismoa.

1981ean, gai honi buruzko liburu batean, Margaret Canovasek aipatzen zituen populismo mota edo tankera, bi izenburu handien izenpean

ipintzea merezi zutenak. Bat, nekazaritza populismoa, eta, bestea, populismo politikoa.

Dena den, horrek momentuz badu abantaila bat, zeren erakusten baitu fenomeno baten aurrean gaudela, aski ikus dezagun kezkatu gaur munduan agintzen duen sistema politikoen eskasia. Kritikoek badute nahiko lan bestelako politikarien lanak aztertzen ere. Horra, horien artean, Venezuelako presidente ohia, Hugo Chávez, eta bere ondorengo Maduro bera, horra baita ere Jörg Haider eta bere Askatasun Aldeko Partidu Austriarra, edo Andrzej Lepper eta bere Nekazarien Liga Polaka, Robert Fico Eslobakiab, Italiako Liga del Norteko buruzagia, Frantziako Lependarrak eta abar eta abar.

Badaude, egon ere, beste motatakoak. Hona benetan gustuko bat: John Kennet Galbraith eta bere sen ona, John F. Kennedyren aholkularietako bat eta Estatu Batuetako enbaxadorea Indian. Iritzi konbentzionalen kritiko zorrotza. Berak asmatu zuen esaldia bere ahaztu ezinezko oposaketa bezala “oparotasun pribatua eta miseria publikoaren artean”. Beti azpimarratu zuen analisi ekonomikoaren ezin baztertuzko neurri moral eta politikoa. Legezko oinordeko Adam Smith eta John Maynard Keynesena. Kritikorik elokuyenteena kapitalismoaz eta aldi berean ekonomistarik irakurriena munduan.

Galbraithek pentsatzen zuen kemenez, adimenez, iraunkortasun sen eta kutsu nabariaz. Izaera humanoan sinesten zuen. Eta asko erakutsi zigun sen onaz: “partaidetza, proiektua, sen ona eta politikoa, espirituala, kritikoa, azkarra, etengabeko hobekuntzaren aldekoa”. Harvardeko Unibertsitatean ekonomia irakaslea zenak honela zioen: “Korporazioek erabaki dute arrakasta soziala datzala kotxe gehiago, telebista gehiago, jantzi gehiago, armamentu erailgarri gehiago edukitzean. Horra aurrerapen humanoaren neurria. Ondorio txarrak, hots, kontaminazioa, kutsadura, paisaiaren hondamena, osasun publikoa babestu gabea, ekintza militarren mehatxua eta heriotza ez dira kontatzen, ez omen dute garrantzirik. Arrakasta neurtzen denean, ona eta zorigaitzozkoa konbina daitezke. Zoritzarrez gaur egun badirudi munta gehiago ematen diogula kotxe produkzioari, mikrouhin-labeak edo dinamitari, eta ez arteari, heziketari, samurtasunari edo bizitzako oreka eta osasuntsuari. Oreka falta izugarria da munduan”.

Dena dela, hona hemen zerrenda motz eta labur batez historia txikia eta historia handia baldintzatu eta egin duten hainbat politikari, onerako batzuk, txarrerako beste batzuk, erdipurdikoak batzuk, brillanteak bes-



teak, miretsiak ala madarikatuak... denetatik. Aldekoak eta kontrakoak izan dituztenak, eta dituztenak jadanik, liderrak ala bortxaz aritutakoak, hitzetan ala biolentzian oinarritutakoak, krudelak, estatistak, ereduak ala deabruak, maitagarriak ala gorrotagarriak...

Franco,

Hitler,

Mussolini,

Stalin,

Lenin,

Tito,

Beria,

Breznev,

Gorbachof,

Mao eta bere ondorengoak,

Japoniar buruzagiak, enperadoreak hain zuzen,

Pol Pot,

Jaruzelski,

Walesa,

Nixon,

Kennedytarrak: (“Ez galdetu zure alde zure herriak zer egin lezaken, galde bai zuk zeuk zeure herriaren alde zer egin dezakezun”),

Bushtarrak,

George Washington,

Thomas Jefferson: (“Mantentzen dugu kreatzaileak gizaki guztiak berdinak egin zituela eta eskubide aldaezinez jantziak, horien artean bizitzarena, askatasunarena eta zoriona bilatzearena. Eta eskubideok segurtatzeko sortzen direla gobernuak gobernatuen baimenetik”),

Abraham Lincoln,

Wilson,

Hoover,

Roosevelt: (“Gure progresoaren froga ez da gehiago ematea asko dutenei, baizik nahikoa jartzea gutxiegi dutenen eskuetan, zeren pertsona behartsuak ez dira libreak”, eta “Libertateak eskatzen du jendeari ematea bizitza irabazteko behar den egokiena, bizibide itxurosoa, gure denborako mailari dagokiona, zerez bizi eta zergatik bizi edukitzeko nahikoa betiere”... eta “Asko da eman zaiguna, gehiago gugandik itxaroten dena”),

Truman,

Clinton senar-emazteak,

Obama,

Putin,

Jomeini,

Ghanditarrak,

Eisenhower,

Churchill: (Kiplingen hitz hilezinak gogoratuz, “Amets egin ahal baduzue ez izan bakarrik amesgileak, arrakasta eta deskalabrua topatu ahal badituzue trata itzazue itxurati biok mespretxu berearekin”... eta... “sangre, sudor y lágrimas” famatu hura ezinbestez aldarrikatu behar izan zuen Winston Churchill politikari britainiarrak),

Miterrand, frantziarra, eta beste frantziarra,

Chirac: (“Nik jarraituko dut nire bizitza osoko borrokekin, justiziaren alde, progresoaren alde, bakearen alde, aholku mezuak emanez, inoiz ez naiz elkartuko extremismoarekin, arrazismoarekin, antisemitismoarekin edo bestearen gaitzespenarekin. Estremismoak, muturreko jarrerak, amildegira eramaten baitu, pozoia da, haus-ten gaitu, gaiztotu eta ezerezten du. Berdintasunaren alde lan egingo dut. Europa aipatzen dizuet, bizi ala hiltzeko auzia da. Europa altxatu behar dugu, potentziaren Europa, politikaren Europa, Europa politikoa, gure ongizatea bermatuko duen Europa, gure eredu soziala bermatuko duen Europa. Gure etorkizuna dago jokoan. Aurrera dezagun ideal hau, borondate hau. Bildu behar ditugu humanitatearen hazkunde premiak eta planeta osoaren sufri-

mendua. Gure planeta arnasarik gabe aurkitzen da eta horrela segitzera leizerantz abiatuko gara. Iraultza aldarrikatzen dut gure izpirituetan, egin beharra egin dezagun munduko eskalan pentsatzen, mundu berri bat pentsa dezagun, harremanetako modu berriak behar ditugu, naturarekin ere, garapen eta elkar lan berriak garatu beharrean gara”),

Mandela, eredugarria, miresgarria, hunkigarria, betikoa, betirakoa. Ametsa.

Bere garaiko bi Alemaniatako buruzagiak, ekialdeko eta mendebaldekoak hain zuzen,

Fabius,

Azaña,

Canovas... eta bere antzekoak

Felipe González,

Carrillo,

José Antonio Agirre, Euskadiko lehen Lehendakaria. Mitoa askorentzat. Niretzat ere.

Irujo,

Indalecio Prieto,

Largo Caballero,

Salvador Allende,

Fidel Castro,

Bolívar,

Pinochet,

Perón,

Frei,

Merkel,

Europar batasunaren aitzindariak, Schuman, Adenauer, Monnet eta De Gasperi,

Leinu monarkikoak, atzo eta gaur, han eta hemen... eta abar... gaur arte, bihar arte...!

Horrela izan da beti, eta horrela izaten jarraituko du, dugu, belaunaldiz belaunaldi...

## **Gure planeta. Hamabigarren jarduna**

Politikan, bitala den guztian bezala, asmatzea da ardua kontua, ukipen arazoa, neurri arloa, politika gabeko ideiarik ez dago, ezta ere ideia gabeko politikarik noski. Aurkariak ez dira etsaiak. Gorrotoaren dialektika kaltegarria da. Denerako fintasuna da beharrena. Ez dago besterik askatasun gaberik, ez dago bakerik justizia gaberik. Ez dago bakerik etika sozial gaberik. Ez dugu behar, ez botere-latriarik, ez burokrazia-latriarik, ez estatu-latriarik. Erresponstabilitatea eta erantzukizuna.

Ez dezagun beldurrik izan libertateaz. Erantzukizunik ez badugu ez dugu libertaterik izango, eta libertate gabe ez dugu gizartea izango. Politikak gai izan behar du, gauza izan behar du aurrez aldetik esateko zer gertatuko den bihar, datorren astean, datorren hilean, datorren urtean. Eta gauza izan behar du esplikatzeko zergatik esandako guztia ez den gertatu. Kontua ez da ezkerrera nahiz eskuinera jotzea baizik eta gora joatea, igotzea, goiari eustea. Alegia, heziketa gehiago, berritasun gehiago, lan aukera gehiago, produkzio eta ondasun gehiago. Gora joz, gora joanik. Alde batetik eta toki askotatik saiatzen direnak igotzaileak gero eta elkarrekiko hurbilago daude.

Eta sakonera joanik holako bat gertatzen da. Lurraren erdigunez, zentro-aldera goazela, sakon inguruan gaude, elkarrekiko hurbilago. Bat Amerikatik eta bestea Txinatik sakonerantz joanik, zentrotik hurbilago aurkitzen dira, hots, gorago eta hurbilago. Hitz batean esanda, laburki, goratasuna eta sakontasuna derrigorrezkoak zaizkigu elkartuago egoteko. Egia tontor, gailur, erpin izanik gorantz doazen bide orok, ibili orok, hurbilarazten gaitu. Gora bidean, sakonaldian joanik elkarganatzen gara. Azkenik, goian edo sakonean batasuna gertatzen da. Goitasunak eta sakontasunak elkartasuna sortzen dute. Gauza asko egiteko gogoia daukagu. Gauza askoz ere kreatiboagoak egin ditzakegu, egin ahalko genituzke elkarrekin lana eginaz. PLANETA amaitzear da. Bukatu baino lehen hainbat gogoetatxo-puntu. Aditz-agindu:

1. Aseguratu haur behartsuenei eskolatze normalaren sostengua.

2. Langileen aldeko egiazko arauak praktikan ipini.
3. Enpresen araudiak egokitu, pertsona enpresaren erdigunean jar-  
tzeko eta kapitala bigarren tokian ezartzeko.
4. Irabazien banaketan lehentasuna eman batez ere premia handiena  
dutenei.
5. Ghetto eta aterpe-gabeen eskandaluari bukaera eman.
6. Atxilotutako pertsonak errespetuz tratatu.
7. Atxikimendu soziala legez indartutako zerbitzu baten bidez indar-  
tu.
8. Etorkizuna antolatu datozen belaunaldiarentzat, eta ez gazteei zo-  
rrak utzi gure gaurko arazoa eta problemak arintzeagatik.
9. Europa sozialki elkartuaren eraikitzea bultzatu.
10. Kanpotik etorriei harrera adeitsua eskaini.
11. Emigranteen herriei lagundu beren garapena indartzeko.
12. Herralde pobreekiko finantzako laguntza bistan edukiaz, na-  
zioarteko tratatuak ugaritu eta bultzatu miseria desagertzeko bi-  
dean jarriaz.
13. Gizon eta emakume, emakume eta gizonen arteko berdintasuna  
bermatu.

## VII. “EZ DAGO, ez, IDATZIA”

### **Ez dago idatzia. Lehenengo jarduna**

Iragana da idatzia dagoena. Iragan oro atergabeko kanposantu sorta besterik ez da. Etorkizuna, aldiz, idatzi ez dena. Hortxe biltzen dira legea eta profetak. Etorkizuna oraindik ez da ezer. Ez dugu erantzuten. Ezin gara bizi presentea ez den inolako denboran. Presente hau ez dena ez dakigu nola maneiatu, nola prestatu. Karl Rhanerrek egokiro dioen eran, egiazko etorkizuna da ezezaguna, eboluzio nahiz plan batean biltzen ez dena. Gorabehera guztien irrika baizik ez da, jakite eta ezjakitearen piloa, proiektu eta itxaropenen mordoia. Gauza eta bide suma-ezinak. Etorkizun irekia? Eskaintza irekia? Arlo. Posibilitate. Ahalmen. Bikote nahasi baten umea da. Dakigunaren eta ez dakigunaren fruitua. Mehatxu. Anbiguotasun. Eginkizuna eta ezinkizuna. Lehen ikuspena. Halabeharra. Patua. Adurra. Azarea. Horregatik edozein gaiari buruz erlatibismoz jokatzeko premia legoke. Ezer garantizaturik aurrez aldetik ez baitago. Ezerk ez du erabateko segurtasunik denboran zehar, etorkizunean, menderen mendetan iraungo duenik. Geroa, biharko eguna, etortzeko dagoen aldia iluna baino ez da. Oro kezka, galdera, buruhauste, igarri ezina. Ez dago idatzia, ez. Berez da-eta idatzi-gabea. Legea eta profetak. Gizakia bihotzaren barranean gordetzen dena besterik ez da. Ildo honetan ipuinek bizitzari buruzko jakituria aparta eskaintzen dute. Iban Zalduaren “Etorkizuna”ren ipuinaren muina denbora da, eta ipuina, azken finean, denboraren erabilera da. Ipuin batek denboraren zurrunbiloan sartu eta onik atera beharko luke. Sar daiteke orainean eta iraganeko bidea eginez, berriro itzuli orainera: edo sar daiteke orainean eta gerorako bidea eginez, iraganen finkatu. Denbora guztiak lotzean dago ipuinaren grazia, eta bizitzaren sekretua, ez baita erraza, iraganera joanda handik irtetea, edo geroa ezagututa orainera itzultzea, edo orainean besterik gabe irautea.

Denborak ihes egiten dio.

Utopiaren krisialdian bizi gara. Etorkizuna da presente konkistatuaren hedadura bat bezala, mundu tradizionalen presentea zenez iraganaren luzapena. Horri deitu dio Groysek “etorkizunaren kontserbadorismoa”: etorkizuna ulertua dago gizarte tradizionalerako iragana pentsatzen zuten bezala, esan nahi baita, zerbait harmonikoa, erabatekoa eta aldaezina. Etorkizuna itxaropenaren eta espektatibaren artean datza. Itxaron genezakeen berrientzat betiere uste genuenaz halako haustura baitakar. Horregatik itxaropenak zerikusi exkaxa du baikortasunarekin. Baina itxaropenak bestelako jarrera esan nahi du, honi eskerrak zabalik gaude-lako harrigarriren bat, gure desiren gainekoa, gerta daitekeela.

### **Ez dago idatzia. Bigarren jarduna**

Literaturak ere adierazten du etorkizuna. “Bihar idatzia” deritzan literaturak etorkizunarekin dituen harremanei buruz “Gezurtiaren paradoxa” argitara eman du zazpigarren liburua, 1889. urtean publikatua. “Gezuraren beherakada”n Pierre Bayrderen asmoa ez da adieraztea zer eragina daukan etorkizunak presentearen gainean. Omenaldia aitortzen die gai horietaz jardun dutenei. Bere buruari galde egiten dio literaturak nola igartzen duen, zer gaitasuna duen etorkizunaz. Joko arriskutsua, alajaina. Joerak, tendentziak ikertzen ditugu jakiteko biharko eguna nola osatuko den. Aurreratze sena, prospektiba, antizipazio zentzua. Le Monde, inbentoreak eta asmatzaileak, ikertzaileak, analistak, sortzaileak eta abar bilatzen ditu pentsatzeko era eta modu berritan, eta horretarako kazetagarrentzako errekurtsioak darabilzki: inkestak, interbiuak eta erreportajeak. Zailtasun nagusia ez da balioak galdu izatea, baizik etorkizunari buruzko itxaropena galdu izatea. Victor Hugo idazle filosofo frantsesaren gogoeta hauxe da: “Etorkizunak izen ugari ditu. Ahulentzat iritsi ezina da etorkizuna. Beldurtientzat ezezaguna eta iluna. Misterioa ausartentzat aukera ona da. Mundu aldakor batean garenez, nahasia, aldaketaz aldaketa dabilena, egonkortasuna izango ote dugun ez dakigu, noski. Segurtasun iturriak ur gutxi darama. Etorkizuna kezka bide, beti zalantzarri”.

Proiektuak, programak eta aurreikuspenak ongi daude. Gauza horiek guztiak ikasi, aztertu eta neurtu behar dira. Ez dago idatzia gerokoa. Baina idatz dadin behar bezala jakin behar dugu ez dugula lortuko politika gaberik. Politikaren argiak alboan lagata. Etorkizuna libre da. Iritsi gabeko egunen munduak ez lezake inork asmatu konkistatutzat daukala.

Geroak beti ditu era ezezagunak egitarau eta proiektuen saretatik ihes egiteko, zein-nahi dela atzeman nahi duena.

## **Ez dago idatzia. Hirugarren jarduna**

Gauza absurdoa da iraganeko proiektuaz aritzea. Aski da geroaz arduratzea. Etorkizuna ez da inorentzat hartzeko libre aurkitzen den balio bat. Ezta ere noski jakintza landuenaren jabearentzat. Ez da jaio etorkizunaren jaberik. Ez dago idatzia. Are gutxiago determinatua. Baina horregatixe da pentsatu beharra. Planak egin, prestatu, etxe bat behar denean bezala. Prospektibak egiten du posible biharko eguna. Gehienetan epetan egiten da, epeka, epe txikika, epe laburka. Etorkizuna gertutzean gizartea kezkatu sentitzen da. Dena ilun ikusten da, arazoz josia. Aldaketak, interes orokorrekoak izan arren arbuiatu izaten dira. Etorkizuna antolatzea lan segitua da, etengabeko zeregina. Atzoko eguna eta gaurkoa ezin ditugu nahi bezala mugatu. Etorkizuna, aurrean dugu, ikustean etorriko diren belaunaldien desafioa ikusten dugu. Geroko belaunaldien etxea.

Nolakoak izan daitezke etorkizunean klima, ekonomia, pertsonen berri larriak eta planetaren gobernuak? Zenbat biztanleetara iritsiko gara? Eta gosea eta miseria? Gai izango al da gizakia unibertso legeak zehaztea? Etorkizuna beti txundigarri.

Marxismoaren lan teoriko guztia, mende eta erdiko luzera osoan, ahalegin izugarri bat izan zen etorkizuna iragartzeko lege mekanizisten bitartez. Baina zientzia sozial eta humanistak beti izan dira, eta izango dira, zehatzezinekoak, izaki humanoak hala direlako. Horregatik etorkizun politikoa, ekonomikoa eta soziala ez dira sekula santan agortzen. Zientzia sozialek ezin izaten dituzte fenomeno horiek aurrez ikusi edo igarri. Etorkizuna idatzia ez dagoelako noski! Iragarpenak eta hainbat aldrebeskeria etorkizunaz:

- Harry Warner Brothers konpainiaren presidentek 1927an esan zuen zinema soinu-duna hasten zenean, “inork ere ez du nahi aktoreak hizketan entzun”.
- IBMko buruzagiak 1943an esandakoak ere ez ziren txantxetakoak, “ez dago munduan merkatu-rik bost konputagailuentzat”.
- 1984an publikatu zen Alain Minoen liburua, “Etorkizunaren desafioa”. Bertan esaten zen OCDE-ko herrien ekonomia nekez haziko



da urtean ehuneko hiru, joera izango zela ehuneko bat edo hutsa haztea”.

- Beste liburu batzuetan hausnarketa egiten zen Estatuaren lur jotzeaz eta konkretuki Estatu federal alemanaren porrota 1990. urtean.

Ikus daitekeen bezala, etorkizuna ez dago, ez, idatzia!

### **Ez dago idatzia. Laugarren jarduna**

2009-4-29an Finlandiako “Etorkizunerako Komite”ko kide den Mikko Alatalo, Donostian izan zen lan jardunaldi batean. Bertan adierazi zuen bere eskarmentua gerora begiratzen duten Legebiltzar eta Gobernuetik. Bere iritzian, politikoei saiatu behar dute etorkizunaz aurreratzeko gizarteak jarrera berritzailea har dezan eta herritarrek betiere aldaketen alde saia daitezten. Hamabost urte barru izango dugun etorkizuna nolako gertatuko den asmatzen ahalegindu zen borondate onez. Geroaren ziurgabetasuna txikitzea, izango denaren kezka-giroa ahal adina baztertuz, dugu egin beharra, eta lasaitasun itxura ziurtatzeko eta azalduko diren arazoei aurre egiteko, zerbitzu hobeak asmatu eta lortu behar ditugula zioen Mikko Alatalok. Ausartak izan gaitezten gure ondoren etorriko direnen bizimodua antolatzen, elkartasun gogo sendoa egunero frogatzen batik bat ongizate eta osasun erakundeei buruz bereziki.

Etorkizuna ez da gero pentsatzen duguna, baizik ezagutu gabekoa, ez da orain uste duguna, egiten dugun programa, baizik eta jakiten ez denaren konplexua, asmo eta itxaropenaren nahaspila, iruditzen ez zaigun berritasuna. Iragarpena pentsatzean gauza orain nolatan dagoen egoeratik hasten gara. Xedea ez da asmatzea dena egun batean. Alda liteke eta iraupena ere aldatu beharko litzateke. Geroa kontrolatzeko irrika iraunkorra dugu. Orainak arreta, ardura gutxiago ematen digu, gure seme-alaben zoria mende daukagulako. Ezinezkoa da mundu honetan erabateko prebentzioa. Gertaeren ondorioak kalkulatzeko zaila da benetan. Gauza onak aldatu izaten dira, txar bihurtzen baitira, eta, alderantziz, txarrak onitzen.

Becket-ek bi ziurtasun besterik ez zituen: jaioa zela eta hil egin behar zuela.

Dantza absurdo bat da bizitza, bi isiltasun arteko dantza ero bat alegia. Becket egun batean kaleko kantoi batean arlote batek geldiarazi eta

sastatu zuen. Haren labana bihotzetik bi zentimetrora geratu zen. Ospitaletik irten zenean, erasotzaileari kartzelan bisita egin zion galdera bakar bat eginez:

-Zergatik?

-Ez dakit- erantzun zion arloteak.

Kritikak Becket absurdoaren errege koroatu zuen. Handik aurrera Becketek buruhauste bat baina oso handia izan zuen. Godot nor ote zen, mundu guztia espero zuena, etortzekoa zena eta inoiz heldzen ez zena. Jainkoa dela zioten, edo edertasuna, edo Becket bera.

Zenbaitek uste zuten txirrindulari bat zela, oso famatua Frantzian, beti jomugara iristen zelako kontrolez kanpo. Jendea esperoan egoten zen azkenekoa nola pasatzen zen ikusteko eta zenbaitetan iritsi ere ez zen egiten. Txirrindulari haren izena Godeau zen.

Egun batez Becket hegazkinez zihoan Paristik Dublinera, bere ama oso gaixo zegoena ikustera. Halako batean entzun zuen funtzionario bat esanez: “Hitz egiten dizuet Godot Komandantearen izenean”. Becketek nahi izan zuen bere burua hegazkinetik behera bota martxa bizian.

Hegelek, bere aldetik, ohartarazi zuen “Historiaren filosofia” liburuan Napoleonek berak ez zekiela zer egiten zuen bere tropak bidaltzean etsaiaren kontra. Holako bat suertatzen zaie gobernu batzuei islamismoari laguntzen diotenean ustezko etsaiaren aurka, eta uste ustela gertatzen zaie..

Geroaldia gauza irristakorra da guztiz. Begiratu atzerantz bueltatzen badugu jakiteko nolakoak ginen orain hogeit hamar urte, ezin dugu konprenitu zergatik ez genuen jakin iragartzeko gaur bistakoa iruditzen zaiguna. Internet lekuko. Ezer ez dago geroaz idatzirik. Datorren egiazko krisi ekonomikoa Txinan jaioko omen da. Eta horri buruz ez dago ezer ere ez aurrez aldetik idatzirik. Etorkizuna asmatzea oso gauza zaila da, psikologiak gehiago zabaltzen duelako ekonomiak baino. Kreditua psikologiaren arazoa da, kapitalismoaren ardatza eta bizkarrezurra. Gobernatzea bat-batean pentsatzea eta erabakitzea ere bada, baina orobat planak egitea, ideia jakin bati eustea, geroa prestatzea. Zoriona bilatzea, biharko eguna antolatzea gizakiaren eginkizuna da bete-bete. Neska adiskide batek esan ohi zuen mundu honetara etorriak garela udarra ongi pasatzera. Engainua, gezurra, azpikeria, manipulazioa ez da inoiz osoa nahiz eta horretan asko aurreratu den azkenekoetan. Etorkizunak

beti baditu programa eta asmoen sare gunetik hanka egiteko modua. Gobernatzen dutenak sarritan itxura nahasia erakusten digute, aurre-itxaropenik gabe, ideiez urri. Horregatik fede gutxi, konfiantza ezdeusa kutsatzen dute, segurtasunik batere ez. Etorkizun guztia dudazkoa, ahula. Ezagutza aurreraka ari da, baina paradoxikoki geroz eta gutxiago dakigu. Gure liderrek ezjakitetik hartzen dituzte erabaki asko. Kezka eta galdera giroak inguratzen gaitu. Etorkizun arazotsua ezker eta eskuin, bihar edo etzi.

Geroaldia beti gure eskuetan egongo da. Klima berotzen ari omen da, energiaren kontsumoa beste horietako bat, eta zer esan munduko hainbat herrialdetan jasaten den gose izurritea eta abarrez?.

Krisi kontua ez dela zentzu hertsian iraganaren buruhaustea egunero ari gara ikusten. Zer gerta daitekeen ez dakigu. Erorketa berririk ikusiko ote dugun bermerik ez. Bi lokomotora pelikulan frenorik gabe doaz elkarren kontra eta hondamen gaitza lehertuko da mirarik ez izatera. Kezka izugarria dago. Beldur giroa aurpegietan, ezinegona bihotzetan. Geldituko ote dira garaiz? Egileak erabakitzen duena. Etorkizuna edozein liteke. Horra gure zoria. 1941ean Amerikako Estatu Batuetan susmatzen zuten japoniarren eraso bat; ez, ordea, Pearl Harbourean. Atzematzen zituzten Japoniatiko telefono deiak amerikar gerraontzietan, baina ez zioten ezer adierazi itsas armadari. Kasu hauetan nabarmen geratu zen geroko gertaeren gainean ez zekitelako tutik ere. Izan ere, etorkizuna ez zegoen idatzia.

Zientzia fikzioak errebelatzen duenez, etorkizuna iragartzea geroz eta zailagoa egiten da. Etorkizuna ez baita lehen ohi zena. Geroaldia aurrez esateak praktikatzen duenarekin badu zerikusirik. Izan zaitez errealista. Ezina itxaron. Badira beste itxurako etorkizunak eta denak orain hasten dira. Mundua amestu behar da bertan sartu ahal izateko.

Behar dugu gero bat ez duena itxaropena. Itxaropen hau izan dadila gure etorkizuna.

Etorkizuna ez dago, ez, idatzia, ez dago. Baina kezkatu behar gara etengabe. Beldurtu behar gaitu. Etorkizunera begiratzea oraingo eguna galtzea ote da bada? Horixe ez! Oraina eta biharkoa elkartzekoak dira gero. Ezer ez da betirako idazten, baina horretarako dugu burua.

Proiektu on bat landu, gero mailako bat gure ondoren etorriko direnentzat. Ahal den neurrian inkognitak argitu, txikitu, baztertu. Historia ez dago determinatua. Egi absoluturik ez dago. Elikaduraren erronka,

sendagintza orokorraren desafioa, nazioarteko justizia unibertsalaren aupada, eguneroko ura aurkitzearen buruhauste zorrotza, kultura, langileen eskubideak, herri txikien etorkizuna, hizkuntzen arteko bizikidetzeta, bakea, hezkuntza, solidaritatea, giza eskubideak, berdintasuna eta abar eta abar... nola eskuratu asmo bikain horiek?

Ez dago idatzia nola.

EZ DAGO, ez, IDATZIA.

AMAIERA

